

aurkibidea

<i>Zenbaki honetan</i>	3
Gure eritziz	
NATO: ezezkoaren ondoren zer?.....	5
<hr/>	
Ertamerika eta Nikaragua	
TORREALDAI, J.M.: Nikaragua libre, Ertamerikan	13
GOROSTIAGA, X.: Ertamerika: ikuspegi sozio-ekonomikoa	61
SOBRINO, J.: Ertamerikako Eliza	87
ELLAKURIA, I.: Ertamerikako egoeraren ikuspegi politikoa	115
<hr/>	
Agiriak	
Europa Mendebalдарreko estaturik gabeko Herrien lehen elkargunearen Agiria	143
<hr/>	
Liburuak	
TORREALDAI, J.M.: 1985eko euskal liburugintza.....	147
Jaso ditugu	179

© **JAKIN**

JAKINeko idazlanez
inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria.

JAKIN

aldizkari irekia da eta
ez dator nahitaez
idazleen eritziekin bat.

Zuzendaria

joan mari torrealdei

Idazkaritza eta administrazioa

Ategorrieta hiribidea, 23, 1. esk.
20013 Donostia. Tel. (943) 27 17 13

1985erako prezioak

barruan		kanpoan	
harpideduna	ez-harpideduna	harpideduna	ez-harpideduna
harpidetza ..2.000 pta.	—	2.200 pta. (110 FF)	—
ale arrunta 500 pta.	675 pta.	550 pta. (28 FF)	725 pta. (36 FF)
ale bikoitza 900 pta.	900 pta.	1.000 pta. (50 FF) ...	1.000 pta. (50 FF)
ale extra..... 1.100 pta.	1.200 pta.	1.200 pta. (60 FF) ...	1.300 pta. (65 FF)

ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun zenbaki hau Jakin aldizkariaren bigarren aldiko 38. zenbakia da, eta 1986ko lehena. Zenbaki honekin, bigarren aldiko hamargarren urteari ematen diogu hasiera; baina, denetara, aldizkari hau sortu zenetik, hogeitamargarren urtean sartzen gara.

Eskaintzen dizugun zenbaki honen edukinaren aurkezpenarekin hasiz, esan dezagun geure eritzia agertuz hasten garela. Gure eritziz sailean, geure pentsaera azaltzen dugu OTAN dela eta ez dela. Erreferendunaren aurretik idatzia dagoen testu hau, ospatu eta gero argitara emango da. Baina uste dugu erreferendunaren emaitzak ez duela balioztatzen, ez baliogabetzen gure gogoeten mamia.

Zenbaki honetako gai nagusia, gaurkotasan handiko gaia da: Ertamerika/Nikaragua. Dossier mardula osatu dugu lurralde urruti haietako arazo korapilotsuaz. Ertamerikan, eta bereziki Nikaraguan, gertatzen ari dena ezagutzeko, ulertzeko, horretan laguntzeko, problematikaren ardatz nagusiak lerro lodiz azpimarratzea da gure asmoa. Azterketa honetan ahalegin eta arreta bereziki handiak jarri ditu aldizkariak. Hasteko, zuzendaria bidali zuen Nikaragua eta Salvador-a, egoera in situ, bertatik bertara ezagutzera. Eta gero, sona handiko idazleak bilatu ditu: hiru euskaldun, han bizi eta hura ezagutu ezezik, hango borrokan partaide koalifikatu direnak. Xabier Gorostiaga ekonomista Managuan bizi da, Nikaraguako INIESen (Instituto de Investigaciones Económicas y Sociales) Zuzendaria da eta Ertamerika eta Karibeko CRIESen (Coordinadora Regional de Investigaciones Económicas y Sociales) koordinatzaile kudeatzailea. Jon Sobrino Salvador-en bizi da, UCAko (Universidad Centro Americana) irakaslea da, eta Askapen-Teologiaren aitzindarietako bat.

Ignacio Ellakuria, Salvador-ko UCAko Errektorea da, entzute handiko pertsonaia bai gerrilaren eta bai gobernuaren aurrean.

Erreportaia batez eta hiru ikuspegiz bideratu dugu gaia.

Joan Mari Torrealdaik Nikaraguan ikusi eta ikasiaz erreportaia bat eskaintzen digu. Deskribapena eta analisisa elkarri eskua emanda datoz J.M. Torrealdaik Nikaraguako errealitate sozio-politikoaz egiten duen artikuluan.

Nikaraguako, Ertamerikako eta Karibeko errealitate sozio-ekonomikoaz elkarrizketa luzea egin genion X. Gorostiagari. Agerian uzten ditu X. Gorostiagak prozesu iraultzailearen kausa ekonomiko-sozialak, borrokaren zio geopolitikoak eta iraultzak proposatu/mamitu nahi duen gizarte berriaren eredia.

Jon Sobrino teologoaren lanak Ertamerikako Eliza bere testuinguru iraultzailean aztertzen du. Ertamerikako Elizaren berezitasuna, tipologia eta, batez ere, borrokarekiko duen jarrera ditu aztergai.

Ikuspegi politikoa aztertuz egin du lana Ignacio Ellakuriak. Ertamerikako borroka guztien ardatzak eta bereizgarriak zeintzuk diren, zein den mugimendu iraultzailearen oraina eta geroa, zeintzu bake-proposamenak eta saioak, arakutzen du Ellakuriak.

Lau idazlan mamitsu eta interesgarri hauekin ixten dugu monografia, hango errealitatea ulergarriago egin dugulakoan.

Liburuak sailean, Joan Mari Torrealdaik, urtero egin ohi duenaren ildotik, iazko liburugintzaren azterketa ematen du aurten ere. Hor du irakurleak 1985eko liburugintzaren azterketa, gai-sailkapena eta banan-banako fitxa zehatza. Ondoren dator aldizkarian jaso ditugun liburuen fitxa bibliografikoa ere.

Agiriak sailean, Estatu gabeko nazioak biltzen dituen HEMEGA/CONSEO delakoak, abenduan, Bartzelonan, ospatu zuen Kongresuan ezagutzera eman zuen Manifestua argitaratzen dugu.

NATO: ezezkoaren ondoren zer?

Jakin-en zenbaki hau kalera orduko, Estatu espainola NATO/OTAN-en barruan gelditzeari buruzko erreferenduaren ondorioa ezaguna izango da. Beraz, ez goaz hemen erreferenduari berari buruz nahiz horren inguruan baiezkoari ala ezezkoari buruz eman diren arrazoi eta desarrazoi guztien sintesia egitera.

Talde politiko eta sozialek, erreferenduaren inguruan borrokatu direnek, beren arma ideologiko eta dialektiko guztiak erabili dituzte. Gauzarik nabarmenenetariko bat, hauxe izan da: NATO bai/ez eta erreferenduan bai/ez/abstentzioa elementuen arteko ia konbinazio guztiak egin direla indar politiko eta sozialen jarrera ezberdinen artean.

Oraingo honetan parte nagusia hartu dute "intelektualek" ere: buru-langile horiek... Zeren esku-langileak isiltxeago ibili bait dira. Deklaraziozotan behintzat. Deklarazio kolektiboaren "literatur generoak" bere boom-a lehen asteetan eduki duela esan daiteke. Jakina, horietakoren bat "goiko" enkarguz eta "nolabait ordainduta" idatzi den susmoa nekez kendu burutik. Baten batek uste izan dezake, beste deklarazio bat dela hau, jakin-eko "intelektualek" aterea... Dena dela, gauza batean bereizten da nabarmenki beste guztietatik: erreferenduaren ondotik datorrela, eta, beraz, kanpaina-kutsurik gabe. Erreferendutik aurrera begiratu nahi dugu.

Izan ere, uste dugu, erreferendu bat gorabehera, ez dela ixten Herriak bere defentsari buruz etengabe egin behar duen gogoeta eta hartu behar duen jokabidea. Erreferendu honetan aterako dena aterako dela, talde politiko eta sozial bakoitzak bere ondorioak aztertuko ditu aurrera begira. Aldizkari honek bere gogoetak eskaini nahi ditu, azken datuak ez ezagutzeak dituen alde on eta txar guztiekin. Beste mila daturen ondorioa da gure jarrera.

Estatu espainola NATOtik irtetearen aldeko arrazoiak, ugariak eta askotarikoak izan dira. Hainbat alderditatik agertu da, agertu ere, NATOren aurkako jarrera: Bakezaletasunetik, antimilitarismotik, ekologismotik, antiimperialismotik... Nazioarteko politikari eta defentsa-politika-

ri, demokràziari eta zibilizazioari buruzko arrazoiak ekarri dira; arrazoi erlijiozkoak eta estetikoak ere ez dira bazterrerara utzi; kulturaren alorrak ere bere arrazoiak atera ditu NATOren aurka.

Euskal Herrian, beste arrazoi guztien artean, honako hau nagusitu dela iruditzen zaigu NATOren sartzearen —irautearen— aurka; hainbeste oihukatu den slogan honetan adierazi da: "Euskal Herriaren burujabetasunaren alde. NATOren aurka", edo, zorrotzago esanda: "OTAN ez! Euskal Herria bai!".

Estatuak eta Herriak

NATOren aurkako kanpainan Euskal Herriaren burujabetasuna aldarrikatu denean, ez da erakunde horretatik Euskal Herria bakarrik ateratzea eskatu, uste dugunez. Estaturik gabe edota estatuen menpean dauden Herri guztientzat eskatu da gauza bera. Kanpaina horretan beste Herrietako hainbat lagun —politikari, artista, ekintzaile sozial, kantari eta bestelako— gureganatu zaizkigu, ezezkoa aldarrikatzera. Horregatik, kanpaina horren punturik adierazgarrienetakoa izan da azken egunetan Bilboko Erakustazokan ospaturiko Herrien arteko jaialdi eta ihardunaldia.

Are nabarmenago geratu da NATOren aurkako Herrien arteko elkartasuna, erreferendu osoaren egitura estatala eta estatualista izan denez: eta ez noski delako "Autonomien estatua" rena, estatu zentralistarena baino. Hasteko, aurrean ipini zaigun galderaren azken hitzetan erakutsi nahi izan dute Estatu espainolaren nazio-bakartasuna, "El gobierno de la Nación" esatean. Estatuaren egitura "autonomikoa" bera erabat alde batera utzi da erreferenduan.

Benetako estatu federalean, ez dirudi inola ere pentsaezin horrelako erreferenduan botuen kontaketa Herri bakoitzean —edota Komunitate autonomo bakoitzean— aparte egiteak eta horrela aintzakotzat hartzeak: Euskal Herrian Euskal Herrikoak eta Katalunian Kataluniakoak... Baina horrelakorik zorakeria eta birao hutsa irudituko zaie erreferenduaren antolatzaileei: "batasun sakratua" ren aurkako biraoa, alegia. Dirlako "nazionalitate"ek eta "eskualde"ek, estatua benetan egituratzeko orduan, zein balio txikia duten adierazten du guzti horrek. Hala ere, eta gauzak diren bezala dirlako, eta erreferenduaren emaitzak oraindik ezagutzen ez ditugun arren, alde aurretik esan dezakegu, Herrien —gure kasuan, Euskal Herriaren— berezitasuna nabarmen geldituko dela oraingoan ere. Garrantzizkoa iruditzen zaigu, gainera, hori: Herriena delako azken funtsean defentsaren arazoa.

Baina denok dakigu estatuek monopolizatu dutela arazo hori. Eta horretarako batzutan estatuen arteko paktuak egiteak, arazo superestatalaren itxura eman badio ere, beti estatuen egiturari oinarritzen da defentsa. Defentsa estatalaren ereduak hiru oinarri nagusi ditu: Estatuaren beraren subiranotasuna eta batasuna, abiaburu gisa; Armada, defentsarako tresna nagusizat; estatua bera defendatzea, helburuztat. Jakina, orduan "defentsa nazionalak" estatu barruko borroka "nazionalak" ditu, hain zuzen, bere etsai nagusi: estatua bera zalantzan jartzen duten eta horren aurka borrokatzen diren Herriak, alegia.

Estatuak defentsaren monopolioa hartzen duenean, bere menpe dituen Herriak defendatzeko dagoela sinesterazi nahiko du. Eta, bestalde, bere kanpo-etsaien aurkako gerretan odola isureraiziko die Herri horietako soldaduei. Guzti horretaz badakigu zerbait hegoaldeko (Kuba, Marokko, Ifni, etab.) eta iparraldeko euskaldunok (Indotxina, Algeria, etab.). Estatuaren eta beren askapen nazionalaren alde borrokan ari diren estatuek gabeko Herrien arteko kontradikziorik nabarmenena hortxe agertzen da: estatuaren defentsa-politikan. Horixe nabarmenduko da bereziki Euskal Herriak erreferenduan NATOri ezezko zabala emango dionean, uste dugunez.

Estatuen defentsa-eredu hori, askapen nazionalaren borroka daramaten Herrien ukapena da zuzen-zuzenean. Haren izenean datorren NATO ere bai. Alde horretatik, logikoa ere badirudi erreferenduan euskara, katalana eta galegoa baztertu eta debekatu izanak: badakigu, jakin ere, Hizkuntza dutela Herriek bere herritasunaren ezaugarririk eta armarik nagusienetakoa. Estatuaren hizkera eta hizkuntza ezagutzen ditu NATOk, ez Herrienak.

Bipolarismoaren ideologia

Nekez uka daiteke gaurko mundua bi bloketan banaturik dagoela. USA edo AEBak dira bataren burua; SESB da bestearen burua. Bakoitzak du bere eragin-eremua munduan zehar. Ez gara orain sartuko, inperio deitu behar diren ala ez erabakitzen. Bakoitzak du bere bloke militarra ere, hainbat estaturen arteko itunetan oinarritua: NATO da bata, AEBen kontrolpean; Varsoviako Paktua da bestea, SESBk kontrolatzen duena.

Hitz egiteko modu gisa onar dezakegu, era berean, bi blokeen banaketa Mendebaldearen eta Ekialdearen artekoa dela. Mendebaldekoan dago Europaren zati handi bat; eta Euskal Herria ere horren barruan dagoenez, Mendebaldeko blokekoak garela esan beharko dugu; alferrika-

koa litzateke amets egitea, Georgia izango bagina edo. Ez daukagu, noski, geure kokapen geografikoari ihes egiterik.

Baina zer da Mendebalde hori? Hor bait dago, "buru" gisa edo, USA, eta hortxe Hego Amerika eta Ertamerika; hor sartzen da Europako hainbat estatu eta hainbat gehiago Herri, estaturik gabeko. Mendebaldea kontzeptua oso anbigua da, geografiaren aldetik begiratuta; eta askoz anbiguoago oraindik, ekonomiaren eta politikaren aldetik begiratuta. Oso ezberdinak, eta maiz kontrakoak dira, Mendebalde horren barruan, Ipar Amerikak eta Hego Amerikak dituzten interesak; oso urrunekoak dira Amerikak eta Europak dituzten interesak; eta kontrajarriak dira Mendebaldeko estatuak eta horien barruan dauden Herri "ukatuak" dituzten interesak.

Zer da, beraz, Mendebalde hori? Zibilizazio-eremu gisa definitu ohi da azken buruan; eta Mendebaldeko "zibilizazio-balioak" eta "demokrazia" defendatzea ipintzen dira bloke militarren beraren azken helburutzat.

Ideologiazko muntaia hutsa iruditzen zaigu guri hizkera hori; areago, zibilizazio mendebaldarraren ideologiaren euskarriztat jarri ohi da munduaren bipolarismoaren teoria. Gauza bat da, ordea, mundua une honeetan bi bloketan banaturik dagoela onartzea; eta besterik, bipolarismoa ideologia eta eguneroko historiaren interpretazioaren teoria nagusi bihurtzea. Berriki argitaratua duen liburuan, aski argi egina duela uste dugu bereizkuntza hori Karlos Santamariak.

Bi bloke handien arteko politika horren aurka gaude; eta horien desegitea datozen urteetako eginkizun historikoa dela uste dugu. Baina horretarako, horien azpiko bipolarismoaren ideologia suntsitu behar dela uste dugu.

Mendebaldar zibilizazioak, berriz, ezin ditu Euskal Herria eta hori bezalako beste Herriak berotu, estatalismo zentralistaren izenean horiek ukatu eta zapaldu egin bait ditu zibilizazio horrexek. Mendebaldar zibilizazioaren izenean NATOren aldeko botua eta borroka eskatzean, AEBen eta Europako estatuaren interesak defendatzea eskatzen bazaigu, Euskal Herriak eta Europako beste Herriek ez daukate beren "ezezkoa" ematea beste biderik. Erreferenduan, edota gero.

Defentsa ala askapena?

Defentsaren izenean eskatu digute NATOren aldeko baiezkua. Dagoeneko argi gelditu dela uste dugu, Euskal Herriari dagokionez, areago dela Euskal Herriaren aurkako eraso-tresna, horren aldeko babes-tresna

eta defentsa baino. Armadak eta armaden arteko paktuak bakoitzaren subiranotasuna defendatzeko baldin badaude, estaturik gabeko Herri zapalduentzat autodeterminazio-eskubidearen ukatzaile bihurtzen dira itun horiek. Horientzat ez du zentzurik subiranotasunaren defentsaz mintzatzeak, hori bereganatzeaz baizik, autodeterminazioaren bideak irekiz askapen-borrokaren bidez.

Badirudi, defentsazko gogoetak ez duela esanahi handirik askapen-borrokari murgildurik dagoen Herriarentzat, askapena bait da orain oraingoz horren defentsaren izena. Herri horien helburua ez da orain bertan defentsa nola antolatu etsai hipotetikoren baten aurrean; bere burujabetasuna lapurtua dien estatua dute etsai egiazkoa, eta horren "subiranotasun" estatalistik ateratzea da horien helburua.

Hala ere, edo horrexegatik hain zuzen, Europako Herri gutxitu edo murriztuek —eta bereziki Euskal Herriak— ez daukate inola ere ahazterik beren defentsaren arazoa. Askapen-borrokari ari diren Herriek beren defentsa ahazteko arriskua izan ohi dute sarritan, edota gerorako, askapena edo independentzia lortuko den egunerako, uztekoa. Seguruenik, defentsazko gai gutziak tabu gisako bihurtzen dira askapen-borrokari ari diren Herriarentzat, beren etsai diren estatuek defentsaren gaia monopolizatu dutelako, hain zuzen.

Gure ustez, Herriaren askapen-borrokari ari diren talde eta erakundeek alde batera utzi behar dute defentsa-gaiekiko konplexua. Askapen-prozesu osoan defentsaz gogoeta sakondu beharrean dira, eta garaipenaren ondoko Herriaren defentsa-eredu egokia lantzeko egitekoari ez diote muzin egin behar.

Erreferenduaren ondoren zer?

Erreferenduan ezezkua eman duenak ez dio noski nolabaiteko defentsa-sistemari uko egin; eta Euskal Herriaren izenean ezezkua eman duenak ez du Herri honen defendatu beharra ukatu. Egia da, erreferenduko galderak ez duela defentsa-sistema ezberdinei buruz galdetu; hala ere, NATOren aurkako ezezkoak nabarmenen ipini duena, horixe da: horren azpian dagoen defentsa-eredua bera.

Inperialismoaren eta estatalismoaren menpetik atera izan diren Herriak sarritan haiek erakutsitako eta ezarritako defentsa-sistema beretan erori dira. Mimetismoaren ondorioa, seguruenik! Aipatuak ditugu eredu horren hiru ardatz nagusiak. Askapen nazionalaren eta sozialaren aldeko borrokari diharduten Herriek daukate, hain zuzen, defentsa-eredu berri bat eskaintzeko aukera.

Hasteko, Herri txikiak direnez, ez daukate elitezko armada handiez hornitzerik, inperio eta estatu handietakoei kontra egin ahal izango die-nez. Maila horretan, ez daukate zeregin handirik. Beste aukera bat da, estatu indartsuren baten menpean eta babesean jartzea, besteren erasoetatik defendatzeko. Bide horretatik, ordea, gaurko estatuaren arteko defentsa-sistema mimetizatu eta zabaldu besterik ez da egiten; eta horren ondorioak ezagunak ditugu: armamentismoa, militarismoa eta blokeen arteko zatiketa.


Erreferenduaren ondoren, euskaldunoi, estatu espainolak edo frantsesak edota NATOk "eskaintzen" digun defentsa-sistema Euskal Herriarentzat eta beste Herrirentzat ukatzen dugunoi dagokigu gure Herriaren defentsa-ereduari buruzko gogoeta sakona egitea eta geure aukerak lantzea. Askapen-borrokako eginkizunik nagusienetako bat da hori ere.

Nekez marraztu ahal izango dugu hemen Euskal Herriarentzako estrategi politika osorik; baina aipaturiko gogoeta bideratzeko zenbait puntu seinalatzeak ez dirudi alferrikakoa. Atrebentzia ez bada, horra nagusi-erantzutatu batzu: Herri guztientzako autodeterminazio-eskubidea aitortzea eta hori burutzeko bideak irekitzea; munduko bipolarismoaren eta honek eusten dion blokeen arteko banaketaren ukapena; elitezko armaden eta horiek dakarten armamentismo eta militarismoari ezezkoa; herri-jarkiera edo erresistentziaren eratzea eta sendotzea.

Azken puntu horretan dago gakoa: horrexek ematen dio "defentsa herritarra" dei genezakeen ereduari bere arrazoia. Hori eratzeke eta sendotzeko, ordea, beharrezkoa da: a) herri-kontzientzia argitzea eta indartzea; b) herritarren bakezko "berrarmatze morala" sakontzea eta zain-tzea; c) herrien arteko elkartasuna ondo finkatzea. Erresistentzia herritarren retroguardiako lagungarri gertatu behar dute orduan milizia herritarrek.

Utopia? Herri txiki eta gutxituen askatasunak utopiaren indarra eta eragina behar-beharrezkoa duela uste dugu. Eta, dena dela, horrelako utopia ez dugu uste inolako zorakeria denik. Alderantziz, Herrien autodeterminazio, burujabetasun eta elkartasunean bakarrik oinarri daiteke estatuek sortu duten gerra-sistemaren —ez defentsa-sistemaren— aurkako aukera. Herri gutxituen liberaziotik planteatzen den defentsa-sistema, horregatik, gaurko mugimendu pazifista, ekologista, antimilitarista guztiekin lotzen da: Bide berri bat irekitzeko munduan, eta bereziki Europan, bakeak noizbait aukera bat ukan dezan.

Donostia, 1986ko martxoak 5



Joan Mari Torrealdai
Xabier Gorostiaga
Jon Sobrino
Ignacio Ellakuria

ERTAMERIKA eta NIKARAGUA

Nikaragua libre, Ertamerikan

Baretasun harrigarria. Hauteskunde politikoak. Agintea eta oposizioa. "Sandino vive!". Alfabetatzea. Komunikabideak eta zentsura. "Patria libre o morir". Eliza: bat bitan banatzen deanean. Ekonomiazko itolarria. Miskitoen genozidioa? Eta zeintzu dira kontrak? Reagan-en salakuntzak, eta interesak. Gerra zibila? Kuba-bis? Vietnam berri bat? "Nikaragua da Amerikaren kausa".

Ertamerika: ikuspegi sozio-ekonomikoa

Prozesu iraultzailearen kausa ekonomiko-sozialak. Geopolitika eta Iparralde/Hegoalde arazoa. Gizarte-klaseak eta aberastasunen banaketa. Klase-borroka ala nazio-borroka? Gizarte berriaren bideratzea: eredu sozio-ekonomikoa.

Ertamerikako Eliza

Ertamerikako Elizaren berritasuna: pobretasunaren teologia; Jesusen bidea ibiltzea; Ebanjelioaren ertamerikartzea. Ertamerikako Eliz tipoak: justiziazko borrokaren (eta biolentziaren) aurreko jarrerak; pobreen Elizarekiko jarrerak. Pobreen Eliza, geroari buruz.

Ertamerikako egoeraren ikuspegi politikoa

Krisiaren bereizgarriak: antiimperialismoa, subiranotasun nazionala autodeterminaziorako. Ertamerikaren proposamena munduari. Mugimendu iraultzaileak: balio proposatuak eta lorturiko errealitateak. Ertamerikaren batasuna. Contadora. Etorkizuna, ilun.



Nikaragua libre, Ertamerikan

Joan Mari Torrealdai

Cortázar eta Vargas Llosaren artean

Julio Cortázar-en liburua abioian irakurriz iritsi nintzen Nikaraguara. "Nicaragua tan violentamente dulce" Nikaragua berriaz kantu bat da, lilura baten agerpena. Cortázar-ek deskribatzen duen mundu berri hori ezagutzera nindoan, herri txiki eta zapalduen esperantza ordezkatzeko duen iraultza horrek nola gorputz hartu zuen Nikaraguan sei urteren buruan.

Beste idazle batek, Vargas Llosa-k, Nikaraguarako bidean, buruan zeramatzan galderak ere nere egiten nituen: Estatu marxista-leninista al da Nikaragua? Dagoeneko ba al da, edo izateko zorian dago?

Entzutera, ikustera, ikastera, ulertzera joan naiz Nikaraguara. Galdera-pilo batekin. Sinpatia handiz. Jakinmin handiagoz. Kritiko eta objektibo izateko asmoz ere bai, esan ohi den moduan.

Handik etorrira, han eta hemen nabilela, Nikaraguan egon naitzela jakitean, kuriositate handia sortzen da: "Eta? Zer moduz dago hura, gaizki ezta?", galdetzen didate. Ez dut jakiten zer erantzun, ez bait dakit zer galdetzen duten.

Ezin hobeto tratatu ninduten. Ateak erraz irekitzen dituzte. Internazionalista ongi etorria da beti. Kazetari bezala nindoan, baina ez nintzen *Le Monde*-koa. *Jakin* ez zuen nehorik ezagutzen, harritzekoa bada ere. Berdin dio: "Ez dago bitarteko txirikirik guretzat —esan zidan Luz Beatriz Arellano-k, Valdivieso Zentruko Solidaritate-Arduradunak, hainbeste lagundu ninduenak—, ongi etorriak dira gure herriarekin eta iraultzarekin solidaritatea agertu nahi duten guztiak, eta gutaz informatzera datozen guztiak. Informazio-sare handiak Inperialismoaren eskutan daude. Zurea bezalako bitartekoekin ari gara eritzi publiko mundiala aldatzen, emeki-emeki".

Ez dute deus ezkututzen. Joko garbian ari dira. Informatzeko desiratzen daude, Gobernua zein oposizioa, nor bere ikuspegia emateko, noski. Jakinaren gainean daude, barruan adina kanpoan ari dela jokatzeko Nikaraguaren etorkizuna. Baina ez dute ez informazioa eta ez informatzailea bide bakarretik gidatzen. Testigu naiz nola prestatzen dituzten entrebistak oposizio politiko eta erlijiosoarekin ere. Jokabide honetaz harriturik, ikusitakoaz mintzatu nintzaion Fernando Cardenal-i, Hezkuntza-Ministrariari. Eta honek esan zidan: "Guregana datozen guztiei gauza bera esaten diegu beti: entzun denei, guri eta gure arerio politikoei, ikus dena, eta atera zeuron ondorioak. Zergatik jokatzeko dugun hain zabal eta garbi? Komentziturik gaudelako, azken batean, gure proiektuaren aldeko eritzia izango dutela. Horren milaka frogak dugu".

Segurantzia hau leku guztietan aurkitzen da, arrazoia eta egia berekin izatearen konbikzioa. Zer da hau, fanatismoa, dogmatismoa? Ezta hurrik eman ere.

Managuan egon nintzen ia denbora osoan. Baina denek esaten zidaten Managua ez zela Nikaragua. "Nikaragua sakona" ezagutzeko, barrura joan behar nuela. Nora joan, ordea? Jalapa herrira, Iparraldera, joango nintzen gustura, horixe bait zegoen modan, "asentamiento" edo birkokalekuak zirela eta. Baina, Kosta Atlantikora joateko, baimen ofiziala behar da, gerragatik. Gainerako guztian libre dago ibiltzea. Harreman-saila egin ondoren, bidaia bat atera zitzaidan, nahikoa ustekabea, apaiz normando batekin, eta Nikaraguan ezkonduz zegoen neska aleman batekin. Hondurasko mugaraino joan ginen, egun batzutarako, furgoneta batean. Harritu ninduen zein kontrol gutxi zegoen bideetan eta herrietan. Normaltasun-itxura dago denean: soldadu eta miliziano armatu gehiago ikusten da bazterretan, hori bai. Eta muga-inguruan, bistan daude gerra-seinaleak: etxe abandonatuak, bonbaz joak, bide-

-bazerrean erretako kotxeak... Trintxeratan ere egon ginen, "compa"ekin argazkiak ateratzen, inongo kontrolik gabe. Pasa-portea inon erakutsi beharrik ez nuen izan nik.

Hasieratik bertatik, nahiz eta askotan inprobisazioz, erraz atera zitzaizkidan entrebistak. Bata bestearen ondoren, katean. Denbora- eta asti-falta zen problema. Ezin denetara iritsi: denbora-faltaren erruz galdu nuen Obando-rekin entrebista, eta astirik ezagatik eta gerragatik Tomas Borge-rekin hitzarturik nuena. Barne-Ministrari bezala Frontera joan behar izan zuen, justu Jalapara, iluntzean etxeratu gabe zegoen, eta nik hurrengo goizeko seietan abioia hartu behar nuen Salvador-a joateko. Penaz gelditu nintzen, Borge-ren hiru liburu irakurri-berriak bait nituen. Borge historikoa da, FSLNren fundatzaileetakoa, haietatik bizirik dagoen bakarra, olerkari fina, hizlari atsegina, Iraultzaren sinbolo bizia.

Denetara ezin iritsi honetan, astirik ezaz gain, garraioen egoera dago. Managua herri laberintiko eta fantasmala da: ez du zentru-rik, 100 kilometro karratu ditu, kaleek ez dute izenik, Ministraritza eta bulegoak sakabanaturik daude. Jainkoak daki non. 1972ko lur-ikarak 14.000 hildako eta herri desegin bat utzi zituen atzean. Managua berria, Somoza diktadorearen komenentziako lurretan eraiki zen, oso sakabanaturik.

Managuan ez dago oinez ibiltzerik, beroagatik eta distantzien handiagatik. Eta garraioetan? Hor dago, ba, koska. Iritsi eta hurrengo egunean, goizeko bederatzieta entrebista bat nuen INIESen. Riguero auzoan bizi nintzen ni, Uriel Molina-ren etxean. Handik entrebista-lekura nola joan galdetu nuenean, kilometro-erdira pasatzen zen kaminora joateko esan zidaten, autobus edo taxiren bat hartzera, eta parean pasatu zen mutil bati eskatu zioten laguntzeko. Gazte honek Osasun-Ministraritzako bulegoetan lan egiten zuen, herriaren beste muturrean. Kamino horretan, lauzpabost taxi gelditu zituen nere lagunak, baina alferrik: ez zihoazen nere bidean. Neri komeni zitzaidan autobusik ez zen pasa. "Hobe horrela", pentsatu nuen nereko, beldurturik, jendez gainezka bait zihoazen autobusak eta taxiak: sartzea lortzen banuen ere, non eta nola irten asmatuko ote nuen, gero? Kontua da, ezen, bi ordu pasata, han geundela artean, mugitu gabe, garraioen zain. Nere lagunak besterik erabaki zuen arte: bere lantoki aldera zihoan autobusa hartu genuen, bere bulegora eraman ninduen eta han, arduradunarekin hitz egin ondoren, Ministraritzako autoan eraman ninduten entrebista-lekura. Bederatziak bost gutxiagotan INIESen nintzen. Bihotza eta burua bete harridura nuen: ez ne-

kien zer miretsi gehiago, Managuako garraioen egoera tamalgarria edo, neri laguntzearren, lanera orduerdi baranduago iritsi zen mutiko honen jarrera hunkigarria.

Zer gertatzen da Managuan eta Nikaragua osoan garraioekin? Gutxi direla, eta zaharrak. Eta gero eta txarragoak, blokeoaren erruz, barritzeko piezarik ez dagoelako. Eskerrak bertako jandea bihotz-zabala dela, beren kotxeetan hara eta hona eramateko.

Baretasun harrigarria

Nikaraguatik igaro-berri den edozeinen konstatazioa da han bizi den normaltasun- eta baretasun-giroa. Harritzekoa. Harritzekoa, bai, gerran dagoen eta agresio basatia jasaten ari den herri batean.

Ertamerikako herri hauekin harriturik gelditzen da bat. Badute halako etsipen-aire bat, misterio-itxura bat, *non-chalance* bat, la-saitasun bat: ezin jakin berezkoa den, erlijioak erantsia den, bizi-filosofia den, axolagabekeria den...

Nikaragua oso herri irekia da, xarmanta. Tropikala, noski. Olerkariz josia omen da. Ezaguna da nikaraguarren amabilitatea. Borrokan bertan ere ispiatzen omen da izaera hori. Gorrotorik ez zaie antzematen, kurioa. Jon Sobrino-ri entzun nion nikaraguarrek andaluziarrak ematen dutela eta Salvadorkoek euskaldunak, bai izaeran eta bai borrokan.

Mugan bakarrik erakutsi behar izan nuen pasaporte. Ministritzatar sartzeko ere ez, "gomendaturik" nindoalako, seguru. Managuan polizi kontrol bat bakarrik ere ez nuen izan. Eta nik bezala beste guztiek. Milaka atzerritar biltzen da han. Era guztietakoak, infiltratuak ere bai. "Internazionalista" izatearen aureolaz koroaturik dabilta denak. Horrelako mila pasatzen da Valdivieso Zentruko Solidaritate-Arduradunaren bulegotik. Galdetu nion, ea ez ote ziren "infiltratu"en beldur. Ba omen dakite CIAk bide hori erabiltzen duela, "txori beltza"k edo Nikaraguaren gainetik astero pasatzen den abioi espioiak ezin fotografia dezakeen errealtatea jasotzeko; baina nikaraguarrek ba omen dute horrelakoak detektatzeko "seigarren zentzua".

Soldatu asko ikusten da Managuan, hara eta hona, edo etxe ofizialen zainketan. Atentzioa ematen du soldaduen jarrera ez-hieratikoko eta agresibitate gabeak, batez ere gero Salvador-en ikusi nuenarekin konparatuta. Salvadorko soldadu eta polizia erakusten duten jarrera eta keinu apropos gogor eta basatiaren ondoan, herriko mutiko batzu iruditu zitzaizkidan Nikaraguakoak. Jarrean bertan ispliatzen da Armadaren kontzepzio desberdina.

Arrisku-sentsazioerik gabe bizi izan nintzen Nikaraguan. Belur eta intseguritate-sentsazioa, egia esan, Salvador-en izan nuen, ez Nikaraguan. Anekdotak esanguratsu bat kontatu zidan Xabier Gorostiagak, INIESEko (Instituto Nicaragüense de Investigaciones Económicas y Sociales) Zuzendariak. INIESEk antolatutako ekintza ofizial batera eskolarik gabe etorri omen zen USAko enbaxadaria. Ea nola zitekeen hori, galdetu zion X. Gorostiagak, harriturik. Ertamerika osoan seguruena Nikaraguan sentitzen dela, erantzun omen zion enbaxadari amerikarrak. Eta hor daude seinaleak: Nikaraguan enbaxadari amerikarrak bizkarzaintzaile bat bakarra du, eta, bitartean, Costa Rican dagoenak sei ditu eta Salvador-en dagoenak zortzi.

Egunez zein gauzez lasai ibil daiteke Managuan, ez berdin Salvador-en. Seguritate honen prezioa kontrola dela, esaten dizute mihi gaiztoek. "Iraultzaren begi eta belarri" diren CDS edo "Comités de Defensa Sandinista" direlakoan bigilantzia eta espioitzari zor zaiola seguritate hori. Batzordeek kalez-kale kontrolatzen omen dizute gaueko mugimendua.

CDS hauek auzoz-auzo eta kalez-kale antolatutik daude, Kubako erara. Lan handia egin dute bai alfabetatzean, bai txertaketa-ekinaldietan, eta bai krimenaren eta drogaren aurka.

Hauteskunde politikoetan ere garaile

Hauteskunde politikoak ospatu eta bospasei hilabetetara iritsi nintzen Managuara. Bizi-bizirik zegoen artean erreferentzia hori, azaroko hauteskundeen garaitzapena.

Garaitzapen inportantea izan da hori Sandinismoarentzat.

"Baina zein zentzutan inportantea?", galdetzen diot José Argüello, intelektual sandinista kritikoari. "Aginte iraultzaile sandi-

nistak botuen, kutxen errefrendoa behar al du, ba, legitimatzeko? Iraultzak ez al du iraultzan bertan aurkitzen bere justifikazioa eta eskubide-iturburua?"

"Batez ere kanpora begira ziren inportanteak hauteskundeak, elekzioak ospatzea hain zuzen. Washington-ek erakutsi nahi zuen, iraultzak berez direla totalitario eta antidemokrata. Kanpaina handi bat orkestratu zuten hori frogatzeko. Aitzakia hori ere kendu egin nahi genion Inperialismoari eta, agintera iristean agindu bezala, ospatu egin genituen, hitza jan gabe eta etsaiak hitzik gabe utziz.

Barrura begira, egia da hauteskundeetan ez genuela gure legitimitazioa bilatzen. Iraultza egin duen herriak bere baitan du legitimitatea. Hauteskundeen arragoari, ordea, ez genion guk beldurrik. Bagenekien irabazle aterako ginela, eraso guztien gainetik".

Gertatu ere, halaxe gertatu zen: zazpi alderdi aurkeztu ziren botu bila, eta FSLNk gehiengoa lortu zuen (736.052 botu, %67). Bigarrena oso atzean zetorren (PCD edo Partido Conservador Demócrata 153.108 botu bereganatu zituen). Are atzerago bestek.

Hauteskundeak ospatu ziren. Irabazi egin ziren. Baina arerioak ez ziren hitzik gabe gelditu: ez omen ziren demokratikoak izan. Ez zirela demokratikoak frogatzeko, garantiarik ez zegoela erakusteko, manipulaturik zeudela salatzeke, "Coordinadora Ramiro Sacasa" erretiratu egin zen lehiaketatik kanpainen bertan.

"Amerikanoen aginduz erretiratu ziren horiek, eta ez baldintza-faltagatik —esaten dit José Argüellok—. Ez genuela hauteskunderik ospatuko, nahiz eta agindu, esanez ibili ziren lehenengo. Eta gero, ez zela garantiarik. Bistan da. Mundu zabalean Estatu totalitarioaren irudia saldu ondoren, nola onar orain hauteskunde libreen posibilitatea? Eta bada besterik ere: botutara jota, bazekiten jakin barrerari geldituko zirela".

Salakuntza salakuntzaren aurka, nola ziur jakin hauteskundeak libreki ospatzeko aski garantiarik izan zenentz. Salvadorko hauteskundeetan San Salvador-en nintzen. Salvadorko hauteskundeak ez dituzte salatu Nikaraguakoak salatzen dituztenek, nahiz eta jakin garantia hoberik ez dela han eta, okerrago dena, lurraldearen hirutik batek ez duela boturik ematen, gerrilaren kontrolpean dagoelako. Dena den, gutxienez, sandinista-zale ez den Vargas Llosak esaten duena baiezterik egongo da agian: alegia, Mexicokoetan eta Panamakoetan baino garantia gutxiago ez dela izan Nikaraguakoetan.

Amaitzeko, hauteskundeak direla eta, bada arazo "teoriko" edo "intelektual" bat, biziki interesgarria: Nola ezkon daitezke Iraultza demokrazia formalarekin? Hauteskunde burgesen printzipioa ukatu egin bait dute sandinistek. Sandinistek uste dute, iraultzaren desarroioloan duten hegemonia hori justifikaturik dagoela liberazio-borrokan egin duten lanagatik eta jende-masak eskaini dien atxekimenduarekin. Prozezu iraultzailea atzeraezina da. Erregimen zaharrera itzultzea pentsatu ere ez. Pentsamolde honen arabera, ez ote dago kontradikziorik hauteskundeek suposatzen duten joko-arauekin, eta bereziki aginte-alternantziarekin?

Agintea eta oposizioa buruz-buru

Garaitzapen ondoko lehen Juntak Gobernu sandinistari eman dio bide. Juntan, Somozaren aurka parte hartu zuten indar sozial guztiak zeuden. Oraingo Nikaraguan FSLN da hegemonikoa eta bera bakarrik dago Gobernuan, demokrazia formalaren joko-arauetan ohi denez.

FSLN ez da alderdi klasikoa; ez da homogenoa. Joera, jatorri eta historia ezberdinak daude barruan. Desberdintasun horietan oinarriturik, behin eta berriz zabaldu dira Gobernu barruko tentsioen, aginte-borroken zurrumurruak. Lehendakaritzakoan, adibidez, T. Borge eta D. Ortega aurrez-aurre egon omen ziren. Hura gogorra omen da eta hau diplomatikoa, etab. Kontrakorik ere entzun izan dut. Sandinistek berek, horrelakorik galdetu izan diedanean, minimizatu egin didate, edota ukatu. Egon daitezkeen, eta egon dauden, joera ezberdinak ulertu ahal izateko, FSLNren barne-konposizio historikoa kontutan eduki behar dela esaten dit Luz Beatriz Arellanok. Nagusiki hiru joerek osatzen dute FSLN:

"Guerra Popular Prolongada" edo GPP estrategia defendatzen zuena da bat. Joera honetakoa zen Borge, adibidez.

Joera proletario bat ere bada barnean, minoritario izanik ere. Borroka politikoa batipat hirietan eta masa-ekintzak defendatzen zituen honek.

Eta hirugarrenak, "tercerista" izenekoak, burgesia antisomozistarekiko aliantza eta epe laburrera intsurrekzioa defendatzen zituen. Joera honetakoak ziren, besteren artean, Ortega anaiak.

Borroka-garaiko estrategia ezberdin hauek nola hezurmami-tzen ote dira orain, agintearen erabakietan?

Eta oposizioa, zer da oposizioa Nikaraguan? (Oposizio zibilaz ari gara, eta ez armatuaz).

Esan daiteke, sandinismoak duen oposizio politikoa eskuinekoa dela ia eskusiboki. FSLNren ezkerretik PCN, alderdi komu-nista eta MAP-ML daude. Indar gutxi dute: hauteskundeetan 16.000 botu batak eta 11.000 besteak atera zituzten.

Kontserbadoreek eta liberalek indar gehiago dute. Halere ahul-lak direla idatzi du V. Llosak eta horrexegatik onartzen dituela Fronteak. 29 aulki dituzte Parlamentuan, denetara 96 direlarik. Baina oposizioko alderdiak oro ez daude Parlamentuan; esan be-zala, badira hauteskundeak boikotatu zituztenak ere.

Instituzioekiko oposizioaren barne-zatiketa honek ahuldu egi-ten du kontrakarra. Instituzio iraultzaileei muzin egiteko joera hori Juntaren 1981eko krisian hasi zen, jadanik Robelo, Chamorro-ren alarguna eta beste erretiratu zirenean, FSLNren joko politikoa deslegitimatatu nahirik, honen hegemonia eta marxismoa salatuz. Gauza bera gertatu zen gero, 1984ean, hauteskundeetakoan.

Erretiraketa guztien artean, sinbolikoki bederen, agian Edén Pastorarena izan da sonatuena. Defentsako bigarren arduraduna zelarik egin zuen hanka, FSLNrekin hautsiz. “Égiatzko” sandinis-moaren aldeko borroka egiteko aldegiten zuela, zioen berak. Che Guevara bigarrena? *De facto*, “kontra” bilakatu zen. Edén Pasto-raren ihesak min egin zion Sandinismoari, ez da dudarik. Sona handikoa zen, bai barruan eta bai kanpoan. Bera zen Jauregi Na-zionala hartu zuena 1978an, sandinista-sail bat askatuz, horien artean Borge. Edén Pastoraren “saldukeriaz” ez hitz egin nahiago dute sandinistek, gaur ere: Sozialdemokrata omen zen, eta abentu-razalea, eta kitto.

Batzuren ustetan, oposizio politikoak baino izen, protagonis-mo eta, agian, indar gehiago, bi instantzia zibilek dute: *La Prensa* egunkariak eta Managuako Obando Kardinalak.

Bi hauen indarra begien bistakoa da, eta, azkenaldi honetan, oposizio agerikoan eta indarrean ari dira jokutzen, aurrez-aurre askotan. Esan, oposizio politikoak dio “De frente contra el Fren-te”, baina frontea praktikatu, beste hauek egiten dute.

“Sandino vive!”

Nonnahi, paretetan, karteletan, orri solteetan, argitarapenetan ageri da: “Sandino vive!”, eta Sandinorekin Sandinismoa.

1930 inguruan borrokatu zuen Sandinok inbaditzaile iparramerikarraren aurka. Ematen du, Sandinorekin abiatu dela Nikaraguarren historia. Badirudi, nahiago dutela aurreko historia osoa ahaztu, ezabatu ezin bada ere. Ez dute bere historia bezala hartzen. Errekuperaezina iruditzen zaie iragana: espainolen inbasioaren aurreko arrastorik apenas gelditzen den, kolonialismo espainolak ez zuen eta bertakoa gorde. Independentzia krioiolak ez zuen egoera koalitatiboki hobetu, barne-borrokak eta menperakuntza zirela medio. Lehendakari izandako abenturazale bat ere badute, Walker iparramerikarra. Eta 1912az gero Nikaragua USAren protektortua izan da praktikan. Marinek bi aldiz beretzat hartu ere egin dute Nikaragua.

Testuinguru historiko eta politiko honetantxe kokatu behar da Sandino eta bere borroka: nazio-subiranotasunaren defentsan, armak hartzen ditu, okupatzaile amerikarraren aurka, 1934ean hauek kanporatzea lortu arte. Abertzaletasuna eta antiinperialismoa batera doaz Sandinoren borrokan. Ondare hori jaso du sandinismoak. Horregatik, Sandinismoak gainditu egiten du, ez bakarrik FSLN, baizik Nikaragua ere. Ertamerika osoko borroka espresatzen du. Sandinok bizirik dirau: “Patria libre o morir”, Ertamerikako liberazio-mugimendu guztien oihua da.

Hitz magikoa da Sandinismoa. Bera ere sandinista omen da, dio oposizio politikoak. Gertatzen dena, zera omen da: Nikaraguako herriari eta historiari zor zaion figura lapurtu egin duela FSLNk. Sandino-zale bide dira denak, egiten ari diren politikaren justifikazioa eta sinboloa Sandinorengan bilatuz.

Gaurko Sandinismoa Sandino eta gehiago da. Baina ez da doktrina-gorputz homogenoa. FLSN bera ere ez da homogenoa. Eta gero, tradizio ugarietan errotzen da erregimen sandinista, propioki sandinistan, marxistan eta kristauean:

- Sandinoren ondarean, hasteko: ondare abertzalean, bereziki inbaditzaile amerikarraren aurkakóan.
- FSLNk ordezkutzen duena da bigarren korrontea. Carlos Fonsecak 1961ean eraikia da FSLN. Ezaguna da Fonseca Kubako ereduaren eta Castroren mireslea zela.
- Hirugarren influentzia, Kristautasunarena da.

Alfabetatzea: "Iraultza eta kultura, gauza bera"

Alfabetatzea da askorentzat Sandinismoaren garaitzapenik handiena. Etsairik amorratuenak ere nekez ukatzen dio Sandinismoari lorpen hau.

Alfabetatzea, gurutzada bat da Nikaraguan: "La Cruzada Nacional de Alfabetización". Guretzat, hizkera honek badu zer bait arbuia garrik. Franco eta bere gerra gogoratzen dizkigu. "Zergatik Gurutzada?" —galdetu nion lehen egunean han lanean ari den Dubois adiskide euskaldunari. Bertakoei zuzenean galdetzeraz auzartzen ez nintzena, honi galdetu nion. "Ez ezazu hori galde hementen. Hala dira hemengo gauzak" —erantzun zidan, beste esplikaziorik gabe. Orduan gehiegi ulertu ez banuen ere, gerora argitu zitzaidan dena: hizkuntza eta kontzeptu erlijiosoak bazter guztietan daude Nikaraguan.

"Una auténtica insurrección cultural" bezala definitu zidan alfabetatzea Francisco Lacayok hurrengo egun batean, eta hori gehiago gustatu zitzaidan. Lacayo hau Kultur Ministrari-ordea da, eta, diotenez, egiazko Ministraria, Ernesto Cardenal kanpora begirako pantaila bait da. Fernando Cardenal-ekin batean, Francisco Lacayo izan zen Alfabetatze-Kanpainaren buru. Luze mintzatu nintzen Lacayorekin, bai Ministraritzako bulegoan eta bai bere etxean. Inpresio oso ona egin zidan, argia eta azkarra.

Bigarren liberazio-gerra bailitza ulertu dute sandinistek alfabetatzea: "Iraultza eta Kultura, gauza bera eta berdina". Iraultzaren metodo bera aplikatu zioten alfabetatzeari: intsurrekzioa, mobilizazioa, herriari deia, etc.

Nikaraguako Alfabetatzea ezin omen da ulertu Iraultza gabe, esaten zidan Lacayok. Nola munta Alfabetatzea dirurik gabe, tresnarik gabe, materialerik gabe, maisurik gabe, metodorik eta testurik gabe? Zeren eta, abiatu zirenean, ez bait zuten deus. Alfabetatze-sistema koptatu eta esportatu nahirik alderdi teknikoez galdezka datozkionei, beti gauza bera erantzuten omen die Lacayok: "Egin lehenik iraultza".

Gerra bukatu eta 15 egunetara, hildakoen balantzea egin aurretik, "La Cruzada Nacional de Alfabetización" eratzea erabaki zuten Juntak, eta Fernando Cardenali eman zion horren enkargua.

Nondik hasi? Ez edukitzeagatik, ez zuten zentsurik ere, ez zekiten zenbat alfabetatu behar zuten ere. Hortik hasi behar, ba.

Eta hortixe hasi ziren, zentsua eginez: biztanleriaren % 52 zen alfabetatu beharra. Ez zegoen maisurik. Zer egin? Gazteriarri dei egin eta hamalau urtetik gorako 200.000 alfabetatzaile prestatu zituzten. Metodoak eta testuak idatzi ziren. Eta munduaren itzulia egin zuten, diru bila.

Unescoren eta Aita Santuaren bedeinkapen guztiekin, Solidaritate Internazionalaren laguntzan fidatuz, ekin zioten "Cruzada contra la ignorancia y la oscurana" deituari. Lau hilabete t'erditan % 52tik % 12ra ekarri zuten analfabetismoa. Hori, lehen ekinaldian; gero izan da sakontze-programarik. "Baina, zoritxarrez, ez nahi adina. Nahi genuen abiadan aurreraterik ez da izan, gerragatik, gazteria aberriaren defentsarako mobilizatu behar izan da eta. Ez dago dirurik ere, hori da bestea: aurten bi eskola bakarrik erai-kiko ditugu Nikaragua osoan. Atzo hasi zen eskolurtea: ba, leku askotan lapitzik eta paperik gabe hasi behar izan dute", komentatzen dit Fernando Cardenalek.

Managuan dagoen Alfabetatzearen Museoak merezi du ikustaldi bat. Zifrak, metodoak, hildako alfabetatzaileen argazkiak eta jantziak daude ikusgai, baina baita eskualdeetako ohiturak eta bizimoldeak ere. Etnografi museoan ematen du, Nikaragua ezagutzeko biziki interesgarria.

Alfabetatzearena baino, Museo etnografikoa dirudiela, aipatu diot Francisco Lacayori, entrebistakoan, eta honek alfabetatzearekin batean egin ziren lanak aipatzen dizkit: "Hamaseigarren mendean deskubritu omen zen Nikaragua. Baina nikaraguarrok geure herria deskubritu, alfabetatzerakoan deskubritu dugu. Milaka nikaraguarrentzat, Managuakoentzat bereziki, benetako deskubrimendua izan zen mendialdeko Nikaragua lurrez eta jendez ezagutzea. Deskubrimenduarekin batera, bilketa-lana egin genuen: eskualde guztietako minerale, arkitektur eta arkeologi altxorrak, ahozko tradizioa, folklorea, legendak, ipuinak bildu dira sistematikoki. Esaterako, hamabost mila ordu zinta grabaturik dugu ahozko tradizioa jasoz. Ameriketa osoan ez dago beste horrelako bat".

Aho-zabalik gelditzen da bat, Lacayori Alfabetatzearen antolamenduko muntai xehetasunak entzutean: alfabetatzaileen prestaketa, mantenua, higiena, materialeen lortzea eta garraiatzea, alfabetagaien prestaketa bera. Ezin sinetsizkoa da.

Benetan, iraultzaren festak sortzen duen euforian bakarrik gertatzen da egingarri horrelako ekintza munstro bat. Garai bere-tsuari, Hondurasen ere saiatu ziren gauza bera egiten. Porrot egin

zuten: alfabetatu nahi ez zuena zigortu eta preso hartzen omen zuten.

Alfabetatzeak izan du etsairik ere. Burgesiak mesfidantzaz begiratu zion Alfabetatzeari hasiera-hasieratik. Alfabetatzearen "indoctrinamiento" delakoa eta Kubaren eskuharmena salatu dira. Biak planteatzen dizkiot Fernando Cardenali, Alfabetatzearen aitari. Honek ohi duen enfasiarekin ukatzen du Alfabetatzea arma ideologiko bezala erabili izana. Eta indar berdinez baieztatzen du Iraultzarentzat hori proiektu politikoa zela. Garai hartan berak emandako erantzun bat aipatzen dit, irakurriz:

"Se trata de un proyecto político. Nuestro objetivo no es sólo de enseñar a leer, sino de poner en marcha un proceso de concientización, de politización. Todo sistema de educación produce la ideología de una clase dominante, la imagen que ella tiene de las relaciones sociales. Con el sandinismo, la educación debe ponerse al servicio de las clases marginales".

"Ezjakintasuna ere proiektu politikoa da", azpimarratzen du F. Lacayok.

"Laguntza teknikoa eskaini ziguten kubatarrek, esperientzia bait zuten alor horretan. Eskaintza baliotsua egin ziguten. 1.200 irakasle kubatar izan genituen, esan ohi dena baino askoz gutxiago; beste herri askotako irakaslerik eta laguntzailerik ere izan zen. Laguntza ugari eta era askotakoak bildu genituen. Gure alfabetatzea gazteengan oinarritu zen halabeharrez, ez irakasleengan, Kuban bezala: 200.000 alfabetatzaile izan genituen. Eta gure metodoa: "herriak herria hezitzen du".

Alfabetatzea aurrera darrai, astiro bada ere. "Irakasle herritarra"ren irudia lantzen, sakontzen eta promozionatzen dabilta orain. Baina alfabetatze klasikoan ere bai. Mendialdeko herriska batean alfabetatzaile bati domina jartzea ikusi nuen, herriko festa-eren erdian. Alfabetatzearen eresia ere abestu zuten. Oso polita: Ernesto Cardenalen hitzak eta Mejías Godoy-ren doinua.

Alfabetatzea bakarrik ez, Hezkuntza osoa bultzatu nahi izan du Gobernuak: milioi batera pasa da eskolaurretik Unibertsitate-rainoko ikaslegoa. Borondate politiko irmearen seinale, hezkuntzako presupostua, 1978an 351 milioi kordoba zena, 1984ean 2.000 milioira igo zen.

Komunikabideak eta zentsura

Prensa internazionallean Nikaraguako komunikabideez hitz egitea, zentsuraz hitz egitea da. Barruan ez da horrela. Uste baino errealitate askoz aberatsagoa aurkitu nuen. Egon, zentsura badago; baina ez da "zentsura" hitzarekin ulertu ohi duguna.

Egin nuen lehen entrebista formala, komunikabideei buruz izan zen. Eguerdian iritsi eta arratsaldean, luze eta zabal adierazi zidan Nikaraguako komunikabideen panorama Alfredo izeneko latin amerikar batek. ANN (Agencia Nueva Nicaragua) eraikitzen ari zela bakarrik dakit hari buruz.

Albiste-agentzia bakarra du Nikaraguak: ANN, 1979an, Iraultzaren zerbitzuan fundatua. Indar eskasa du, 400 bat harpidedun bakarrik. USA, Mexico eta Ertamerika lantzen dute batez ere. Korresponsaritzak bakarra dute Europa osorako, Parisen. Eskuinak zeharo baztertzeko omen du. Erremintatxo horrekin, nola borroka Ipar Amerikako agentzia munstroen aurka? Informazioa, informazioaren manipulazio amerikarra, obsesio bezala bizi dute nikaraguarrek. Izan ere, gauza bat da egiaz eta benetan Nikaraguan gertatzen ari dena eta beste bat, USAk Nikaraguz saltzen duen irudia.

"Prensa" izena bera nahasgarri gertatzen da Nikaraguan. Nere inozentzian, "prentsa" gora eta "prentsa" behera ari nintzen ni nere galderetan, nere solaskidearen begien bistako harriduraz. Mariok halako batean esan zidanez, Nikaraguan komunikabideaz hitz egin behar da, eta ez prentsaz. *La Prensa*, egunkari baten izena da eta, gainera, oposizioarena da. *La Prensa* aparte, badira beste bi egunkari: *Nuevo Diario*, sandinista kritikoa, *La Prensa-tik* jaioa; eta *Barricada*, FSLNren organo ofiziala. Hiru egunkari hauek ez dute inpresio ikaragarririk egiten egunkari gisa.

Fenomeno interesantea, egunkarietan barik, bestelako argitarapenetan aurkitu nuen nik, agian ustekabekoena bera zelako. Berrogei bat astekari, hilabetekari eta horrelako daude. Ganorazko aldizkariak iruditu zitzaizkidan batzu, hala nola: *Envío*, *Pensamiento Propio*, *Amanecer*, *Tayacán*, etc. Aldizkari hauen atzean elkarte- eta talde-mordoa dago, benetan biziak eta interesgarriak, iraultzaren koltxoi bezala. Esan zidatenez, kazetaritza-mota hau iraultza ondokoa da, ondokoa eta ondorio.

Berrogeitamar bat irriati ere bada, han-hemenka, 35 pribatu eta 15 sandinista. Hauetatik bik bakarrik dihardute hogeitalau orduz eta Nikaragua osorako, "Radio Nicaragua" eta "Radio Sandino". Nikaraguan, jeneralean Hirugarren Munduan bezala, irratia da historikoki komunikabiderik hedatuena, analfabetismoaren kausaz.

Kontrek ere irratia erabili ohi dute, beren berriak zabaltzeko eta jendea beldurtzeko. Somotillo-n, "Bloque" edo baserritarren promoziorako kooperatibako arduradun kristau sandinista batek kontatzen zidan, kontrek Hondurastik egin ohi dituzten emanaldietan nola mehatxatzen dituzten, izen eta guzti. "15 de septiembre" irratia Hondurasen funtzionatzen du, eta "Radio Impacto" k Costa Rican.

Bi telebista-katea daude, biak estatalak. Eskuinari ukatu egin zitzaion bere garaian kanal pribatu bat muntatzea. Nik ikusi ahal izan nuen, kanpoko telebistaekin hornitzen dituzte ordurik gehienak. Telebista amerikar dextente ikusteaz nere harridura agertu nion F. Lacayori, Kultur Ministrari-ordeari. Eta, egia esan, harrituago gelditu nintzen erantzunarekin:

"Ez diegu beldurrik, gure jendeak berrinterpretatzen badaki eta. Guraso batek kontatzen zidana aurrekoan: "Superman" irakurtzen ari omen zen haurra eta bapatean badiotsa aitari: Aita, Superman handia eta adoresua izango da, baina ez da egon Jalapa-n Nikaragua defendatzen. Gure gudariak Superman baino handiagoak dira.

Badakizu, gainera, gorputz gaixo batean mikrobioak berehala sartzen direla. Ez horrela gorputz sendo batean, defentsa gehiago du eta".

Nikaraguan prentsa idatzira hurbiltzea, Chamorrotarrekin topo egitea da. Pedro Joaquín Chamorro, *La Prensa*-ren Zuzendaria, Somozak hil zuen. Orain, kazetari eranaren anaiak, Jaime Chamorrok zuzentzen du, Pablo Antonio Cuadrarekin batera. Chamorro hau "Partido Conservador" delakoaren leader inportantea da. Xavier Chamorro, *La Prensa*-koaren anaia, *Nuevo Diario* sandinista kritikorearen Zuzendaria da. Eta oraintsu arte, *Barricada* edo sandinismoaren organo ofizialarena Carlos Fernando Chamorro zen, eranaren semea. Hiru Chamorro, hiru egunkari eta familia bat, hori da Nikaragua gaur.

"La pesada mano de la censura", idazten du V. Llosak. Ikusi nahi nuen, beraz. Horra, ba: Nikaraguan aurretiazko zentsura dago. Goiz-erdian aurkeztu behar dira Barne-Ministraritzan argitaragaiak. Nelba Cecilia Blandón Teniente da Komunikabideen

Zuzendaria Gobernuan. *La Prensa*-k ditu batez ere zentsurarekin tirabirak eta istiluak. 1984ean, batezbeste, lautik bat kendu omen zioten. Beste egunkari eta argitarapenekin ez da horrenbestekorik gertatzen, ezta hurrik eman ere. Gertatzen dena da, *La Prensa* eta aginte sandinista buruz-buru daudela. *La Prensa* oposizio antisandinistaren ahotsa eta agente katalitikoa da, V. Llosaren beraren hitzetan.

Tayacán aldizkariaren Zuzendariari galdetu nion zer zentsura-mota zegoen Nikaraguan. Aurretiazko zentsura hori informatiboa dela esan zidan, ez ideologikoa. Batez ere arazo militarrei eta janari-hornidurei buruzkoa. Edén Pastoraz ere ez omen dago hitz egiterik. Neu bertan nengoan, Barne-Ministraritzatik *Tayacán*-era deitu zutenean, espalikatzen ari zitzaidan bezala, hurrengo zenbakian agertu behar zuen esne-prezioa ez zela zuzena adierazteko.

Zentsuraren gorabeherak kalte handia egiten dio atzerrian aginte sandinistari. Batipat, *La Prensa*-rekiko istiluek kritika gogorak dakarziote. *La Prensa*-k berak, espreski eta deliberoz, martiriaren aureola bilatzen duela ematen du, agintea apropos ataka gaizto batean sartzea.

Lehenengo aldiz ohartzen naiz nolako aldea dagoen zentsuratik zentsurara. Jeneralean, "zentsura" esaten dugunean, inoren pentsamendua zentsuratzea ulertzen dugu. Esnearen prezioak gaizki ematea edo, ez zaigu iruditzen, pentsamendu-askatasunarena baizik. Baina biharko egunaren kezka eta larriz bizi den gizar-tean, edozein doktrinak edo tesik adina pisa lezake notizia alarmista batek, nahiz okerra izan, esnea gora doala, ogirik ez dela izango. Nikaraguan, ordea, gerran daude, ez da ahaztu behar. Eta honelako albisteak dira lehen gradukoak.

"Zer da zentsuratzen dena?", galdetzen dio bere buruari Borgek, eta erantzuten: "Edozein Estatuk zentsuratzen duena gerra-egoera bati buru egin behar dionean, Estatu Iparramerikarrak Bigarren Mundu-Gerran egin zuen bezala".

"Patria libre o morir"

Slogan bat baino gehiago da: Makina bat heriotza eta sakrifizio bada Sandinoren hitz horien atzetik.

Iraultza Nikaraguan ez da haur-jokoa, ez lehen eta ez orain: 50.000 hil ziren Iraultza egiten eta dagoeneko 12.000 badira Iraultzari eusten hil direnak. Erants horri kostu ekonomikoak, politikoak eta sozialak.

Lanak ematen ditu Iraultzaren defentsak. "Prioritate nazionala" da, 1983ko otsailaz geroztik. Nikaraguaren defentsa, aurretik, tropa mugazainen eta EPSk gidaturiko borondatezko milizianoen batailoien ardurapean eta kargu zegoen. Gaur egun, herri-mobilizazio masiboen gain eratzen da defentsa-sistema, horren kostu guztiarekin.

Xabier Gorostiagari elkarrizketa egiten ari nintzaiola, Fernando Cardenal, Hezkuntz Ministraria iritsi zen, neka-neka eginda. Ministraritzako lana amaitu ondoren, Unibertsitatera joan behar izan zuen, ikasturtearen irekiera-hitzaldia egitera.

"Eta badakizue zer esan diegan unibertsitariei? Nikaraguar baten lehen eginkizuna gaur defentsa dela! Frontera joateko prest egon behar dutela, mobilizatorako gertu. Ikasketak, kultura, behar-beharrezkoak direla, noski, baina Aberria hondatzen badigute, adio ikasketak, gureak egin duela.

Ikusten duzue zein kurtso-irekiera ortodoxoa. Hezkuntz Ministerio ere Frontera dei egiten!"

Etengabeko mobilizazio hauek problema askoren, gero eta gehiagoren, iturburu bilakatzen ari dira. 1984az geroztik tirabirak ugalduz doaz: erreklutamendu-metodoengatik protestaka ari dira gazte batzu, mutilen amek gero eta erresistentzia handiagoa egiten dute, prozesu iraultzailearen inguruko sektore batzu ere zerbitzu zibilak proposatzen hasi dira, alternatiba bezala. Eta horri guztio-ri aurre egiteko, esfortzu ideologiko ikaragarria egin beharrean dago Fronte sandinista.

Uriel Molina-renean, Managuan bizi nintzen etxean, bazen mutiko bat, bi urteko soldadutza Frontean egin-berria. Ni iritsi aurretik, justu hilabete lehenago, anaia hil zioten Frontean, eta anaia galduaren gomutan bizi zen. Gau batez triste etxeratu zen: lantokiko Asanbladan, Frontera joateko eskatu zioten; "anaiaren lekua hartzera", esan zioten. Jota zegoen gizarajoa: seme zaharrena galdu ondoren, amak ez zuen horrelakorik entzun nahi, berak beldurra hezurretaraino sartua zuen, bai bait zekien gerra zer den; baina, bestalde, bere "compa" haiek zer pentsatuko zuten zegoen. "Eta, gainera, bizi egin nahi dut, gozatu", esan zidan ahopetik.

Ongi baino hobeto ulertu nuen orduan zenbat drama pertsonal, txiki eta handi, dagoen gerra baten barruan, ideala eta ideologia edozein delarik ere.

Mutiko horrek berak esplikatu zidan, bera bezalako mutiko asko nola ezkutatu egiten den, edo ihesari ematen dion, soldadutzara edo Frontera ez joatearren. "Colorado" gelditzen omen dira horiek. Bizitza sozialetik kanpo. Gehienek muga pasatzen omen dute. Esan zidatenez, hiru bat mila edo ba omen da situazio horretan. Asko da. Eta askotan, muga gurutzatzea lortzen dutenean, oso kondizio txarretan, kontrak harrapatu, eta berekin borrokatzera behartzen omen ditu. Somotillo aldera, Hondurasen muga aldera, furgonetan gindoazela, konturatu nintzen, bai, kontroletan, aurrean gindoazen hiru atzerritarroi ez zigutela pasaporterik eskatzen, baina bidean hartu eta atzealdean generamatzan gazteei txartela eskatzen zietela. Txoferrak esplikatu zidan, "desertore" eta "iheslari"en begira egiten zuten.

Eliza: bat bitan banatzen denean

"Elizarekin topo egin dugu", esan genezake hemen ere.

Azterketa aitzin, gogoratu egin behar da, soziologikoki, herri oso erlijiosoa dela Nikaragua, zenbaiten ustez denetan erlijiosoena Latin Amerikan. Marxista ortodoxo euskaldun baten kasua kontatu didate, hara joan eta guruzbidea egin beharrean aurkitu zena. Hori da Nikaragua. Iraultza eta erlijioa plater berean zerbitzen dizkizute. Hizkuntza erlijiosoa, irudi erlijiosoak nonnahi, europar batentzat modu exageratuan. Gurean, aukera pertsonala da erlijioa. Han, arrainak, bizitzeko, behar duen ura.

Erlijositatea, herri mailan, oso tradizionala da, zertan esanik ez, irudi-zalea, prozesio-zalea. Frankismoaren garaiko Andaluzia tropikal bat, nolabait esan.

Bestalde, oinarriko komunitateak indartsu dira, Askapen-Teologiaren ildotik. Iraultza-prozesuan oso-osoki parte hartu dute, Eliz hierarkiaren bedekapenik gabe, inoiz aurka, beti tentsio dialektikoan, baina etenik gabe. Bi militantziek, Kristautasunean eta Sandinismoan, bat egiten dute gazte eta ez hain gazte askoren bizitzatan.

Oinarrizko datu hauek aintzat hartu gabe, nekez uler daiteke Nikaraguan egosten ari dena. hein handi batean.

Eliza, alderdi politiko?

Lauzpabost urtez Nikaraguan lanean ari den amerikar batek, bere kotxean, Masaya-ra eraman ninduen, egunpasa egitera. Masaya ez dago Managuatik urruti. Herri handia da, eta batez ere ezaguna Somozaren aurkako gerraren deskribapen guztietan masayarren ausardia eta borroka-indarra goraki aipatzen bait dira. Hantxe hil zen Ortegatarren hirugarren anaia, Monimbo auzoko indioen matxinada laguntzera joanda.

Eguerdian, jabetxe batera sartu, eta sarreran, aurrez-aurre, Aita Santuaren poster handi batek egin zigun ongietorria.

“Ba al dakizu zer adierazten duen honek?”, galdetu zidan mali-zi puntarekin lagunak.

“Bai, noski: antisandinista direla”, erantzun nion nik, ordura-ko ikasia bait nuen lekzioa.

Aita Santua *versus* Sandino, horrelaxe da askorentzat, 1983ko martxoan Joan Paulo II.a Managuan izan ondoren.

Eliz Hierarkiaren parte bat, Obando kardinala buru dela, aurrez-aurre jarri zaio Gobernu sandinistari. Kanpotik begiratuta, ematen du, parean dauden instituzioak direla bi-biak, Eliza eta Estatua. Ez da beti berdin izan. Liberazio-guduan, Somozaren aurka, FSLN eta gainerako indar sozialekin batean, eragin handia izan zuen Elizak, Obandok berak konkretuki. Gerora, sandinismoa indartu ahala, Eliza instituzionala gero eta kritikoago bilakatu da, eta urrunduz joan da. Urrunduz eta barrualdera indartuz. Aurreko erregimenarekin konprometaturiko zenbait gizarte-sektorek asko lagundu omen du horretan, hauek “asilo político” bat bilatzen bait zuten beren lurrian. Gizarte-maila batzu, merkatari, abeltzain, etc., oso deboto eta, han esan ohi den bezala, “misero”, meza-zale, bihurtu dira azkenaldian.

Babesaz gain, zenbait indar politikok, berak eskas duen indarra eta legitimitate historikoa bilatzen du Elizaren baitan, esaten dit José Argüellok, Alemanian ikasitako teologo laiko ezagunak, *Amanecer* aldizkariaren Zuzendariak. Elizak prestigioa du. Tes-

tinguru horretan, Eliza instituzionalak oposizioko alderdi nagusi bezala funtzionatzen du, oposizio politikoa aglutinatuz.

Ertamerikako Polonia?

Zenbaiten ustetan, Eliza instituzionaleko eta oposizio zibileko zenbait sektorek horixe bilatzen du, Nikaragua Polonia bailitza aurkeztea. Alegia, aginte totalitarioa, marxista-leninista, ateo, alde batetik; eta, bestetik, Eliza. Tartean, pertsegizio erlijiosoak. Humberto Belli, Vatikanon "Ez-sinestunen Kongregazio"ko aholkulari eta Managuan Obando kardinalaren aholkulari laikoa, eta oposizio politikoa dira tesi honen defendatzaileak. Baina Apezpikuek ez dute erabili nahi izan tesi hau beren idazki ofizialetan.

Behin eta berriz ageri da pertsegizio erlijiosoaren gaia: apaiz eta erlijioso espulsatuak lekuko, dozenaren bat. Inoiz edo behin Gobernu Sandinistak huts egin izatea aitortzen du José Argüellok, eta kritikatu ere bai, baina batez ere puntualizatu egiten du: "Ikusi egin behar da konkretuan nola jokatu duten apaiz horietako batzuk, oposizio armatuarekin bat eginik. Eta, gainera, Obandori gogoratu behar zaio, Gobernuak kanporatuak baino gehiago direla berak apaiz-lana egitea debekaturikoak. Pertsegizio erlijiosorik ez dago Nikaraguan, ezta antzekorik ere".

Ikusi behintzat, pertsegizio erlijiosorik ez da ikusten. Lanaren antolaketan autonomia osoa du Elizak. Dagoena da, borroka politiko oso bizia, eta borroka hori erlijioaren eremura zabaltzen da. Elizaren eta Estatuaren arteko kontradikzioak ez dira erlijio mailan mamitzen, politikaren alorrean baizik.

Eskema poloniarra Nikaraguara egokitzeko, Carlos Huembes, CTN sindikatuko gidaria, Walesa nikaraguar bihurtu nahia ere izan zuten. Baina saioak porrot egin zuen. Eta orain, leafergoa Obando kardinalak darama, Managuako Artzapezpikutegitik.

"Eskerrak Jainkoari eta Iraultzari"

"Iraultzak, berekin duen exigentziarekin eta eskatzen duen entregarekin, kristau fedea eta bokazio erlijiosoak argitu eta garbitu egin dizkit. Kristau fedearen eta gure borroka politikoaren artean ez dago kontraesanik, baizik eta kontrara".

Fernando Cardenal da honela hitz egiten didana, Vigil Etxebizitzako Ministrariaren etxean. Bat datoz senar-emazteak, kristau eta sandinista militante bi-biak

Kontradikzioa barik, kointzidentzia ikusten du kristau askok fedearen eta prozesuaren artean. Eta horrexegatik hartu du parte liberazio-gerran eta orain agente-instituzioetan. Kristau (apaiz, erlijioso eta laiko) asko dago agente-postuetan, maila ezberdinetan.

T. Borgek idatzi du: "Hemos afirmado y lo repetimos ahora, que el pueblo nicaragüense es revolucionario y cristiano. Son muchísimos los cristianos que participan con los militantes del Frente Sandinista de Liberación Nacional".

Datu berria, hau da: kristau eta iraultzaile dela batera herriaren multzo handi bat. Halere, kristauen partehartze hau, mugimendu antolatua baino areago, hautapen pertsonal baten emaitza da. Oinarriko komunitateek zerikusi handia dute aukera horretan, zalantzarik gabe. Horiexek izan dira kristau iraultzaileen mintegiak. 1970 hamarkadaren erdi-aldera agertu omen ziren Nikaraguan, Brasilen baino hamar urte eta piko beluago. Azkar hazi ziren, hori bai, Managuan bezala beste zenbait tokitan.

Oinarriko komunitateen mugimendu azkar honetan, Managuako Riguero auzoa izan omen da puntakoa, Uriel Molinaren eraginez, "la figura más sobresaliente de la «Iglesia del Pueblo»", V. Llosaren hitzetan. Uriel-en etxean bizi nintzen eta, pare bat bilera egin nuen komunitate hauekin. Zahar eta gazte, denak ziren sandinista. Jende gaztea eta eragileena kanpoan omen zen, batzu Frontean eta beste batzu uzta biltzen. Komentatu zidaten zein zaila gertatzen den mementu honetan instituzioak eta egiturak bizirik mantentzea, jendearen etengabeko mobilizazioaren erruz. Ni neu harrituta gelditu nintzen, ikusiz, zein sinpleki eta zein sakonki aldi berean irakurtzen zuten Biblia eta zein erraz lerratzen ziren bertako egoerara. Zirikatu nituen bizi zuten praxi iraultzailearen eta fedearen arteko kontraesanei buruz. Eta denen ahotik erantzun bera jasotzen nuen: "Non dago kontraesana Ebanjelioaren eta pobreen eskubideen aldeko, justiziaren eta askatasunaren aldeko borrokaren artean?"

Kristautasunaren eta Iraultzaren arteko "sinbiosi" edo "sintesi" edo dena delako horrek kezkatzen ditu asko. Horrek, eta horren ondorioak ez gutxiago. Esan nahi bait da, ondorio politiko handiak ekar ditzakeela bateragintza horrek. Fernando Cardenalek sarri aipatzen ditu Che Guevararen hitz hauek: "Kristauek

iraultzan esku har dezaten egunean, orduan ezinezkoa izango da Latin Amerikan iraultza geratzea”.

Bi Eliza Nikaraguan? Nork defendatu nahi du tesi hau? Kristau iraultzaileek ez behinik behin. Aita Santuaren hitzek min handia egin zieten kristau sandinistei. Eliza instituzionalari Herri-Eliza kontrajarri zion Aita Santuak Managuako hitzaldi famatu hartan, aditzera eman ez, bata ona, benetakoa zela, eta bestea marxista, sasi-kristaua, sandinismoari saldua. Nikaraguako kristau iraultzaileek, aldiz, ez dute etenik nahi. Leialtasuna aldarrikatzen dute, leialtasun bikoitza: Elizari eta Iraultzari.

Ekonomiazko itolarria

Eskasia larriagotzen

ESKU-HUTSIK ez doa inor Nikaraguara. Aurretik egondakoren batek beti aholkatzen dizu zerbait eramateko, edozer gauza, dena behar dutela eta. Botika-piloa eramanez, eta, egunak pasa ahala, ez nekien zeini eskain. Lotsagarri ikusten nuen neure burua, neure huskeria horrekin, hainbeste premiaren artean. Basamortua ur-poto batekin ureztatzen ikusten nuen neure burua. Betiko pobrezia USAk inposaturiko blokeoa eta gerraren odolustea erants, eta atera kontuak.

Blokeoa, gainera, ez da atzo goizekoa. Luze doa. USAren kalkuluetan hauxe bide da Nikaragua menperatzeko kostu politiko gutxiarik dakarkion bide segurua. Inbasioak kontrakar eta errefus handia sortuko lioke munduan. Blokeoarena, bide luzea da; baina, azken buruan, herri txiki pobrezia batentzat jasanezina, fisikoki jasanezina eta, ondorioz, politikoki. Arrainari ura kentzea bezala.

Hori nahikoa ez bailitza, kontren eraso dago. Astunak dira kontrek uzta eta ondasunetan egiten dituzten kalteak eta hondamenak. Eta, okerrago, erregimena gerra-ekonomiara behartzen du, presupostuaren % 40 eta gehiago gerrara dedikatuz. Defentsa da prioritate nazionala: produkturik onenak eta lehenak Frontera doaz, Aberriaren defentsara.

Gaur egun ez da beti posible Nikaraguan nahi den janaria nahi den egunean aurkitzea. Pozik zegoen Pina, Etxebizitzako Ministriaren emaztea, bere etxera gonbidatu nindueanean, merkatuan

okela aurkitu zuela eta. Nahiz okela, nahiz arrautzak, nahiz esnea ez dago beti merkatuan salgai. Oinarrizko produktu-mordo bat rasionamendu-sistemaz banatzen da: komuneko paperetik gasolinaraino.

Eskasia hori batez ere Managuan omen da problema sozial. Jendea ez dago ohitua erosteko errenkan egotera. Mendialdean, aldiz, hobetu egin omen da egoera: zer janik ere ez zuenak orain badu, dagoen gutxia hobeto banatzen delako. Oinarrizko kontsumoko zortzi produkturen banakuntz kontrola garantizatzea erabakia du Estatuak: artoa, frijola, sorgoa, arroza, olioia, gatza, azukrea eta xaboia.

Nikaraguan urtetan lanean ari den Dubois bilbotarraren ko-txeak faro bat hautsia zuen eta atzeko partea kolpatua. Hiru hila-bete bazeraman horrela, eta konpontzeko esperantza handirik gabe, piezak inportatu egin behar bait dira. Zorioneko blokeoa eta dibisa-falta! Berritu-ezin hau nabarmena da, nonnahi ageri da: etxetan, jantzitan, kaminotan, garraiotan... Zahar- eta pobre-eitea ematen dio hiriarri. Publikapenek problemak dituzte papera lortzeko. Kotxeak ezin dira konpondu errepostu-faltaz. Kaminoetako zuloak gero eta handiagoak dira. Botilak erditik moztuz moldatzen dituzte edontziak. Botikak urri eta eskas dira ospitaleetan.

“Noiz arte iraun dezake egoera honek, lehertu gabe?”, galde-tzen diot Xabier Gorostiaga ekonomistari. Arazoa politikoa omen da funtsean. Noiz arte iraungo duen USAren eraso honek, zer forma hartuko duen etorkizunean. Iraupenean bide datza Nikaraguan garaitzapena, Gobernuaren ustetan. Ezinezkoa omen da ekonomiazko lege klasiko eta ortodoxoen arabera esplikatzea Nikaraguak oraintxe bertan nola irauten duen zutik: 77-79ko gerrak utzitako ekonomia hondatuarekin, inflazioarekin, blokeoarekin, kanpo-zorrarekin, esportazio ezteusarekin... Egunero mirakulu asko gertatzen omen da Nikaraguan, esaten zidan X. Gorostiagak.

Merkatu beltza

Nola geldi merkatu beltzera joan gabe? “Mercado Oriental” du izena, Managuako ekialdean dagoelako; baina, egia esan, eman ere, Ekialdeko merkatu horietakoa ematen du, kolore eta guzti.

Hemen ez dago errenkan egon beharrik erosteko, baina bai faltrikera bero izan beharra. Gobernuak ezarritako prezioetan sal-

tzen dituzten dendetako apalak erdi-hutsik dauden bitartean, hemen ugari da ia denetik. Prezio oso altutan, hori bai, zazpi edo hamar aldiz garestiago batere problemarik gabe. Eskandalizaturik mintzatu zitzaidan laguntzailea, botikekin ere espekulatu egiten dutela salatuz: farmazietan ezin aurki daitezkeen botikak hantxe zeuden, aurreko dendako apaletan.

Pobreziaren miseriak! Langilearen egiazko soldata babestearren, Gobernuaren aginduz, artikuluek prezio merke finkoa dute; baina espekulazioak, kontrabandoak, sare paraleloa sortu du, aberatsaren mesedetan. Batek baino gehiagok uste du, sozialismoa erdizka bakarrik ezartzeagatik dela hori, eta ez zegokeela horrelakorik ekonomia nazionaldu balitz.

Ondo beltza da dolarraren merkatua ere. Estimazio handia du dolarrak Nikaraguan: amerikarrak txarrak dira, baina dolarrak onak, zioen hark. Dolarraren aldaketa ofizialak berak bi prezio ditu Nikaraguan: aireportuan dolar baten truke 27.kordoba dituzu, eta hirian 50. Ez nuen sekula ulertu alde hau. Baina alde hori ezteusa da, merkatu beltzeko prezioak ezagaturik. Ni han nengoe-la, 600 kordobatan erosten zizuten dolarra. Kontrari laguntzea bezala ikusia dago merkatu beltzean dirua aldatzea. Baina prezio ofiziala baino gehiago ordaintzeko edozein sandinista ere pronto dago.

Sozialismo originala

Ekonomian ere sozialismo originala sortu eta lortu nahiko lukete sandinistek: merkatu-ekonomia gorde, baina sektore publiko zabala bihurtu ekonomia osoaren gidari eta motor. "Ekonomia misto" deritzana.

Xabier Gorostiaga omen da ekonomia mistoaren aita, baina bere ahotik ez dut jakin. Entrebista luzea egin nion aldizkarirako, zenbaki honetan bertan argitaratzeko. Han esplikatzen du luze eta zabal zertan datzan ekonomia hori, horretarako arrazoiak eta etorkizunean landu beharko diren gai eta bide berriak.

Esan bezala, bide sandinistatzat joa den proiektu iraultzaileak bi eratako ekonomia eraiki nahi du, merkatukoa eta sozializatua, baina hegemonia estatal eta sozialarekin. Banka eta Aseguro-Konpainiak nazionaldu egin ditu. Somozatarrek abandonaturiko lur eta ondasunak konfiskatu egin zituen. Zein filosofiarekin?

Konfiskazio horiek direla eta, lur-erreforma dela eta, Robelok, oposizio politikoko leaderrak eta gero borroka armatura pasa zenak, sandinismoak jabego pribatua desegin nahi zuela salatu zuen eta Junta bertan behera utzi. UNAG baserriarren sindikatuko idazkariak eman zidan esplikazioak beste zerbait azpimarratzen zuen: Somozatarren lurak Estatuak hartzea ez da jabego pribatuaren aurkako ekintza, jadanik beren burua saldua zuten lurak bereganatzea eta errekuiperatzea baizik. Nola hori? Ondasun horiek Bankuarekin zorpeturik eta hipotekaturik zeuden, beren balioa bost aldiz inoiz. Banka nazionaltzean, zorren ordainez lur horiek errekuiperatu egiten ditu Estatuak; hori da dena.

Lur-erreforman, malgutasuna izan da printzipioetako bat. Formula desberdinak eta, askoren ustetan, ideologikoki kontrajarriak onartu ditu Estatuak, hala nola, sektore estatala (lur landuen % 20), sektore kooperatiboa (lur landuen % 40-50), eta jabego pribatuko sektorea (% 30-40).

Enpresa-gizon guztiak ez ziren Miamira joan, Kuban bezala. Batzu Nikaraguan bertan gelditu ziren, eta ez beti oposizioan. Oposiziokoak COSEPen biltzen dira: "Consejo Superior de la Empresa Privada". Kritiko dira Gobernuaren politikarekin. Fikzioa omen da sektore pribatua Nikaraguan.

Salakuntza eta istiluon gainetik edo azpitik, garrantzi handiko aldaketa bat gertatu da Nikaragua berrian, eta da, burgesiak aginte finantzario eta politikoa, biak, galdu dituela Bankaren nazionaltzearekin eta aginte sandinistaren nagusigoarekin.

Miskitoen genozidioa?

"Faltsua da Kosta Atlantikoko arazo etniko-nazionala aginte sandinistarekin hasten dela dioen tesia. Kostako arazo etniko-nazionala seriotan hartu duten lehenak, geu izan gara. Sinesterazi nahi den baino sakontasun historiko handiagoa dago arazo honetan. Aspalidanik dator problema".

Mintzo dena Manuel Ortega da, antropologoa, Kosta Atlantikoko arazoak aztertzeko eta bideratzeko Gobernu-Batzordekoa. Batzorde Nazional hau bost espezialistak osatzen dute, Luis Carrión komandantearen menpe.

Lau ordu egon nintzen honekin. Beste antropologo batekin ere luze mintzatu nintzen, Amílcar, miskitoen arazoa ikertzen duena berau ere. Gauza bera azpimarratu zidaten biek: arazo hau, oraingoa barik, aspaldikoa dela, eta, tertzioz ulertzeko, historiara jo behar dela lehenik, arazo honek erro luzeak, sakonak eta bihuriak dituelako.

Historia

Historia horretan lehen datu inportantea, hauxe da: Pazifikoa espainolek konkistatzen eta dominatzen dute, eta ingelesek Atlantikoa, bakoitzak bere dominazio-eredua inposatuz. Gerora ere bi historia desberdin biziko dute bi herrialde hauek, bien arteko isolamendua delarik berezitasunik nabarmenena. 1893an, Zelaya lehendakaria da Estatu Zentralaren aldetik Kostarekiko proiektu koherentea duen lehena, baina proiektu diskriminatzaile eta zantpatzailea: Pazifikoarekin lotzen du Atlantikoa, departamentu horri bere izena emanez.

Geroko historian, bi datu gehiago nabarmendu behar dira. Bata, Konpainia amerikarrak sartzen direla han, meatzeak, bananak, etc., esplotatzera, "economía de enclave" deitzen dena ezarriz, eta, ondorioz, gainerako Nikaraguarekin harremanik sortu gabe. Bigarren faktore inportantea, inportanteena agian, Eliza moraviarren influentzia da. 1849 aldera sartzen dira artzain moraviarrak, hasieran Alemaniatik, baina gero Ipar Amerikatik. Eliza protestante hauen garrantzia ikaragarria da alde guztietatik: ideologikoki, bizio-ohituretan, aginte-eraketan, hizkuntza miskitoaren finkatzean. Osasun- eta hezkuntz zerbitzuak ere berek eskaintzen dituzte. Prozesu honen buruan, Eliza moraviarra Estatu txiki bat bilakatzeko da Kosta Atlantikoan, zerbitzu guztiekin.

Jatorriz, ohituraz, kulturaz, hizkuntzaz, erlijioz, ekonomi sistemaz izan dira desberdinak Atlantikoa eta Pazifikoa. Eta arazoa are gehiago zailtzeko, elkarrekiko komunikaziorik gabe. Miskitoentzat, Managuakoak "espainolak" dira gaur ere.

Mosaiko etnikoa da Kosta Atlantikoa

Miskitoak 70 mila dira Zelayako Iparraldean, eta 30 mila Hondurasko lurretan. Creol edo beltzak datoz bigarren lekuan kopu-

ruz: 30 mila Zelayako Hegoaldean. Sumoak (hiru gutxiengo linguistikoko) 15 mila dira, mendialdean. Carifonoak, 1.500 bizilagun, bi herritan bizi dira. Ramak 800 bat izango omen dira eta Tana Tay uhartean bizi dira.

Ezein nikaraguarrek ez zekien orain arte aniztasun eta aberastasun honen berri, unibertsitari eta antropologoren bat salbu. Sandinistek ustekabean aurkitu dute aberastasun hau, eta problema bihurte zaie.

Sandinismoaren autokritika

1979ko Garaitzapena lortu eta gero, aginte berriak bere egiturak ezarri nahi ditu nazio berrian (Pazifikokoan zein Atlantikokoan). Badoaz Managuako mutilak, Kosta Atlantikora aginteak bidalita, "iraultzaren berri ona predikatzen". Eta ezagutzen ez duten herri batekin egiten dute topo. M. Ortega antropologoak honela irudikatzen dit sandinisten eta miskitoen elkarrizketa hori:

- "Venimos a decirlos que ya somos libres".
- "Libres de qué?"
- "Del Imperialismo!"
- "Pero si los gringos son buenos".
- "Entonces Uds. son contras, pues!"

Bi hizkera, bi sentiera, bi historia aurrez-aurre, elkar ulertu ezinda. Iraultza egin duen herri bat eta enteratu ere egin ez diren indio-etnia batzu.

Arrazoi asko direla medio, Atlantikoa ez zen intsurrekzio-mugimenduan sartu. Hori bateko. Eta besteko, hara doazen sandinistak Pazifikokoan heziak dira, mentalitate chauvinista, zentralista eta etnozentrikoan. Horrez gain, ulergaitz egiten zaie Inperialismoa nikaraguar batek ontzat ematea, 50.000 hildako kostatu zitzairen gerra egin-berriaren ondoren. Kultura eta historia deberdinetako bi jende dira. Elkarrekiko mesfidantza sortzen da, beraz, heldu-berri diren iraultzaileen eta han bertan dauden aginteen artean. Lehen konfrontazioak berehala piztuko dira: artzain moraviar baten kanporaketa, "hizkuntzen Gurutzada", Misurasata-ren jarrera etnizistak... direla tarteko.

Konfrontazioen jatorria ulertzeko, bada, kontutan eduki beharrekoak dira bai sandinisten jarrera eta bai bertakoena. Sandinistek buru zentralista eta etnozentrizistaz heldu zioten arazoari, eta problematika horren ezagutza sakonik gabe. Honetan legoke gakoa: Estatu txiki baten antzo, zerbitzuak oro eskainiz, funtzionatzen duten erakunde tradizionalak (elizek), Estatu Zentralaren etorrerarekin, arriskutan ikusten dute beren hegemonia, eta erreakzionatu egiten dute.

“Hau denau berez arazo politikoa da; baina, zoritxarrez, luza-
rora gabe, problema politiko hau militar bilakatzen da, Inperialismoaren erruz”, esaten dit M. Ortega antropologoak.

Eta soluzio militarrekin, hobetu beharrean, gaiztotu egiten da giroa: Misurasata-ko leaderrek, Fagoth eta Rivera-k, ihes egin eta armak hartzen dituzte; miskito asko Hondurasa doaz, etnia berekoen artera.

Zergatik, ordea, soluzio militarra?

Hondurasko miskitoen lurretatik hasten dira 1981ean eraso eta eraso Somozaren goardia-ohiak. Miskitoen lurraldea oihana da, eta oso erraza da gorde gabeko mugok gurutzatzea Hondurastik Nikaraguara eta atzera. Berebat, erraza gertatzen zaie miskitoen deskontentuaz eta haserreaz baliatzea, aginte sandinista atakatzeko.

Gobernu Sandinistak muga inguruan lur-hutsarte edo “no maens land” ezartzea erabakitzen du, kontren joan-etorriak eragozteko. Horretarako, gerra-operazioetarako zona bat prestatzen du inguru guztian, lurralde horietako miskitoak 200 km. Hegoaldera ekarriz. Kokaleku barrietan jartzen dituzte, “asentamiento” eztabaidatu horietan, hain zuzen. Herri berri batzu bezala sortzen dituzte honela. Coco ibaiaren ondoko herritxoetatik 4.000 bizilagun mugitu zituzten Hegoaldera, bizileku babesagoetara. Neurri hauekin, militarri beharrezkoak izan arren, politikoki miskito askoren haserrea areagotu besterik ez zen egin, zertan esanik ez.

Miskitoen arazo honetan, unerik txarrenak atzean gelditu direla ematen du. Hobetzearen ezaugarri bezala eman daitezke: Gobernuaren amnistia, Brooklin Rivera leader armatuaren negoziaketaguraria, Autonomi Estatutuaren projektua... Ni han nembilen egunetan, B. Rivera eta L. Carrión komandantea Bogotan bildurik zeuden, negoziatzen. Fagoth-en aurka, miskitoen problema Iraultzaren barruan konpon daitekeela uste du Riverak.

Gobernu sandinistaren jarrera

“Iraultzak uste du, ez dagoela kontraesanik herriaren parte batek, minoriek, historikoki ukatu izan zaizkien eskubideak izan ditzaten.

Iraultzak aitortzen du, lehenengo, Kostako problematika ez zuela sakonean ezagutzen. Bigarren, aitortzen du, Kostako errebindikapen legitimoak Iraultzaren barruan bete daitezzen ez dagoela kontradikziorik, hain zuzen zapalkuntza eta esplotazioa deuseztea baita Iraultzaren helburua. Hirugarren, Iraultzak erabakitzen du, Kosta Atlantikoko minoriek badutela eskubiderik Autodeterminazio-printzipioa autonomi eran erabiltzeko: hizkuntza, kultura, organizazio-moduak, izadiarekiko harremanak (ekonomia) ere beren kasa soluzionatzeko”.

Gobernuaren filosofiaz eta pantsamoldeaz galdetzean, M. Ortegak bapatean jaulki dizkidan hitzak dira.

Autonomi Estatutua eta Autodeterminazioa

INIES edo “Instituto Nicaragüense de Investigaciones Económicas y Sociales” en Zuzendari eskaldunak, X. Gorostiagak, esperantza handiak ditu Autonomi Estatutuan:

“Hainbeste kritikatu diguten arazo hori berori, beren aurka etorriko zaie orain, *boomerang* bailitza. Orain arteko Autonomi Estatutuak jo eta pasa egingo ditugu, eredia sortuko dugu, Autonomi Estatutu modeliko bat egingo dugu. Horrek bai izango duela eragirik inguruan, Guatemalan adibidez, hango etnia ugarien artean”.

Ez da maniobra politikoa, ez dira hitz hutsak. Ez dakit orain artekoak onduko dituen ala ez, baina martxan dagoela, bai, badaikit, aurreprojektuaren kopia bat eskutan bait dut.

Aurreprojektua ezezik, projektua bera ere nahikoa aurreratua dago, nonbait. Kostan bertan ari dira eztabaidatzen, eskualdez-eskualde, batzordez-batzorde.

Autonomia horren filosofia politikoaz interesaturik, autonomiaz eta autodeterminazioaz galdetu diot M. Ortegari:

“Arazo etnikoa, Nikaraguan, bi ikuspegitan begiratu behar da, kanpokoa eta barrukoa. Kanpora begira, kontutan eduki behar da Herri-Fronte Sandinistaren borroka osoa Inperialismoarekiko autodeterminazio-eskubideak garantizatzearen izan dela.

Barruko ikuspegiari, aldiz, beste hau kontsideratu behar da: Berdintasun-erlazioak sortzeko premia du Iraultzak eta gutxiengo nazionalen garapena eta bermaketa prozesu demokratiko zabal batean sustatzekoa.

Autodeterminazio-printzipioa ezin dugu erabili kanpora begira bakarrik, Inperialismoari buruz soilki. Iraultzaren barruan ere erabili behar dugu, gure herriko gutxiengoaren eskubideei eta errebindikapenei leku eginez. Pentsalari zahar baten printzipio zaharra asumitzen bait dugu, hots: beste nazio bat zapaltzen duen nazioa ez dela librea.

Guretzako, gutxiengoaren eskuhartzea ez da akzidentala. Baldin Somozismoarentzat printzipio baten herria zatikaturik edukitzea, antolaketa saihestea, herriaren partehartzea ebitatzea, guretzat alderantziz da.

Batasun nazionala herri barneko berezitasunen begirunearen printzipioan sakontzen duen neurrian bakarrik irau dezake zutik iraultza honek. Herria ez da homogenoa, eta hau aintzat hartu behar dugu herriari dagoen aniztasunaren barruan batasun nazionala eratzeko”.

Miskitoen batasuna eta Ertamerikako iraultza orokorra

Esana dugu, miskitoak bi Estatutan banatzen direla, Nikaraguan eta Hondurasen. Nori ez datorkio gogora euskaldunon kasua? Eta beste askorena? Euskal Herria gogoan, noizko den miskitoen batasuna Gobernuaren ustetan, galdetzen diot M. Ortegari.

“Iraultzaren oraingo eta geroko perspektiben barruan, ez dugu ikusten posibilitaterik Hondurasko miskitoen arazoa Nikaragutatik soluzionatu ahal izateko.

Miskitoen parte bat Hondurasa eta beste bat Nikaraguara banatu zuen prozesua, hazkuntz bidean dauden nazio hauen eraketa-moduan, prozesu tipiko historikoa da. Muga zuzenen muntaia hori, guk heredatu egin dugun egoera koloniala da.

Hondurasko arazo miskitoa mugitzen hasten bagara, mila aitzakia emango dugu gure Iraultzaren salakuntzarako: espansionismoa, gutxiengo nazionalen zirikatzea, etc.

Esan dezagun, errespetatu egiten ditugula aurkitu ditugun mugak. Guk espero dugu, gero, ez dakigu noiz, 3000. urtean, 2500.ean, 2000.ean edo 1990.ean, Iraultza ertamerikarra gertatuko dela, eta orduan mugen eraketa berri bat izango dela, non mugek printzipio etnikoak kontutan edukiko bait dituzte”.

Eta zeintzu dira kontrak?

“Kontra” bere jorretan zabaldu da munduan: “Kontrairaultza” eta “Kontrairaultzaile”ren laburdura.

Baina zer dira kontra hauek? “Askatasunaren aldeko gudariak”, Reagan-ek esan bezala, ala “mertzenariak”, Managuako aginteak uste bezala?

Jatorri eta organizazio desberdinak ditu kontrairaultzak.

Nikaraguako askapen-gerra amaitu eta bi urtetara hasten dira kontraren lehen erasoak.

Somozaren goardia nazional izandakoek, CIAren laguntzaz, FDN (Fuerza Democrática Nicaragüense) eratzen dute Hondurasen, eta Pazifikoa erasotzen dute Iparraldetik. Gutxienez 12.000 lagun armatu omen dira.

MISURA (Miskitoak, Sumoak eta Ramak) fundatzen du Fagoth-ek Hondurasen. 2.000 lagun omen dira, eta Atlantikoaren Iparraldean kokatzen dira.

ARDE (Acción Revolucionaria Democrática) da hirugarrena, Robelok eta E. Pastorak sortua. Talde honek ere ba omen ditu 8.000 bat lagun Hegoaldean, Costa Ricako mugan.

Denetan indartsuena eta eratuena, FDN da. Lehena izateaz gain, beronek jasotzen ditu zuzenean amarikarren laguntza ekonomikoa eta logistikoa.

Kontrako “ardi beltza” E. Pastora da, “Comandante Cero” izana, ARDEtik ere kanpora bidali-berria. Pastorak, izan ere, bere burua sandinistatzat jotzen du, oker ala zuzen, eta antisomozista porrokatua izan da, hori seguru. Amerikarren laguntza eskuratu ahal izateko ere, ez du sekula onartu FDNko somozistekin bat egitea.

Zein da kontraren gerra-planteamendua?

Kontrairaultza ez da agintea hartzeko sortu, Managuako aginte sandinista ekonomikoki eta politikoki desestabilizatzekeo baizik. “Guerra de desgaste” planteatzen du kontrak. Esan bezala, bi helburu estrategiko ditu borroka honek: bat, ekonomia nazionalaren oinarriak erosionatzea; eta bi, desestabilizazio politikoa probokatzea.

Hori lortzearen, herriak eta produkzio-zentruak atakatzan ditu kontrak, batipat kooperatibak eta *hacienda* estatalak. Hildakoez gain, kostu ekonomiko handia suposatzen dute eraso horiek.

Paraleloki, lan ideologikoa bi ildotan zuzentzen dute: "komunista" eta "ateo"tzat salatzen dituzte sandinistak, eta prozesu iraultzailearen edozein hutsegite edo ahuldade kapitalizatu egiten dute derrepente.

Nikaraguako herriren bat beren eskuetan hartzeko saio bat baino gehiago ere jo dute, FDNk batez ere, baina E. Pastorak ere bai. Justu ni han izan nintzen egunetan, Iparraldeko Jalapa herria hartu nahi izan zuten. Asmoa? Gobernu behin-behineko bat lurralde horretan muntatu eta negoziaketara behartu Gobernu, Salvador-en gertatzen denaren eskema erabiliz. Saioek ere huts egin dute orain artean, eta badirudi dagoeneko asmo horretan amore eman dutela, arrazoi politiko eta militarrek direla tarteko.

Ezaguna, agerikoa eta aldarrikatua da Reagan-ek kontrei eman ohi dien laguntza. Inork ukatzen ez duen laguntza, bestalde. Balarazioetan datoz desberdintasunak: batzuri ondo iruditzen zaie eta beste batzuri gaizki. Aitortu, denek aitortzen dute.

Esan daiteke, Reagan, kontraren aitabitxi ezezik, aita ere bada. Izan ere, Reagan-en aurretik, J. Carter-ek ez zuen berdin jokatu Nikaraguarekin. Honen garaian, 1979ko Garaitzapenetik urte t'erdira, Nikaragauari "laguntza ekonomiko" eman ala ez eztabaidatzen zen USAn, eta eman ere egin zitzaion.

Jarrera gogorra Reagan-ekin nagusitu zen. Jadanik 1981ean, abenduan, lehen 19 milioi dolarrek ematen ditu Reagan-ek, Nikaraguaren desestabilizazio-projektuaren barruan, asesore militar argentinarrei eta gero CIAri eskuhartze handia eskainiz eta Hondurasen militarizazioari hasiera emanez. Jarrera berri hau, beraz, hirutan mamitzen da: kontraren indartzea, Hondurasen finkapena, eta indar amerikarren presentzia gero eta handiagoa inguruan. Geroztik, bide beretsutik jarraitu du jokaera honek: 24 milioi dolar kontrari eman zaharra ez da Reagan; Hondurasko lurraldean 5 mila soldadu amerikar omen daude; abioientzat 3 lurreratze pista azkar egin ditu USAk Hondurasen.

Aitabitxitasunaz gain, Reagan-en aitatasuna aipatu dugu. CIA-ren laguntzaz eratu zela FDN, ezaguna da, 15 edo 20 tokitan zeuden somozistak leku batean eta organizazio batean bilduz. USA-

ren laguntza ekonomiko eta logistikorik gabe, badirudi kontrak ez lukeela luze irauterik.

“Baina kontrak ez al du barruan laguntzarik?” —galdetzen diot X. Gorostiahari, nereko pentsatuz, errazegia eta eroso delako deskalifikazio-sistema hori, kanpokoei errua ematea, alegia.

“Horixe badutela laguntzarik barnean! Baina Nikaraguako populazioaren zenbait sektorek kontrari eskaintzen dion sustapen logistikoa bigarren mailakoa da eta ez oso esanguratsua.

Lasai esan daiteke egungo indar antisandinistek ez zuketela sekula lortuko antolatzea eta finkatzea, CIAren laguntza finantzariorik eta bateratze-ahalmenik gabe.

Gaur bertan ezein talde kontrak ezin du bi hilabete iraun Nikaraguako mendietan, kanpotik hornitzen ez bada E. Pastora bera behin eta berriz erretiratu beharrean aurkitu da arrazoi horrexegatik.

Ipar Amerikaren laguntza hori eta herriaren aldetiko sustapen eskasa: hona bi arrazoi, funtsezko kontra mertzenarizat jotzeko”.

Reaganen salakuntzak, eta interesak, Nikaraguaren aurka

Zortzi tesitan laburbiltzen du Tomas Borge komandanteak Inperioak Nikaraguaz duen jarrera ideologiko-politikoak:

1. tesia: Ekialde/Mendebaldeen gudalekua da Nikaragua.
2. tesia: Nikaraguak USAren seguritate nazionala mehatxatzen du.
3. tesia: Nikaragua gerra zibilean ari da.
4. tesia: Nikaragua gaur kubatarren eta sobietarren satelitea da.
5. tesia: Nikaraguan diktadura totalitarioa dago.
6. tesia: Nikaraguak giza eskubideak zapaltzen ditu eta miski-toen aurkako zapalkuntza praktikatzen du.
7. tesia: Nikaraguan erlijio-pertsegizioa dago.
8. tesia: Nikaraguak Ertamerikako armamentua laguntzen du.

Nago, tesi hauetako batzu Reagan-ek berak ere ez dituela sinesten. *Ad hoc* muntatuak dirudite. Salakuntza hauetako batzuk ustelak ematen dute, amerikarren ahotan ere.

Egiatzko eta benetako eritziak —eta interesak!— 1982ko testu honetan ager litezke:

“Gure interesa, honetan datza: Ertamerikan Estatu demokratikoak sortzean eta sustatzean, beren arazo politikoak eta ekonomikoak kanpoko ingerentziarik gabe eramateko gauza izango direnak. Estrategia mailan Kubako ereduko Estatuak ez gehitzean dago gure interesa, hil ala bizikoa, subertsiorako plataforma izango bait lirateke, itsasbideak bitalki arriskutan jarriko bait lituzkete eta gure mugetan edo inguruan mehatxu militar zuzena bait lirateke.

Bere osoan, kolpe latza litzateke guretzat hori gertatzea: gure ekonomian desantolaketa ekarriko luke eta USAra etorkin klandestino mordo bat ekarriko liguke, ondorioz. Saiatu beharra dugu, epe laburrera, eragin sobietiko-kubarra eskualdetik eliminatzen eta, epe luzera, politikoki egonkor eta influentzia horiei eusteko gai diren Gobernuak ezartzen”.

Testu argigarri hau 1982ko apirilkoa da, USAko Segurtasuneko Nazio-Batzordearen dokumentu batetik jasoa, 1984ean titulu honekin argitara emana: “1984eko urte fiskala bitartean Ertamerikari eta Kubari dagozkienetan USAren Politika. Laburpena”.

Argi eta garbi dager hemen, zein den Ipar Amerikaren filosofia politikoa eta zeintzu interesak, benetako interesak: Monroe doktrina (“Amerika amerikarrentzat”), Segurtasun Nazionalaren doktrina (gobernu sozialistatik ez), eta etekin ekonomikoak.

Gainerako guztia, muntaia da.

Gerra zibila Nikaraguan?

“Gerra zibila Nikaraguan?”, galdetzen duenari beste galdera batez erantzuten dio T. Borgek: “Egon al daiteke gerra zibilik bandoetako bat kanpoan antolatu, gidatu, armatu eta finantzatzen denean?”.

Bi tesi antagonista daude hemen aurrez-aurre: gerra zibila *versus* agresio-gerra. Gerra dagoela, hori segurua da, baina zer gerra-mota?

Batzurentzat, herriaren parte bat aginte iraultzailearen aurka altxatu da, arma eta guzti. Beraz, bi bando daude: aginte iraultzailea, batetik, eta bestetik, kontrak. Salvador-en bezalatsu, ideologikoki justu alderantziz bada ere.

Beste batzurentzat, gerraren jatorria zein den ikusi behar da: Nikaragua erasotzen duten indarrak Hondurasko eta Costa Rica-

ko lurretatik datoz eta berauen autore intelektuala eta materiala USAko Gobernuua da. Nikaragua ez da Salvador. Han, lurraldearen hirutik bat bere eskuetan du gerrilak, eta barne-gerra bat da, Nikaraguan ez bezala.

Gerra zibilaren tesiarekin jokutzen du Eliza ofizialak, bi bandoen arteko elkarrizketa proposatzen duenean. Gerra zibilaren tesi defendatzen du Reagan-ek, eta horixe komeni zaio, kontrak laguntzeko eta Nikaragua blokeatzeko edota interbenitzeko.

Arazo giltzarrizkoa da gerraren kalifikazioa.

Ni han nengoela, Reagan-ek atzera eskatu zuen elkarrizketa Gobernu sandinistaren eta kontren artean, Eliza katolikoa bitarteko dela. Salvador-en mimetismoa berriz ere: Elizaren bitartekotzaz, Duarteren Gobernuua eta FLMN mahaiaren inguruan bildu bait ziren.

“Horrelakorik Gobernuak ezin onar dezake inola ere Nikaraguan —komentatzen dit Luz Beatriz Arellanok—. Bi arrazoigatik: Elizaren Hierarkia ez da neutrala, Obando beretarra dute, baina batez ere kontrak ez duelako legitimitaterik. Daniel Ortégak errepikatu ohi duen bezala: “Guk ez dugu txotxongiloekin hitz egingo, marionetak maneiatzen dituenarekin baizik, Reagan-ekin”. Gobernuaren jarrera, betikoa da: Elkarrizketa? Bai horixe, segi dezagun Manzanilloko elkarrizketekin”.

Manzanillo Mexicoko herri bat da, eta hantxe bildu ziren Nikaraguako eta USAko ordezkariak, aurrez-aurre eta bitartekorik gabe hitz egiteko, 1984eko ekainean. Baina 1985eko urtarrilean bertan behera utzi zituen elkarrizketok USAk, Nikaraguako kasua galdutzat joz.

Gauza bat da opisizioarekin elkarrizketa, politikoarekin nahiz Obandorekin; eta beste gauza bat, arras ezberdina, kontrarekin. Oposizioarekin noiznahi dituela solasaldiak, esan zidaten. Bestalde, ezagunak dira MISURAKo leaderretako batekin, B. Rivera-rekin, negoziaketetan sartua dagoela. Baina sekula ez kontrarekin, kontra bezala. Mota horretako elkarrizketa, Gobernuaren ahulda-de-seinaletzat jo beharko litzateke.

Gerra zibila Nikaraguan? Ez diot han egon eta ibili den inori entzun tesi horren defentsarik. Managuan baretasun osoa dago. Telebistatik du batek gerraren berri. Hondurasko mugara egin genuen ibilaldian ere, muga-ingururaino, ez zen gerraren aztarrenik, ez hondamenditan eta ez kontroletan. Muga-inguruetan kokatzen den gerra da Nikaraguakoa, kanpotik barrurakoa. Mugetatik urru-

tiago ere, barrualdera, badira “erresistentzi boltsa” deitu lurralde batzu, non kontrak erraz mugitzen bait dira herriaren laguntzaz. Baina —arazo inportantea!— kontrak ez du lortu oraino lurralde nikaraguarrik bereganatzea, behin eta berriz horrexetan saiatu arren. Lurralde-puska bat lortu izan balute, “behin-behineko gobernu” bat eraikiko zuketean, eta, gerra zibilaren planteamenduarekin, negoziaketa exigituko zioketen Managuako Gobernuari.

Nikaragua: Kuba-bis?

Projektu sandinistaren alde onak aipatzen dituzunean, beti aurkitzen duzu alboan zu baino askoz azkarrago bat, zuk baino urrunago ikusten duena, Nikaraguara joan beharrik ez duena datuak eta informazioak biltzera, ulertzen saiatu beharrik ere ez duena, zuk baino sakonago aztertu duena errealitatea, itxuratan eta hitzetan fidatu gabe. Honelako bat baino gehiagorekin egin dut topo, eta honelatsu hitz egiten dizute: “Sandinismoak ez du oraino bere benetako aurpegia erakutsi, ahulegia bait da. Pluralismo hori, malgutasun hori, eta gainerako guztia behin-behineko kontzesioak dira. Harik eta bere burua indartsu ikusi arte bakarrik iraungo dute. Kareta kendu egingo du gero. Begira Kubara: Fidelek beste horrenbeste egin zuen. Erregimen hori, itxura engainagarri guztien azpitik, marxista-leninista da, eta Nikaraguan, egon seguru, diktadura ezarriko du. Denbora testigu”.

Auskalo zer bilakatuko den Nikaragua! Faktore askoren eraginpean dagoela Nikaraguaren etorkizuna, eta igarle-dohainik ez dudala, erantzun ohi dut horrelakoetan, eta kitto. Zer esan besterik!

Geroa gerorako utziz, interesgarria —benetan orain interesa duena— zera da: antzematea, zein den Nikaraguako borrokaren jatorburua, izaera, funtsa: Ipar/Hego borroka al da, edota Ekialde/Mendebalde borroka? Alegia, Hirugarren Munduko herri batek bere azpigarapena gaintzeko egiten duen iraultza, ala marxismo-leninismoa ezartzeko borroka?

Reagan Administrazioak uste du, Ertamerikako problemak oro komunismoak fomentatzen dituela. Komentziturik dago, bultzada komunistaren puntu berria dela Nikaragua, eta Kubatik eta Nikaraguatik abiatutik, Salvador-a eta Guatemalara zabalduko duela

Soviet Batasunak bere lana. Marxismo-leninismo hori ez dadin gehiago heda, sandinismoa deuseztatzea erabaki du Reaganek.

Arras kontrako ikuspuntua du T. Borge komandanteak:

“Gosea ez da Ekialde Mendebaldeen arteko istilua. Gosea, diktadurazko erregimenen eta gure herrien arteko istilua da; herri hauek, gainera, justiziaren gose dira. «El General Hambre» da herri ertamerikarren Komandante Nagusia. Ekialde/Mendebalde istiluaren sofisma hau, bada, gezur deliberatua da, gure herrien aurkako agresioak justifikatzeko. Beste termino batzutan planteatu behar da arazoa: Gure borroka hau baieztapen nazionalaren borroka da eta borroka honen helburua azpigarapenetik, gizarte-injustiziatik eta zapalkuntzatik irtetea da”.

Nire inpresioa da, bueltakoan, ez dagoela Moskuraino joan beharrik, ezta Kubaraino ere, Ertamerikako arazo, auzi, istilu, gatazka hain ugarien kausa edo arrazoiari bila: gosea, langabezia, injustizia, opresioa dira Ertamerikako herrien errebolaren zergatiak.

Justiziaren, duintasunaren eta askatasunaren alde herriaren borroka luze hori kontutan ez edukitzea, geure buruak Ertamerikako istiluen mamia tutik ez ulertzea kondenatzea da. Herri-multzo handiari oinarrizko giza eskubideak ukatzean eta gizarte-injustizian errotzen eta mamitzen dira istilu horiek.

Besterik da, gatazka horien nazioarteko dimentsioa, arazo geopolitikoa, ez ahantz ez bazter daitekeena, noski. Eta, USAren interes, nazionalengatik eta jarrera inperialista hertsia, bigarren mailatik lehen mailara etor daitekeena, honela Nikaraguako Iraultzaren jatortasuna arras aldaraziz. Hegoaren eta Iparraren arteko borroka Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko borroka bilaka daiteke; baina, oro har, ez dirudi Nikaraguaren desioz izango litzatekeenik hori, eta bai USAren politikaren erruz.

Vietnam berri bat?

“Iaz bertan amerikarrek atzera egin zuten azken mementuan eta ez zuten Nikaraguaren inbasioa aurrera eraman, jabetu egin zirelako ez zela paseo bat izango, jakin egin zutelako nikaguar guztiok pronto geundela geure aberria eta iraultza defendatzeko. Eta ez zuten Vietnam berri batean sartu nahi izan.

Mobilizazio izugarria egin genuen: 300.000 fusil banatu genituen herrian, jendearen artean, refugio edo lurpeko babesak egin genituen etxez-etxe. Nikaraguar bakoitzak bezekien zer egin inbasiokoan.

Gauza bat da kurioa Nikaraguan: Ipar amerikarren aurka, arerio politikoak ere gurekin bat datoz, aberriaren alde”.

Fernando Cardenalen hitz hauen antzekoak, makina bat jenderi entzun nizkion Nikaraguan barrena.

“Baina benetan sinesten al duzue inbasioaren hipotesian?”, galdetu nion atzera, uda-partean Euskal Herrira etorri zenean, berriz ere inbasio-hotsak zabaldu bait ziren. “Ez al da, gero, aginte sandinistaren maniobra, herriak mobilizatua jarrai dezan eta gosea ahantz dezan?”.

“Ez dugu guk asmatu inbasioarena. Lau haizetara aldarrikatuz dabilta berak, lotsarik gabe. Hor daude Bush-en azken hitzak, esanez, erregimen sandinista desegin egin behar dela, nola edo hala, zuzenean esku hartuz bada ere. Abisu hauek seriotan hartuko ez bagenitu, ez genuke guk herria mobilizatuko, bestela ere badugu eta zertan mobilizaturik”.

Inbasioaren beldurra, benetakoa izan da Nikaraguan; bizpahiru aldiz bederen bai. Damokleren ezpata hori hortxe ikusten dute zintzilik beren buru gainean.

Egunak aurrera joan ahala, badirudi interbentzio zuzenaren hipotesia urrunduz doala, desagertu gabe, halere. Hezurmamitzen ari dena bestea da, gastatze-gerrarena, asfisia ekonomikoarena, D. Ortégak salatzen duen “guerra encubierta”, gerra isila, ezkutua. Reagan-ek internazionalki isolatu egin nahi luke Nikaragua (ekonomikoki, politikoki, diplomatikoki) eta bertatik zirikatu (kontren bidez).

Reagan-en apostua zein den? Denboraren buruan, fruta heldua bezala, berez jausiko dela aginte sandinista, zuhaitza pittin bat astinduz. Prozesu luzeagoa, baina amerikarrentzat “garbi”agoa.

Nazioarteko harreman ekonomikoak moztuz, barneko egoera ekonomikoa, soziala, politikoa gaiztotu egingo da Nikaraguan: oinarri-oinarritzko produktuak eskasten hasten dira; dendaurreko jende-sokak ugalduz doaz. Janari eta energi kontsumoa aurrezteko neurriak hartu behar ditu Gobernuak. Neurri hauek deskontentua dakarte, eta ez oposizioan bakarrik; erregimenak aginduriko promesa betegabeek frustrazioa sortzen dute; inbertsio sozialak ere burutu gabe gelditzen dira (eskolak, osasundegiak, etxebizitzak...).

Egoera, jasan ezinaren ezinaz, nonbaitetik lehertu arte, pazientzia iraultzaileak ere bere mugak bait ditu.

Ukagaitza da barne-tentsioak gogortzea, giroa gaiztotzea espero eta bilatzen duela Reagan-en politikak. Testuinguru horretan, interbentzio-mehatxuak zera dira: nikaraguarrak beldurtzeko, nekatzeko, etengabeko mobilizazioan mantentzeko mehatxu hutsak? Aurretiazko abisuak edo deiak? Nork jakin! Gauza bat eman daiteke segurutzat amerikarren politikari so: garai batean (1982) espero zen irtenbide negoziatuari Reagan-ek uko egin diola behin betiko.

Reagan-entzat kasu galdua da Nikaragua.

“Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote”

Amaitzeko, puntutxo batzu azpimarratu nahi nituzte Nikaraguan ikusi eta ikasiaz.

Sozialismoaren eredu propio bat sortzeko pretentsioa du Nikaraguak

Eredu horren adierazpen egoki bat, hauxe litzateke: Herri-demokrazia pluralismoan eta askatasunean. Sortu nahi duen gizarte-modua ez da kapitalista, ez da dependentea, ez da totalitarioa. Kuba-bis? “Anaia zaharraren” eredu hori aipatzen diezunean, ez direla alferrik pasa 25 urte harez gero gogoratzen dizute. Nikaraguak badu Kubarekin antzik, eta baita ere ezberdintasunik.

Determinatzailea gertatzen da Nikaraguako iraultzan aipaturiko hiru korronte indartsuen partaidetza eta bateratasuna: nazionalismo-antiinperialismoa, marxismoa, kristautasuna. Kubaren aldean, hau berria da. Eta obratu nahi duten eredu sozialista horren berezitasunen artean sar daiteke: pluralismo politikoa, ekonomia mistoa eta ez-lerrokadura. Iraultza-motaren ezaugarri dira, baita ere, malgutasuna, praktikotasuna, ez-doktrinario izatea, irekitasuna, dogmatismorik eza, autokritika, barne-eztabaida

Eredu hau, bere jatortasunean, oso kutsakor litzateke inguruan, aipaturiko hiru korronteok, hirurok, bait daude Ertamerikan

eta Latin Amerikan ondo txertaturik. Demokrazia herritarra pluralismo politikoan, ekonomia mistoa eta kanpo-politika ez-lerrokatua, formula berritatzat daukate berek eta askok uste dute Latin Amerikako problemaren gakoa hortxe dagokeela.

Eredu horren definizioaz duda-izpiren bat izan dut inoiz edo behin: benetan eredu berria al da ala erdizkako sozialismoa? Gurean frankismoarekiko haustura gutxiegi izan den bezala, han ere ez ote da horrelakoren bat gertatzen? Ez dakit.

Oraino finkatu gabe dago iraultza

Aginteak bai, aginteak ongi finkatua dirudi. Baina gerra dela eta, USAren blokeo ekonomikoa dela eta, aginteak ezin izan du agindu zuen politika nahi bezala praktikan jarri eta obratu. Dauden problema ugariak aintzat hartuta, kontsolidatzeke dagoelako inpresioa hartzen du batek, batez ere ekonomiaren alorrean.

Dilema-sail bat dago airean, oraindik arras soluzionatu gabe:

- dilema ekonomikoa: nola obra ekonomia hori, gehienbat pribatuaren eskuetan dagoena, kapitalaren logikatik barik, gehiengo handien logikatik bidera dadin?
- Dilema politikoa: nola promoziona alderdien partehartzea bizitza politikoan, horrenbeste kostaturiko hegemonia eta kontrola galdu gabe? Nola mantentzen pluralismo politikoa, diktaduraren aurkako borrokan sorturiko gehiengoaren itzarokizunei erantzunez?
- dilema nazionala: nola bihur Nikaragua independente eta bere buruaren jabe, USAk ontzat emana, Ipar Amerikako interesentzat barruti estrategiko eta bitalean kokatzen delarik?

Nikaraguako iraultza ez da palazio-iraultza izan

Alegia, 1979ko uztailaren 19koa Iraultza izan zen, eta ez erreforma. Lau urtetako borroka hiru helburu zituen: Somoza gainetik kentzea, Inperialismoa kanporatzea eta Iraultza egitea.

Lehen bi puntuetan denak zetozen bat: oraingo agintea eta oraingo oposizioa ere bai. Ez horrela hirugarrenean. Robelo-k, oposizioaren buru giten zuenak, aditzera eman zuenez, burgesiak

espero zuen bera geldituko zela aginte politikoarekin, FSLNk armada osatuko zuelarik. FSLNk, ordea, ez zuen egitasmo bera.

1981eko krisi politikoa, oposizio politiko ez-sandinistaren zati batek Junta utzi zueneko, Iraultza/Erreforma eskemaren bidez interpreta daiteke hobekienik. Arrazoia zeinek zuen aparte utzita orain, haustura hau munta handikoa izan zen, egun argitan etenik nahi ez zuen erregimenaren etorkizunerako. Sandinismoaren eta oposizioko korronte ezberdinetako pertsonaia ezagun batzuren arteko dibortzioa agerian gelditu zen orduan. Oposizio politikotik klandestinitatera, are kontrairaultzara, lerratzen dira batzu.

“De frente contra el Frente” da PCDren kontsigna. Oro har, badirudi oposizio politikoak, eskuinak, ez duela Gobernuaren joko-arauetan parte hartu nahi, prozesu hau ez legitimatzearren. 1984eko hauteskundeetan berriz agertu zen joera bera. Ematen du, nahiago duela boikota, erretiratzea.

Joko-arauetan dago problema, noski. Demokrazia bai, baina zein demokrazia? Demokrazia burgesa, liberala nahi luke oposizioak. Aginteak, aldiz, demokrazia herritarra.

Nikaraguaren problema USA da

Nikaraguaz ari delarik “si loin de Dieu et si près des États-Unis” idatzi zuenari ez zaio arrazoirik falta. USArekiko hurbiltasun horixe da Nikaraguaren zoritxarra. Geopolitkoa omen da arazoa.

Antza denez, negoziaketa-bideak oro itxi egin dizkio Reagan-ek Ortega-ri. Manzanillo-ko elkarrizketa zuzenak, bi nazioen artekoak, 1985eko urtarrilean bertan behera utzi zituen Reagan-ek bere kasa. Okerrago dena: negoziaketaren bidetik beste inork soluziorik bila eta aurkez dezan ere boikoteatu egiten du. Hor dago “Contadora”. “Contadora” taldeak, nazionalismo latin amerikar edo bolivarianoak, egin dituen bake-proposamenak behin eta berri zixantajeatu ditu Reagan-ek, berak zuzenean edo bere gobernu kuttunen bidez. Managuako erregimena akabatzea da soluzioa eta ez dago bestelako irtenbiderik.

Zer gertatuko da?

Reagan-en egunak kontaktzen dituenik badago Nikaraguan, betiko ez dela eta. Bitartean eutsi egin behar, ahal den moduan.

Nork jakin zer gerta daitekeen: Reagan-ek nahi bezala erregimena erori egingo ote da, fruta zori bailitza, erradikalizatu egingo ote da, eta, iraultza mantentzeagatik, Soviet Batasunari entregatuko ote zaio? Jatorrizko egitasmoa bere osoan aurrera ateratzerik izango ote du sandinismoak?

Erregimenaren gogortzearen hipotesian, sandinismoak ez luke erakutsiko gero orain arretaz ezkututzen omen duen aurpegi marxista-leninista hori, propaganda inperialistak salatu ohi duen bezala, baizik eta, nire ustetan, galdu egingo luke hastapeneko projektuen jatortasuna, eta hori Inperialismoaren erruz. Ukatzerik ez bait dago projektu berri bat egon badagoela. Eta burutzea ezinezko gertatzen bada, ikusi egin beharko da, zergatik gertatzen den ezinezko. Txekoslovakian bezalatsu. Txilen bezalatsu.

Nazioa eta askatasuna, gauza bera

Askatasuna defendatzea, iraultza defendatzea eta nazioa defendatzea nahasi egiten dira Nikaraguan. Bata besteari lotuak ageri dira hirurak, elkarri eusten.

Berehalakoan antzeman daiteke nikaraguar izateaz duten harrotasuna, barne-harrotasuna. Iraultzarekin deskubritu dute askatasuna eta nazioa. Nazio bat dute eskuartean orain, lehenengo aldiz, eta askatasun-tresna zaie bera. Iraganean amerikarren "atzeko patio" eta "errepublika bananero" izana, hori bera antiinperialismoaren aitzindari bihurtu da. Iraultza aurretik zer zen nikaraguar izatea? Hutsaren hurrengoa. Gaur, oster, ohore bat.

Harrotasun hori, sinbolo izatean ere badatza. Nikaraguarrak badaki, iraultza sandinistari esker, gaur egun sinbolo nazionalista eta antiinperialista bilakatu dela Nikaragua: munduko bi bloke hegemonikoetatik landa, alternatiba independentearen alde borrokatzen diren nazioarteko indarren Meka. Den txikia izanik, Europa ez bezala, Amerika munstro horri aurpegi ematera ausartzen dela eta, harro daude.

Ez paradisu eta ez "goulag tropikal"

Nikaraguan ez da dena on, ez da dena txar. Edozein giza obratan bezala, denetik dagoela esan beharrik ba al da?

Prozesu bat da Nikaraguako iraultza. Prozesu oso konplexua, gainera.

Egia da, arazo etniko-nazionalarekiko aski begirunerik gabe, hutsegite frango egin zuela gobernu sandinistak miskitoekin eta beste minoriekin. Baina bai aitortu eta sendabidea bilatu ere, Autonomi Estatutua martxan jarriz, Ertamerikan beste inon ez bezala.

Egia da zentsura dagoela Nikaraguan. Baina *La Prensa* bizi da, eta bizi dira makina bat irrati antisandinista. Askatasun eskasagoko diktadura internazionalki onartuagorik ezagutu dugu, ez aspaldi eta ez urruti.

Egia da armak erosten ari dela Nikaragua. Baina deklaritzen du, arma horiek denak defentsiboak direla, aldameneko herrietan kokatuz egiten dioten agresio-gerrari erantzuteko.

Egia da preso politikorik badela Nikaraguan. 2.200en bat omen dira, horietatik 2.000 goardia somozista izanak eta 200 kontrakoak. Baina, sandinismoak, agintea hartzearekin batera, heriotz-zigorra kendu egin zuen. Eta preso horietako asko ez dira presondegietan bizi, "fincas abiertas" direlakoetan baizik. Eta, bestalde, naziak libre gelditu al ziren gerraostean?

Egia da zenbait funtzionari eta ideologoren artean egon dela sinplekeria antierlijiosorik; baina erlijio-pertsegiziorik ez dago, ezta gutxiagorik ere.

Egia da rasionamendua badela eta inoiz errenkada luzerik egin behar dela dendatan; baina hori ez dagokio erregimenaren politikari, eta bai USArenari, eta, horrez gain, oinarrizko janarien banaketa segurtatua dago.

Egia da somozatarrei ondasunak konfiskatu egin zitzaizkiela; baina herriaren zerbitzu zuzenean erabili dira, eta lurrak banatu egin dira hain premiazkoa zen lur-erreformari hasiera emanez.

Egia da 1984eko hauteskundeak egiteko baldintzak ez zirela hoberenak (gera, zentsura, emergentzi legea, horniketa-zailtasunak); baina hauteskundeak ospatu egin ziren, denentzat kondizio beretan.

Luze jarrai liteke honela. Gogoratu bakarrik, Iraultzaren lorpenen artean, hor daudela Alfabetatzean, Hezkuntzan, Lur-banaketan, Osasunean egindako ahaleginak.

“Nikaragua da Amerikaren kausa”

“Nicaragua es la Causa de América” idatzi zuen Casaldáliga famatuak.

Ertamerikar eta Hegoamerikarrentzat da batez ere horrela, egoera berean edo beretsuan aurkitzen den herri asko bait dago lur horietan. Liberazio-mugimenduek oro Nikaragua dute, eredu ez bada, erreferentzi puntutzat.

Europarrentzat besterik da, sarritan eta tamalez. Europako ezker klasikoak nahiago du maiz bere garbitasun utopiko eta urrutikoan jarraitu, hangoa entzun, ikusi eta ulertu baino. Deslilurapen handien soka horretan azkena da Nikaragua, SESB, Txina, Kuba, Vietnam, Kambodia, etab.en ondoren.

Europar bertan, zenbait gutxiengorentzat, gutxiengo politiko zein nazional, esperantza handia izan da, eta da oraino Nikaragua. “Esperantzari leiho bat zabaldu omen diote...”.

J. M. T.

NICARAGUA LIBRE, EN CENTROAMERICA LE NICARAGUA LIBRE EN AMERIQUE CENTRALE

Ningún reportero puede ya llegar a Nicaragua con ojos “inocentes”. La polémica impone sus esquemas: es Nicaragua tan violentamente dulce, como la ha cantado Julio Cortázar; o, más bien, otro Estado marxista-leninista más en ciernes, sin poder manifestarse como tal, como lo juzga, por ejemplo, Vargas Llosa? El presente artículo recoge a modo de reportaje las vivencias, impresiones, conversaciones y entrevistas de un periodista vasco que visitó aquel país el año pasado.

Nicaragua no oculta información: es la primera constatación del reportero. Como primer dato obligado de sus impresiones resalta el aspecto humano: la cordial hospitalidad que le ha dispensado el pueblo “nica” a todos los niveles y en todo momento amable y generosamente. Es un país en guerra: pero se respira paz y

tranquilidad en las gentes. El representa a una revista pequeña, de un país pequeño: pero todas sus exigencias informativas son atendidas tan exquisitamente como si se tratara de un gran rotativo.

Luego, la Revolución se ve. Se palpa el resurgir de una nueva vida por doquier. El 19 de julio de 1979 las tropas sandinistas entraron en Managua victoriosas. En su proyecto, las bases de la Nueva Nicaragua: libertad y pluralismo político, economía mixta planificada, no-alineamiento internacional, unidad nacional.

Seis años después, qué resultados ofrece la Revolución para que pueda ser juzgada por sus obras? Hay algo previo a toda valoración de resultados parciales: es el orgullo de la gente por "su" revolución. Orgullo nacional, generalizado, común a los líderes y a las gentes más sencillas, tanto más desconcertante e impresionante cuanto más sencilla es la gente y más patente su manifestación. El pueblo "nica" se reconoce hoy a sí mismo con orgullo: se sabe un símbolo internacionalmente reconocido, pero ante todo se sabe un pueblo que ha sacudido siglos de opresión, dictadura y miseria. Este espíritu general es acompañado de logros incontestables: la reforma agraria, las mejoras en sanidad y vivienda, escolarización, alfabetización.

Quizás el logro más universalmente reconocido lo constituye la alfabetización. La "Cruzada Nacional de la Alfabetización" se decidió a los 15 días del triunfo sin tiempo aún de contar los muertos. Con el lema "el pueblo educa al pueblo", 200.000 jóvenes fueron movilizados para la "batalla de los lápices". Pero no se trata de una simple alfabetización de masas analfabetas: el reportero puede admirar los resultados de la ingente recogida informativa del acervo cultural del país llevada a cabo (riqueza etnográfica, artística, tradición y literatura oral, etc.). El país se estudió también a sí mismo. La cultura popular ha hallado reconocimiento.

A este respecto el reportero vasco se interesa especialmente por el problema de los indios misquitos, problema aireado con frecuencia por las agencias americanas como un caso de genocidio. El autor señala los graves errores cometidos por los funcionarios sandinistas en este campo, por precipitación y por ignorancia —errores que le son reconocidos y aceptados por los entrevistados—, y expone las causas más profundas de los mismos, planteando el problema en su contexto histórico, geográfico, social y estratégico-militar. En la actualidad se elabora un Estatuto de Autonomía que dé solución al problema del mosaico de etnias que constituye la Costa Atlántica. Problema que, es preciso no olvidarse, nunca había sido abordado hasta ahora por los Gobiernos anteriores.

Otro tema candente lo constituye el de la libertad política, religiosa, informativa. Políticamente, el proyecto sandinista propugna el pluralismo con hegemonía popular, voluntad confirmada por las elecciones del 84. El FSLN es hegemónico con el 67 % de los votos. La oposición política, dentro y fuera del Parlamento, no es muy fuerte y se halla dividida. El articulista observa que, en realidad, dos instancias no directamente políticas aglutinan la oposición más importante al régimen: son el diario "La Prensa" y el Arzobispado de Managua.

El autor constata la libertad de prensa en Nicaragua, como lo prueba la existencia misma de "La Prensa", agente catalítico de la oposición, totalmente enfrentado

al régimen sandinista. Sin embargo, por lo que ha podido constatar, sus dificultades con la censura no son del ámbito ideológico, sino del informativo, particularmente en temas referentes a la seguridad nacional y al abastecimiento. Censura propia de un país en guerra. Por lo demás el protagonismo internacional de "La Prensa" oculta la realidad: hay en Nicaragua otros dos diarios, unas 40 publicaciones periódicas no diarias y unas 50 radios, algunas de ellas sandinistas. Las dos cadenas de televisión son estatales.

El espinoso tema de la libertad religiosa se revela en el fondo como una cuestión política. La Iglesia nicaragüense está dividida. El Arzobispo de Managua, Cardinal Obando, protagoniza en su persona una buena parte de la oposición al FSLN, con temas como la persecución religiosa, el totalitarismo del régimen, la violación de los derechos humanos. Frente a él, las comunidades cristianas de base, viveros que fueron de revolucionarios sandinistas. Hoy mismo son muy numerosos los cristianos (laicos militantes, sacerdotes, religiosos) que participan en las instituciones sandinistas y en la construcción de la Revolución. La pretendida persecución religiosa no es tal, sino prolongación de la lucha política en lo religioso. Aunque las dificultades sean incuestionables, la pretensión de hacer de Nicaragua la Polonia de Centroamérica se revela como una maniobra interesada sin base en la realidad.

La reconstrucción económica constituye la tarea prioritaria en el proceso de reconstrucción nacional. La guerra había destruido las bases de la economía nacional. El proyecto sandinista opera en base a los principios de la economía mixta: coexistencia de la economía planificada y de la economía de mercado, con hegemonía estatal y social. Siguiendo los mismos principios, la reforma agraria se aplica diferenciando el sector privado, el socializado o cooperativizado y el estatal, con criterios de flexibilidad y pragmatismo. Sin embargo, este desarrollo se ve seriamente perjudicado por la situación bélica, que inevitablemente afecta también a los aspectos políticos y sociales del desarrollo nicaragüense.

En realidad es la contrarrevolución la que más está condicionando la consolidación y desarrollo del proyecto sandinista. La "contra" hace temprano su aparición, al año y medio del triunfo revolucionario. Inicialmente son grupos de antiguos guardias somocistas, organizados, armados y financiados desde EE.UU. Según el análisis del reportero, su objetivo no parece tender a una victoria militar, a una toma directa del poder, sino a la lenta erosión de las bases de la economía nacional y a la consiguiente desestabilización política, como efecto de una guerra de desgaste de alto coste económico y político para el gobierno sandinista. Ni por su origen ni por sus características actuales se trata de una guerra civil, sino de simple y llana guerra de agresión. De hecho, esta guerra, aunque limitada prácticamente a las fronteras, incide ya en la vida interior del país: obliga al Gobierno a la adopción de medidas impopulares como restricciones en el consumo (racionamiento, etc.), austeridad económica, movilizaciones de la juventud para el frente, "olvido" temporal de las promesas de mejora social (reducción de inversiones en educación, sanidad, vivienda, etc.). Hay que añadir a ello el cerco general del que Nicaragua es objeto por parte de EE.UU., ya que en el fondo la "contra" armada no es seguramente más que un capítulo, importante, de esa estrategia de cerco.

Nicaragua es toda ella como una ciudad sitiada. Sitiada y cercada por los EE.UU. Económicamente: el bloqueo económico y financiero; militarmente: la

contra; politicamente: la negativa a negociar la paz; informativamente: se vende la imagen de una dictadura, de un Estado marxista-leninista. EE.UU. busca la destrucción del proyecto sandinista por estrangulamiento, por asfixia, quizás ya no por la intervención directa.

A la vuelta de Nicaragua, la prioridad de prioridades es la información. Nicaragua está al Sur, no al Este, es la esperanza del Sur, la Causa de América. Es una revolución como la gente misma: flexible, no dogmática, dotada de una gran capacidad de autocrítica. El reportero cree haber descubierto en Nicaragua la búsqueda decidida de una sociedad "ni capitalista, ni dependiente, ni totalitaria".

Aucun reporter ne peut débarquer au Nicaragua avec des "yeux innocents": La polémique impose ici ses schèmes; ou bien le Nicaragua est "violemment doux" comme chante Julio Cortázar; ou bien c'est un état marxiste-léniniste de plus, en germe, qui n'a pas la possibilité de se manifester comme tel, d'après Vargas Llosa par exemple. Ceci est le récit des expériences, des impressions, des conversations, des entrevues d'un journaliste basque qui a visité ce pays l'an dernier.

Le Nicaragua ne refuse pas ses informations: c'est une première constatation du journaliste. Ce qui ressort de ses premières impressions c'est l'aspect humain de l'accueil: l'hospitalité cordiale que lui a offerte le peuple du Nicaragua, aimablement et généreusement, à tous les niveaux et à tout moment. Le pays est en guerre, mais on y respire paix et tranquillité parmi les gens. Le journaliste que je suis représente une petite revue d'un petit pays, mais on répond à mes demandes de renseignement comme s'il s'agissait du reporter d'un grand journal.

La Révolution se voit, se palpe, comme la naissance d'une nouvelle vie, de tous côtés. Les troupes sandinistes sont rentrées victorieuses à Managua, le 19 juillet 1979. Elles avaient en projet les bases d'un nouveau Nicaragua: liberté et pluralisme politique, économie mixte planifiée, non-alignement international et unité nationale.

Six ans après, quels sont les résultats qui permettent de juger la Révolution selon ses oeuvres? Avant toute évaluation de ces résultats partiels, il convient de noter la fierté du peuple pour "sa révolution": fierté nationale, généralisée, commune aux leaders et aux personnes les plus modestes, fierté d'autant plus impressionnante et déconcertante qu'il s'agit de gens simples et que leur sentiment est manifeste. Le peuple du Nicaragua se reconnaît aujourd'hui lui-même avec fierté et se connaît comme symbole internationalement reconnu. Il sait surtout qu'il est un peuple qui a supporté des siècles d'oppression, de dictature et de misère. Ce

sentiment général s'accompagne de résultats incontestables: la réforme agraire, les améliorations de l'habitat et de l'état sanitaire, la scolarisation, l'alphabétisation.

Peut-être le résultat le plus universellement reconnu est-il celui de l'alphabétisation. La "croisade nationale d'alphabétisation" s'est décidée 15 jours après la victoire, avant même d'avoir le temps de compter les morts. Sous la devise: "le peuple éduque le peuple", 200.000 jeunes se mobilisèrent pour "la bataille des crayons". Mais il ne s'agit pas de la seule alphabétisation de masses analphabètes: le journaliste peut admirer les résultats de l'immense collecte informative du patrimoine culturel du pays que l'on a menée à bien: richesses ethnographiques et artistiques, littérature et tradition orale. Le pays s'est étudié aussi lui-même. La culture populaire a obtenu sa reconnaissance.

A ce propos, le journaliste basque s'intéresse particulièrement au problème des indiens Misquitos, problème souvent présenté par les agences américaines comme un cas de génocide. L'auteur signale les graves erreurs commises par les fonctionnaires sandinistes en ce domaine, par précipitation et par ignorance. Ces erreurs sont admises et reconnues par les personnes entrevues. Quant à lui il expose les causes plus profondes de ces fautes, en situant le problème dans son contexte historique, géographique, social et stratégique-militaire. Actuellement on prépare un Statut d'Autonomie qui donnera une solution au problème que pose la mosaïque d'ethnies qui occupe la Côte Atlantique. Problème qui —ne l'oublions pas— n'a jamais été abordé jusqu'ici par les gouvernements précédents.

Un autre thème important, c'est le problème de la liberté politique religieuse et informative. Politiquement, le projet sandiniste défend le pluralisme dans le cadre de l'hégémonie populaire, volonté confirmée par les élections de 84. Le FSLN est le parti dominant avec 67 % des votes. L'opposition politique au dehors et au dedans du Parlement est faible et divisée. Le journaliste observe que deux instances non directement politiques rassemblent en réalité l'opposition la plus importante au régime: le journal "La Prensa" et l'archevêché de Managua.

L'auteur constate que la liberté de la presse existe au Nicaragua, comme le prouve la parution même de "La Prensa", agent catalyseur de l'opposition, directement dressé contre le régime sandiniste. Cependant on peut observer que ses difficultés avec la censure ne sont point d'ordre idéologique, mais informatif, portant sur des questions concernant la sécurité nationale et le ravitaillement; censure caractéristique d'un pays en guerre. Pour le reste, le protagonisme international de "La Prensa" occulte la réalité: il y a aussi au Nicaragua d'autres journaux, environ 40 publications non quotidiennes et une cinquantaine de radios, dont certaines sandinistes. Les deux chaînes de télévision appartiennent à l'état.

La difficile question de la liberté religieuse se révèle au fond comme une question politique. L'Eglise au Nicaragua est divisée. Le cardinal Obando, archevêque de Managua réunit autour de lui une bonne partie de l'opposition au FSLN, avec des sujets tels que, la persécution religieuse, le totalitarisme du régime, la violation des droits de l'homme. En face les communautés de base chrétiennes qui furent des pépinières de révolutionnaires sandinistes. Au-

jour d'hui encore nombreux sont les chrétiens laïques, prêtres ou religieux qui participent avec les institutions sandinistes à la construction de la Révolution. La prétendue persécution religieuse n'est que la poursuite du combat politique sur le plan religieux. Quoique les difficultés soient réelles, la prétention de faire du Nicaragua la Pologne de l'Amérique Centrale est une manoeuvre intéressée, sans lien avec la réalité.

La reconstruction économique constitue une tâche prioritaire du processus de reconstruction nationale. Le programme sandiniste se fonde sur les principes de l'économie mixte: coexistence de l'économie planifiée et de l'économie de marché, mais hégémonie du national et du social. Selon ces principes, la réforme agraire distingue le secteur privé, le secteur socialisé ou coopérativiste et le secteur nationalisé, compte tenu de critères de flexibilité et de pragmatisme. Le développement est pourtant troublé par la situation de guerre, qui affecte aussi inévitablement les aspects politiques et sociaux de tous les problèmes du Nicaragua.

C'est en réalité la contre-révolution qui conditionne la consolidation et le développement du projet sandiniste. La "contra" est apparue très tôt: un an et demi après la victoire sandiniste. Au début ce sont d'anciens gardes "somozistes", organisés, armés et financés depuis les Etats-Unis. Selon l'analyse du journaliste, son objectif n'est point la victoire militaire, mais la lente érosion des bases de l'économie nationale, puis la destabilisation politique qui s'ensuivrait, comme conséquence d'une guerre dont le coût économique et politique est fort élevé pour le gouvernement sandiniste. Ni par ses origines ni par ses caractéristiques actuelles cette guerre n'est une guerre civile, mais tout simplement une guerre d'agression. Bien qu'elle se limite aux frontières elle atteint en fait déjà la vie de l'intérieur du pays: elle contraint le gouvernement à prendre des mesures impopulaires comme les restrictions de consommation (rationnement, etc.), l'austérité économique, la mobilisation des jeunes pour le front, "l'oubli" temporaire des promesses d'amélioration sociale (réduction des investissements pour l'éducation, la santé ou l'habitat, etc...). Il faut ajouter le harcèlement général auquel le Nicaragua est soumis de la part des Etats-Unis, car au fond la contre-révolution armée n'est qu'un élément, important il est vrai, de cette stratégie de harcèlement.

Le Nicaragua tout entier est comme une ville assiégée; assiégée et encerclée par les Etats-Unis: Economiquement, c'est le blocus économique et financier; militairement, ce sont les "contras"; politiquement, c'est le refus de négocier la paix; informativement, c'est l'image répandue d'une dictature, d'un état marxiste-léniniste. Les Etats-Unis cherchent la destruction du projet sandiniste par étranglement et par asphyxie, sinon par intervention directe.

Au retour du Nicaragua, la priorité doit être donnée à l'information: Le Nicaragua est au Sud, non à l'Est, il est l'espérance du Sud, la Cause de l'Amérique. C'est une révolution comme le peuple lui-même, flexible, non dogmatique, doté d'une grande capacité d'autocritique. Le journaliste témoin croit avoir découvert au Nicaragua la recherche d'une société qui ne serait "ni capitaliste, ni dépendante, ni totalitaire".

Ertamerika: ikuspegi sozio-ekonomikoa

Xabier Gorostiaga

1. Prozesu iraultzailearen kausa ekonomiko-sozialak

Esan daiteke Ertamerika, ia bere osoan, dagoela iraultza-bidean, aldi edo fase desberdinetan bada ere. Ezagunena Nikaragua da, noski, iraultza jadanik egina bait du. Baina hor daude Salvador bat, Guatemala bat, urtetako borroka luzean. Beste batzuren kasua ez da internazionalki horren ezaguna, Honduraskoa adibidez, baina hor ere bada istilurik franko. Zer esan nahi du honek? Zeintzu dira, zure ustetan, oro har, iraultza guzti hauen kausa ekonomiko-sozialak? Zergatik gertatzen da beharrezko iraultza? Kanpoko nahiz barneko zein dependentzi motak behartzen du haustura hori?

Gaur egun debate handia dago Ertamerikari buruz: Iraultzaren arrazoiak barnetikoak ala kanpotikoak diren eztabaidatzen da. Eta arrazoiok, barnetikoak eta kanpotikoak, bietarikoak direla esan behar da.

Une honetan munduko beste zenbait lurraldetan jazo dena gertatzen ari da Ertamerikan: era askotako arrazoiak pilatzetik sortzen den haustura historiko bat, alegia.

1.1. Arazo ekonomikoa

Arrazoiatarik bat —eta ondo dramatikoa bera— ekonomikoa da, noski. Eta hori, hamar urtetan etengabea izan den, eta munduko beste lurraldeek ezagutu ez duten hazkuntza historikotik dator: Ertamerikako Ekonomi Elkartetik. Izan ere, ez Japoniak eta ez Brasilek ezagutu ez zuten bezalakoa izan bait zen Ertamerikaren ekonomi aurrerakada.

Ekonomi aurrerapen guzti hori, ordea, % 5en eskutan pilatu zen bitartean, % 60 edo 70 lehenean edo okerrago gelditu ziren. Nolanahi ere, % 50entzat behintzat, zailago bihurtu zen bizibidea.

Lurralde aberatsa eta emankorra da Ertamerikakoa; ez du inondik ere Sahararen antzik. Adibidez, baliabide handiak ditu meatze eta mineraletan, gainerako beste guztiez aparte. Baina, batipat, dagoen lekuan kokatua egotetik dator kio Ertamerikari bere baliabiderik handiena.

Hain zuzen, hementxe gurutzatzen dira bi Ozeanoak; zenbait kontinenteren artean erdigune gertatzen da; bertan dago Panamako Kanala; Ipar eta Hego Ameriken erdi-erdian kokaturik dago; munduko komunikabiderik printzipalenak gurutzatzen diren puntuan aurkitzen da...

Baina Ertamerika, horrenbesteko aberastasun-possibilitateak dituen lurraldea izan arren, zeharo azpigaratua da. Latin Amerikako azpigaratuenetakoa dela esango nuke, eta munduko atzeratuenetakoa, dudarik gabe, nahiz eta aberasbide izugarriak eduki.

“Errepublika Bananero” deitu horietakoak dira Ertamerikako lurralde hauek: zeren eta, inposatu zaigun lanbidetik, ez bait zaigu posible inolako aurrerapen ekonomikorik. Gaur ez goaz inora platan, kafe, azukre, kotoi, arrantzu, haragi eta antzeko produktuekin bakarrik. Fundamentalki beren ekonomia bazkal ondoko postretara zuzendurik daukaten lurraldeetako azpiegitura ekonomikoaz ari gara. Eta ekonomi sistema hau, oso bigarren mailakoa da. Honek, dudarik gabe, aberastasun-bide urriak eskaintzen ditu nazioarte mailako salmentan eta merkatalgoan. Esan nahi dut, orain arte, platanoa, kafea, eta azukrea izan direla ekonomia honen ardatz nagusiak, baina gaur —eta etorkizunari begira— exkaxa dela hortik espero daitekeen etekina. Ekonomi tipo honetan garrantzizkoak izan zitezkeen beste hiru produktuek, berriz —kotoiak, haragiak eta arrantzuak, alegia—, etorkizun gutxi dute nazioarte mailako harreman ekonomikoetan. Hala ere, eta berriro esan, lu-

rralde honek berezko baliabide izugarriak ditu, geografikoki konaturik dagoen lekua kontutan hartzen badugu.

Baina, gorago esan dugun bezala, hortik sartu zaizkion aberastasunak % 5en eskuetan soilik pilatu dira. Horregatik, ez du harritzekorik batere, indar politikoa, eta botere sozial eta ekonomikoa bere eskuetan dauzkan gutxiengo pribilegiatu horren eta ezer gabe bazterrera utziak izan diren jende-masa subdesarroituen artean sortu den gatazkak. Gainera, bazterrera utziak ezezik, zapalduak eta esplotatuak dira sektore handi hauek... Hortik sortua da, noski, krisi politikoa.

1.2. Arazo politikoa

Beraz, krisi politikoarekin lotu-loturik dago krisi ekonomikoa. Aberastasun guztiak bere eskuetan biltzen dituen % 5eko gutxiengo oligarkiko hori, orain baztertzen eta zapaltzen duen herri xehearen botuei esker iritsi da daukan leku pribilegiatura, baina oligarkia horrek ez dio Herriari politikagintzarako inolako bide irekirik uzten.

Guzti honen bistan, erdimailako klaseak Iraultza-prozesuari atxekitzen zaizkio. Ertamerikan ez dago zentruko politikarik. Zentruko politika, oligarkiak eta Estatu Batuak deuseztu zuten. Ertamerikan izan zuten, noski, garaipen nabarmenik kristau-demokraten eta sozial-demokraten alderdiek. Sonatuena, Salvador-en Duarte eta Hugok 1971-72ko hauteskundeetan irabazi zutenekoa izan zen, zalantzarik gabe. Baina Estatu Batuak izan ziren, 1965eko beren interbentzio militarrekin, Guatemalan zentruko politika desegin zutenak. Eta beste horrenbeste gertatzen ari da orain Ertamerikako zenbait Errepublikatan ere.

Krisia, beraz, ekonomikoa da batipat. Baina sistema bera da krisian dagoena, ez fiskoa. Eta krisi politikoa lotu-loturik dihoakio krisi ekonomikoari. Hemendik dator nekazari baztertu eta esplotatuen, indigenen, herriko langileria eta proletalgo atzeratuaren erresumin soziala.

1.3. Arazo soziala

Beren erreakzioa 60ko hamarkadaren azkenaldera agertuko da, herri-organizazioaren bidez. Honetan badu zer ikusirik Elizak,

herri mailan egindako lanarekin. Izan ere, Eliza estu lotu eta konprometitu bait zen indigena, nekazari eta auzo zokoratueta jendearekin. Lan honi esker, fenomeno sozial inportante bat sortzen da: alegia, klase sozial esplotatu eta zapalduak, beren egoeraz jabeturik, organizatu egiten dira. Eta, agian, herri-organizazioaren fenomeno hauxe da Ertamerikako krisia pizten duena; ez hainbeste krisi ekonomikoa eta politikoa.

Hemendik sortzen den haustura historikoak badu korapilorik Ertamerikan: lurralde txiki azpigaratu eta baztertu hauek Inperioaren "atzeko patio"an, baina Inperiotik hurbil bizi bait dira; eta gertatzen da, jasaten dituzten krisi ekonomiko-politiko eta sozialek ez dutela izan inoiz irtenbiderik, zeren eta Estatu Batuek itxi egin bait dizkiete ate guztiak zentruko klaseei, klase popularrek aginterik har ez dezaten, edo erreforma-prozesurik egin ez dezaten. Estatu Batuek bat egiten dute zeharo Ertamerikan, aipatu dugun % 5eko oligarkia esplotatzailearekin, dela Somozaren dinastia, dela Salvadorko hamalau familiena, edo Guatemalako % 5eko nekazal esplotatzaileena.

Costa Rican, ostera, ez zen berdin gertatu. 1948. urtean Iraultza soziala egin zuen Pepe Friaresek. Iraultza erreformista izan zen, nahi bada, baina kontraesanik ez izatea lortu zuen, eta, gaur, Costa Rican Europakoan antzeko Demokrazi prozesu bat dagoela esan dezakegu. Batzuk Ertamerikako Suitza deitzen dute Costa Rica. Zergatik? Behar zen uanean aldaketa egiten asmatu zuelako, dudarik gabe. Ertamerikako beste herrialdeek ez zuten inoiz horrelako aldaketarik ezagutu.

1964ean Batzarre sonatu bat egin zen Costa Rican, Ertamerika osoko jakintsu, ekonomilari eta soziologoaren artean: gainera zetorkigun krisiaren azterketa sakona egin zen. Une hartan uste genuen, Hondurasen lehertuko zela aurrena krisia; hurren, Guatemalan; gero Salvador-en; eta, azkenik, Nikaraguan. Baina, ustearen kontra, Nikaraguan gertatu zen lehen Iraultza. Berdin gerta zitekeen, noski, beste nonnahi ere. Batera pilatzen diren krisi ekonomiko, politiko eta sozial horietatik sortzen den leherketa horren errudun, dudarik gabe, Estatu Batuak dira. Hauen Inperialismoa bait da, Ertamerikaren kokapen geopolitiko-estrategikoa kontrolatuz, erreforma-bide guztiak ixten dituena.

1.4. Menperaketa-ereduarekiko haustura historikoa

Gauzak honela, hainbat krisi ematen dira aldi berean Ertamerikan: alde batetik, haustura historikoa: eten egiten dute, alegia, bo-

tere esplotatzaile eta zapaltzaile ekonomiko-politiko eta sozialekin. Eta, bestetik, haustura geopolitiko gertatzen da, hots: "errepublika bananero" txiki hauek puskatu egiten dituzte Inperiorekiko harremanak. Etendura hau, gehiengo esplotatuaren eta gutxiengo oligarkiko esplotatzailearen artekoa bakarrik izan zitezkeen; baina, oligarkia eta Estatu Batuak bat eginik zeudenez gero, Iraultza Soziala, Iraultza geopolitiko bihurtzen da. Beraz, Estatu Batuen aurkako Iraultza geopolitiko, Iraultza soziala da aldi berean. Eta hementxe dago, hain zuzen, Ertamerikak jasaten duen drama handiaren gakoa eta korapiloa.

2. Geopolitika eta Iparralde/Hegoalde arazoa

Haustura historiko horretan, menperakuntza sozio-politiko eta ekonomikoaren eredia da batez ere desegin nahi dena. Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko borroka deritza horri. Askok, Ekialde/Mendebalde borrokatzat jotzen dute hemengoa: zergatik? Bestalde, edo, hobe, honekin lotuta, USArekiko hurbiltasuna ez al da zuen zoritxarrak handienetakoa?

Estatu Batuek —batez ere Reagan-en bitartez— Ipar/Hegoen arteko problema, Ekialde/Mendebaldeen problema bihurtu nahi lukete maltzurki. Baina problema, Ipar/Hegoen artekoa da, zalan-tzarik gabe. Hau da: Iparraren, gutxiengoa den oligarkia esplotatzailearen, eta Hegoaren, gehiengo esplotatuaren, artekoa.

Herialde esplotatuek injustizia instituzionalizatu honen aurka hartu duten bidea ezin oztopatu dutenez, Ipar eta Hegoaren arteko problema, Eki- eta Mendebaldeko bihurtzen saiatzen dira Estatu Batuak.

Niretzat, Reagan bera da aliaturik printzipalena, eta ahalegin guztiak egiten ari da Nikaraguako Iraultza "izurrite" bezala ikus dadin. Lurralde hau komunista bihurtzen ari dela sinesterazi nahi dio munduari. Baina beste bat da egia. Nikaraguako Iraultza-prozesua, ekonomikoa eta politikoa da, jakina; baina Nikaraguak, batez ere, "errepublika bananero" izateari utzi nahi dio. Bere nortasuna lortu nahi du. Nazio aske, autonomo eta independente izan nahi du.

Horregatik, krisi ekonomiko, politiko eta sozialaren eta problema geopolitikoaren ondoan, nazio-arazoarena dago. Eta gure

herrialde hauen identitatea, kanpokoan aurkako jarrerak hartuz definitzen da batipat. Horregatik, berezkoa bezala dute antiinperialismoa gure herrialde esplotatu hauek. Hemen ere, ordea, komeni da gauzak bereiztea: gure herriak, antiinperialista izan arren, ez dira anti-iparramerikarrak, jabetzen bait dira, beren egoeraren errudun ez dela herri iparramerikarra, hango sektore oligarkikoa baizik. Izan ere, gauza bat dira multinazionalak, aparatu elitistak, burokrazia estatala eta Inperioaren "atzeko patio"ra zokoraturik bizi direnen gain duten boterea galdu nahi ez duten jauntxoak; eta beste gauza bat oso diferentea, Ipar Amerikako herri xehea. Ipar Amerikako % 60 enteratu ere ez da egiten hemen gertatzen zaigunaz.

2.1. Iraultza indigena *versus* iraultza marxista-leninista?

Estatu Batuek geopolitika mailako gatazka biztu nahi lukete gure artean, baina guk ez dugu inoiz problemarik izan nazio sozialistekin. Egia da: hor dago Kubako Iraultza. Baina han gertatuaren erantzukizunik handiena ere Estatu Batuen da; hauek egindako boikot ekonomikoa eta isolamendua bait da horren errudun nagusia. Une hartan, gauza izan ziren Estatu Batuak Latin Amerika osoa Kubaren aurka jartzeko, eta, harekin zituzten harreman guztiak etenik, bakarrik uzteko. Eta Kubak, biziko bazen, nazio sozialisten laguntza bilatu beharra zeukan derrigor.

Kubarekin egin zuten gauza bera egin nahi lukete orain Estatu Batuek Nikaraguarekin. Baina Fidel Castrok berak esana da, Nikaragua ez dela beste Kuba bat, Nikaragua berri bat baizik.

Kausalitate honek berebiziko garrantzia du, nire ustez. Kissinger-ek bere informean indigenen iraultzak legezkoak direla aitortzen du, baina Ertamerikako iraultzak ez direla indigenak. Reagan-ek, hari beretik jarraituz, esaten du, Estatu Batuek ez luketela arazorik, baldin eta Ertamerikako iraultzak, indigenak, nazionalistak eta autoktonoak balira... Baina, inolako argitasun eta frogarik eman gabe, arrazoia ukatzen die Ertamerikako iraultzei, indigenak ez, baino marxista-leninista eta komunistak direla aldarrikatuz. Eta korapiloa orduan eta askagaitzago bihurtzen da: zeren eta, Ertamerika geografikoki kokaturik dagoen lekua kontutan harturik, Estatu Batuek beren laugarren mugatzat hartu bait dute; eta bertan, munduari ezezaguna zaion militarizazio-prozesu beldurgarria gertatzen ari da.

2.2. Ipar Amerikaren defentsarako laugarren mugaldea

Adibidez, hemen dauzkagu Kanalaren Zonako 14 base militarrik: Kuban Guantanamo; Puerto Rico osoa base militar handi bat besterik ez da; Bahamak eta Bermudak ere base militarrik dira. Estatu Batuen hegoaldean, berriz, Kay West daukagu, berebiziko plataforma militar bihurturik. Esan nahi dena da, mapa bat begiratzeko badugu, Ertamerika osoa Panamako Kanaleraino, Estatu Batuen defentsa-sistemaren barruti dela. Beraz, bi mila milia hegoalderantzago dagoen Ertamerika, beren laugarren mugatzat hartu dute Estatu Batuek.

Horrez gain, Hondurasko militarizazio-prozesua daukagu, ha maika base militarrekin, aireportuekin, etab. Lurralde-proporzioari begiratu, eta probreenetakoa dela kontutan izanik, bera da Ertamerikan aireportu militar gehien dituen. Alegia, Estatu Batuek beren betiko politika zitala daramate Hondurasen ere. Hone-la, han ere, Guatemalan, Salvador-en edo Nikaraguan bezala, orain arte ez zeukaten kontzientzia antiinperialista piztea lortuko dute; Nikaraguan, mendearen hasieran, 25 urtetako okupazio militarrekin gertatu zen bezalaxe.

2.3. Ipar Amerikaren interesa Nikaraguan

Kontutan hartzekoa da, beraz, ikuspegi geopolitikoa dela, eta ez arazo sozio-ekonomikoa, Ertamerika problema militar bati aurpegia ematera behartzen duena. Ez arazo ekonomikoak —eta hau interesgarria izan daiteke Marxismo ortodoxoarentzat—, baizik arazo politiko eta estrategikoak dira hemen garrantzi guztia hartzen dutenak. Estatu Batuek Ertamerikan duten interesa ez da ekonomikoa, orokorki begiraturik behintzat; gehien axola zaiena ez bait da hemengo produkzioa, bertako plataforma militarra baizik. Esan nahi dut, bost axola zaiela Estatu Batuei gure banana, arto, kotoi eta kafe-produkzioa; inporta zaiena Panama, Gran Caimán, Bahamak eta Miami finantz zentruak dira. Colón, Panama, Puerto Rico, Bahamak eta gisako zona libreak interesatzen zaizkio Estatu Batuetako inperialismo kapitalistari.

Gaur egun, Karibe-inguruan, 300 bat Banku Transnazional Subsidiario daude, 200.000 milioi dolar erregistraturik jarriak dauzkatenak. Zonako "paradisu fiskala" deitzen diote honi, eta Estatu Batuen kontrolpetik kanpo gelditzen da kapital hori. He-

mendik ateratzen dira droga-trafikoan dabiltzan milaka milioi horiek. Gran Caimán, Panama eta abarreko Bankuetan garbitzen dira inongo negozio zikin guztietatik datozen diruak. Hemen jokatzen eta dantzatzen den kapital guzti honen ondoan, oso bigarren mailakoak dira meategi, industria edo elikaduretan egiten diren inbertsioak.

3. Gizarte-klaseak eta aberastasunen banaketa

Iraultza ertamerikarra esplikatzen edo/eta legitimatzen duten kausak, krisiak eta arazoak hor daude, aipatu dituzu. Iraultza hauen zer-nolakoaz interesatzen gara orain. Alegia, kontutan edukita hirugarren munduko herri txiki eta azpigaratu batean gaude-la, jakinik ez dagoela langilego antolaturik edota erdimailako klase indartsurik, etab., zeintzu dira indar sozial iraultzaileak? Zein da indar eta protagonista iraultzaileen konposaketa soziala eta ideologikoa?

Bi puntu daude hemen ongi bereizi beharrekoak. Gure iraultza-prozesua oso sakona da; baina ez da proletalgoarena propioki: Inperioak eta Oligarkiak ez bait dute utzi herrialde hauetan proletalgorik ia izan ere egiten. Horregatik, oso urria da hemengo proletalgora: % 5 bat izan daiteke industri mundutik datorren proletalgora, ez gehiago. Hemen daukaguna, nekazal klase azpigaratua da: langile ebentual modura lan egiten duen nekazal proletalgora; kafea edo kotoia biltzeko edo kainabera mozteko garaian bakarrik lan egiten duen semiproletalgora. Horregatik, hemen ez da posible proletalgoaren iraultzarik, ez bait dago proletaririk.

3.1. Iraultzaren protagonistak

Iraultza honen protagonistak, beraz, zapalduta bizi diren giza masa handiak dira: hirietan bizi diren egunkari-saltzaile eta oinetako-garbitzaileak, fabriketako proletalgora urria eta nekazaritzan dabiltzan erdi-proletari ugariak. Nikaraguan % 52, hogeitaz behera dira. Eta gazteria hori da, hain zuzen, iraultzaren indarririk handiena. Erraz ikusten da arrazoa: bizi duten egoera subdesarroitatu, zapaldu eta esplotatua ez daukate, ez zer galdurik, ez etorkizunik. Orduan, beharrezko ikusten dute hausturaren pre-

nia. Ez dut esaten, hori iraultza denik; berek ez dakite iraultza zer denik ere... Dakitena da, hautsi egin behar dela eustezina eta zuzenkontrakoa den sistema oker horrekin. Adibidez, Iraultza Sandinista burutu zutenak ez ziren proletarien Sindikatuak izan, baizik auzoetako bizilagun baztertuak, nekazari esplotatuak eta, batez ere, gazte langabeak. Hori ez du ulertzen, edo ez du ulertu nahi, Reagan-ek. Baina hau iraultza marxista-leninista dela esatea, ezjakintasun hutsa da, marxismo-leninismoa sobietarren ikuspegi begiratzen bada behintzat.

Giza masa handiek sistema zapaltzaile eta esplotatzailearen aurka egiten duten Iraultza da hemengo. Horregatik, gehiengoaren logikaz hitz egiten da hemen: zokoratuta eta esplotaturik bizi diren nekazari, estudiante, hiritar, noizbehinkako lana duten langile, zapata-garbitzaile, egunkari- edo koko-saltzaileen logikaz, alegia. "Azpiproletalgoarekin egin genuen matxinada, eta Iraultza ere halaxe egin beharko dugu", esaten zuen Ortegak.

Zein projektu ortodoxotan sartzen da azpiproletalgoa iraultzarako indar bezala? Oso ikuspegi desberdinak dituzten Europarentzat eta Estatu Batuentzat ulergaitza da problema hau. Horregatik, gure artean gertatzen ari dena ulertu ahal izateko, Hirugarren Mundukoaren ikuspegia behar da. Osterantzean, ezinezkoa gertatzen da fenomeno hau zientifikoki esplikatuta ahal izatea. %8 edo %9 indigena besterik ez dituen Nikaraguako kasua baino zailagoa da oraindik, agian, Guatemalako. Hain zuzen, Guatemalako da Latin Amerikan egiten den indigenen lehen Iraultza Nagusia: Klase iraultzaileen artean, %60 indigenak dira, EGPko (Ejército Guerrillero de los Pobres) eta ORPko (Organización del Pueblo en Armas) batailoietako gehiengo indigenek osatzen dute, eta beren hizkuntza nagusia autoktonoa dute, ez gartzelania.

Honez gain, bada Ertamerikako Iraultzan beste fenomeno bat ere, nire ustez inportantea. Iraultza honek, munduko beste zenbait lurraldetako iraultza-prozesuen esperientziak jasotzen ditu, Sobietarra baina lehenagokoa den Mexikotik hasita. Denak Europatik etorria izan behar duela uste dute Europan, baina ez. Ertamerikako Iraultza guztiz Hirugarren Mundutarra dela jabetu beharra dago, eta gainera, baztertutako lurralde azpigaratuetan, bi, hiru edo bost milioi bizilagun besterik ez dituzten lurraldeetan jaiotzen dela. Gure artean, adibidez, ez dira derrigor beharrezkoak baldintza objektiboak, Europa batean Iraultza marxista bat egin ahal izateko bezala. Gure giza giro honetan, zergatik eta nola egin ikasteko esplikazio eta ikuspegi sozial eta zientifikoen premiarik

gabe ematen da Iraultza. Fenomeno hau oso interesgarria dela uste dut: ikasi, Mexikoko iraultzatik, eta Europako iraultza sozialistatik ere ikasten da, zalantzarik gabe. Baina askoz garrantzi handiagoa du, esate baterako, Txiletik, Kubatik edo Panaman Torrijorekin, edo Velasco Alvaradorekin Perun gertatutakotik ikasten denak; edo, sistemarekin hautsi gabe gauzak aldatu nahirik, porrot egin zuten beste zenbait lekutako ekintzetatik ikasten denak. Esperimentzia hauetatik asko ikasi dugu Ertamerikan.

Gure Iraultzaren jatortasunean eta berritasunean zerikusi eta eragin handia izan du, zalantzarik gabe, Elizaren ekintzak. Eliza ofiziala, globalki begiraturik, sistema zapaltzailearen zutabeetarik izan den bitartean, hemengo Elizaren portzentaia altu batek —handienak, esango nuke, Salvador-en, Guatemalan eta Nikaraguan behintzat— biziki esku hartzen du matxinadan. Eta gaur, Nikaraguako Iraultzan Elizak duen indarra eta eragina sinestezi-nak dira. Izan ere, hemengo Elizak ez bait du denborarik galtzen biolentziari edo marxismoari buruzko diskisizioetan, Europako Teologiak egin lezakeen modura. Problema hauek Europakoak dira, baina ez gureak, hemengo marxismoa ez bait da hangoaren gisakoa: filosofikoa eta ikuspegi materialistaduna; ez da XIX. mendekoa, alegia. Hemengo jende xeheak ez du guzti hori ulertu ere egiten.

3.2. Nikaraguako iraultzaren berezitasunak

Gure Iraultza praktikoa da, eta praktikotasunari begiratzen dio. Eta, honetarako, baditu zenbait arrazoi: bat, txikia izatearena. Gutxi izanik, ez dira alderdikeria jausten, baizik eta beren indar sozial guztiak batu eta fronte herritarrak sortzen dituzte, denak batera askapen-borroka bera egin ahal izateko. Iraultzarako baldintza objektiborik ez badago, berek sortzen dituzte egoera aldatzeko behar diren baldintzak.

Periferiako herri txiki subdesarroilatuen artean, Ertamerikako Iraultza da lehenengoa. Eta hori da inportantea. Honek, agian, izan dezake antzik Angolan edo Mozambiken gertatzen denarekin; baina baditu bere diferentziak ere. Ideologi mailan, esate baterako, hiru hari nagusi batzen dira gure Iraultzan: Sandinok sortutako abertzaletasuna, kristautasuna, bere erlijiotasun xume eta herritarrarekin, eta Marxengandik jasotakoarekin berek egin duten marxismo krioiloa.

Neri asko gustatzen zait Rikardo Morales, martiri sandinistaren esaldi hau: "marxistek bezala interpretatu behar dugu errealtatea, baina Nikaraguar bezala interpretatu behar dugu marxismoa".

Historikoki bat egiten duten hiru hari nagusi dauzkagu, beraz, hemen. Eta nikaraguarrek hoberena xurgatzen jakin dute. Sandinoren abertzaletasunetik, kristautasunetik eta marxismotik. Horregatik, hemen gertatzen ari dena arriskutsua da: ez, noski, eredu hau komunista edo marxista-leninista delako; eredu hau baliagarria delako baizik, eta askoren begiak eta buruak argitzen ari delako.

Iraultza hau berdin defendatuko dizu Espainiatik Ruiz Giménez batek, edo Espainiako alderdi komunistak, edo Estatu nazionalitateetako edozein alderdi politikok. Zein beste fenomeno da munduan, Espainiako Estatuan gertatzen den bezala, adibidez, elkarren artean ondo konpontzen ez diren alderdiak, Iraultza Sandinistarekin solidarizatzeko orduan, denak ados jartzen dituen? Nik uste dut, hauxe dela, hain zuzen, Estatu Batuei hezurretarainoko beldurra sartzeko diena. Hemengo borroka ez bait da ekonomikoa, Estatu Batuek hemen egiten dituzten diru-inbertsioak direla eta ez direla. Gure nortasuna eta nazioarte mailan zor zaigun begirunea jokoan daudelako da gure borroka. Reagan-ek ez du ikusi nahi, baina hori guztiz garrantzitsua da guretzat. Gure eskubide hauen kontrako borrokan, galdu besterik ez dute egiten Estatu Batuek: galdu egin zuten, Segurtasun-Kontseiluan Nikaragua kide izatea oztopatu nahi izan zutenean, 104 naziok Nikaragua babestu bait zuten, Estatu Batuen aurka. Galdu egin zuten Den Haagen-eko nazioarteko auzitegian. Berdin gertatu zitzairen G.A.T.T.en ere. Galdu egin zuten Nazioarteko Itsas Elkartean, portuak minatzeagatik gaitzetsiak izan zirenean; eta galdu, baita, B.I.D.en arazoan ere, zeren eta, Shultz txostenaren bidez Nikaraguari egiten dion 58.000 dolarreko prestamoak, B.I.D.en agiri konstituzionala hautsi egiten bait du. Estatu Batuek oztopatuko dute diru hori, baina legalki galtzen aterako dira.

Kubak ez zuen izan honelako esperientziarik. Sobietarrek ere ez. Baina "Errepublia Bananero" txatxar hau gauza da Estatu Batuei hori guztia egiteko.

3.3. Legitimitate-borroka

Munduaren hegemonia birlortu nahirik dabilta Estatu Batuak une honetan. Asmo honek ez du sortzen krisirik sobietarren

artean, Europan, edo Japonian. Beren etxearen "atzeko patio"an, ordea, bai. Eta hori gehiegizkoa da. Estatu Batuen sinesgarritasuna da hemen jokoan jartzen dena. Estatu Batuak nazioarte mailako sinesgarritasuna galtzen ari dira, Ertamerikarekin sortu dituzten arazoak direla bide. Lehen Vietnam-ekin gertatu zitzaiena bera gertatzen ari zaie berriro.

Hau guztia arazo konplexua da hitzez ulerterazteko: zaila da guretzat, hemen gabiltzanontzat, eta askoz zailagoa eta ulergaitzagoa europarentzat.

Azken batean, Ipar eta Hegoaldekoen arteko harremanen aldaketa da jokoan dagoena. Guk, praxiaren bidez, justizia bilatzen dugu. Iraultzak porrot egiten badu, ez dago guk nahi dugun Ipar eta Hegoaldearen arteko aldaketarik. Estatu Batuek Vietnam-en irtenbidea eskaintzen digute. Guk, ordea, ez dugu hemen Vietnam berririk nahi, irtenbide diferente bat baizik; negoziatua eta kostu sozial gutxikoa.

Gure egoera larria da, beraz; baina ez guretzat bakarrik, baita Europarentzat ere. Hemen Vietnam-en gertatu zena gerta baledi, ez litzateke han bezala izango. Une honetan, gerra hotzean bizi gara, baina dagoen krisi nuklearrarekin, edozein mementutan gerta daiteke denok beldur dioguna. Ertamerikan gisa honetako gatazkarik gerta baledi, ukituak lirateke Europaren interesak, eta, honekin, gainbehera etortzeko arriskuan Europak atomikaz josirik daukan sabai osoa. Zentzu honetan, "test" bat da Europarentzat Ertamerikako krisia.

4. Klase-borroka ala nazio-borroka?

Zer da batez ere: nazio mailako klase-borroka da, ala ezarrirako nazioarteko ordenuaren aurka herri proletari batek egiten duen borroka da?

Zein den, beraz, gure korapiloa: klaseen arteko borroka nazionala, herrialde proletario batek egiten duen borroka? Nazioarte mailan jarritako ordenu jakin baten aurka? Gauza bi hauek ezin bereiz daitezke gure artean, bietarik ematen bait da. Gurea ez da proletari-herria, baina, hala ere, bada langileri klasearen borroka bat: nekazari, proletari, erdi-proletari, eta gorago aipatu ditugun hainbat ogibide xelebretatik bizi direnena. Ogibide-tipo hau ez da

ezagutu ere egiten, esateko, Europan. Baina hemen, Managuan, % 45 era honexetan bizi dira. Hau da, hain zuzen, azpigarapenaren ezaugarri nabarmenenetakoa. Jende askok, azpigarapena pobretasuna dela uste du. Baina ez. Azpigarapena, pobretasuna baino gehiago, menpetasun sozial lotsagarria da. Dirurik gabeko kapitalismoa. Propioki, ez da kapitalismoa ere, kapitalismoak zukutu eta bizia zurrupatu ondoren, birrindurik gelditzen den hondakinezko gisa masa arlote bat baizik.

Horregatik, funtsezkoa eta ezinbestekoa da guretzat independentzia nazionalaren aldeko borroka. Batez ere hemen, Inperioaren "atzeko patio" besterik ez diren herrialde hauetan da, hain zuzen, beharrezko nazionaltasuna, eta askapen osoa lortzearen aldeko herri-borroka. Agian, teorikoki bereiz daitezke bi borroka-tipo dira; baina, azken batean, borroka bakarra izatera dator praktika historikoan.

Irlandan, Euskal Herrian, Britainian, etab. Nikaraguari dioten sinpatia, adibidez, nik uste dut —nahiz eta hauen problema beste neurri eta maila batekoa den—, arazo berdintsuekin dabiltzalako dela.

5. Gizarte berriaren bideratzea. Eredu sozio-ekonomikoa

Eraiki nahi duzuen gizarte berri honen mamitzean, zein eredu sozio-ekonomiko ezarri nahi duzue? Eta jabegoaren zein formula erabiltzen duzue: Estatuaren jabegoa?, gizarte-jabegoa?

Nikaraguako kasuan, adibidez, zer esan nahi du eta zergatik proposatzen duzue ekonomia misto planifikatua, aniztasun politikoa, internazionalki ez-lerrokatzea?

5.1. Printzipio estrategikoak

Lau direla esango nuke nik, gure herria eta Ertamerika osoa jaso ahal izateko ahaztu behar ez diren printzipio estrategiko nagusiak.

a. subjektu politiko berria: gehiengo handiak

Lehenik, gehiengoa osatzen duten giza masa handien logika da gogoan izan behar dena. Hemen ez du balio hazkuntzaren, desarrolloaren edo kapitalaren logikatik hasteak. Kapitalismoaren logikaren aurka, giza masa handien logikari eman behar zaio lehentasuna. Izan ere, asko izatean dago, hain zuzen, masen kapitala eta aberastasuna. Horregatik, logika horrekin jokatu behar da. Guatemalan, adibidez, % 70 edo % 80 analfabetoak dira. Baldintza edo eragozpen hauekin, nola jaso daiteke herririk?

Egoera hauxe da, hain zuzen, logika berria, ikuspegi berriak eta ekintza-bide berriak hartzera behartzen gaituena.

Herri hauek bururik-jaso nahi badute, beraz, lau prozesu hauei loturik jokatu behar dute aldi berean: nazioa sortzeko prozesua, Estatu sortzeko prozesua, herri-organizazioak sortzeko prozesua eta demokratizazio-prozesua, laurak batera eramanik, alegia.

Nikaraguan eraiki asmo dugun gizarte-projektuak bide hauxe ibiliz egina izan nahi du. Ez dugu pentsatzen, lehenbizi Iraultza egin behar dugunik, gero demokrazia sortzeko. Batera egin behar direla uste dugu aldaketa soziala, ekonomikoa, politikoa eta geopolitikoa. Prozesu guzti honek, alegia, denen eskuhartzearen bidez, demokratikoa behar du izan hasiera-hasieratik. Ez Kuban egin zen bezala. Izan ere, Kuban iraultza egin zen aurrena, eta boterea eskuratu ondoren etorri zen herriaren partizipazioa.

Guretzat guztiz inportantea da gauza biak aldi berean egitea. Demokrazia partizipatiboak ez du ukatzen demokrazia erreprezentatiborik. Nikaraguako hauteskundeak, nazioarteko 800 aztertzaileraren begiradapean egin ziren: Europako Parlamentua, Latin Amerikakoa, Parlamentari ingelesak, kontserbadoreak etab., testigu zirela, alegia.

Hemen eraiki asmo dugun Demokrazia, benetan demokratikoa izatea nahi dugu. Horregatik, beharrezkoa ikusten dugu projektu honetan giza masen eskuhartzea, nahiz eta hauek akatsak eta desarrollo-falta handiak izan. Hala ere, hobe dela uste dugu aldaketa sozio-ekonomikoak eta gure herriaren askapen nazionala lortzearen aldeko ekintzak batera burutzea.

Utopikoa dirudien projektu hau ez dago bapatean lortzerik, noski. Pausoz-pauso ibili behar da bidea; eta badakigu, bide hori ez dela bihurgune eta zailtasunik gabea. Aurreraka zoaz batzutan,

eta atzeraka bestetan. Baina ibiliz egiten da bidea. Ikusiz ikasten den bezalaxe.

Hor dugu, adibidez, Miskitoen kasua. Iraultza Sandinistak hankasartze handiak egin zituen Miskitoekin, baina, aldi berean, baita asko ikasi ere hankasartze horietatik. Une batez, Iraultza Sandinistaren arazorik larriena izan zena, gaur inork uste ez bezalako irtenbide interesgarri bat aurkitzeko bidean dago. Eta, noski, piztuko du hizpiderik Sandinisten ekintza honek, zeren eta eredu izango bait da, dudarik gabe, etni problemak antzekoak dituzten beste herrialdeentzat.

b. ekonomia misto planifikatua

Beraz, giza masen logikan dago giltza. Eta logika honek hiruzpalau zutoin inportante ditu. Bat, Barne-Produktu Gordinareneko % 40 ez dute multinazionalak edo enpresa handiek sortzen; baizik nekazariak (bost edo hogeit hamar "manzana", zerri-koskor bat eta behi batzu dituen enpresari txikiak); kale-ertzean dendatxo familiarra daukan saltzaileak; bere ilobarekin eta sendikorekin batekin lan egiteko tailertxo bat daukan mekanikariak, etab. Horien esku dago gure ekonomiaren % 40a.

Ezinezkoa da hori nazionalizatzea, eta ez du merezi ere, noski. Behar-beharrezko ikusten da, horregatik, ekonomia misto esaten zaiona sortzea. Gainera, kontutan izan behar da, Nikaraguan sektore pribatua zapaldua izan zela Diktadura garaian. Horregatik, sektore pribatuen artean, badira Sandinista direnak, edo, berak Sandinista ez badira ere, semeak Sandinista dituztenak; edo beren familiartekoren batzu Somozak hilak edo torturatuak dituztenak. Ondorioz, bada beren artean halako odol-elkargo antzeko zerbait...

Salvadorko hamalau familiek itxi egin dizkiote sektore pribatuari kapitalista izatera iristeko bideak; antzeko zerbait gertatzen da hemen ere.

Sektore pribatuaz mintzatzen entzutean, kapitalismoan pentsatzen da jeneralean; baina hemen ez da hala. Nikaraguako sektore pribatua azpigaratua da. Horregatik zaigu hain beharrezkoa delako ekonomia mistoa sortzea, herrialde hauek burua jaso ahal dezaten. Ekonomia misto honek hiru sektoreak hartuko lituzke: sektore publikoa, enpresari handien sektore pribatua —handia guretzat, jakina, enpresari txiki bait lirateke Estatu Batuetan edo Euro-

pan—. Hemen handia da 100 langile dituen, edo 100 "manzana" dauzkan kafetalaria, edo 500 "manzana" dituen algodonerua. Azkenik, eta hirugarren, gure artean hain ugaria den txiki eta ertainen sektorea dago; kooperatibizatua edo sozializatua jeneralean. Sektore hau ez doa kapitalaren logikaren bidetik, giza masa azpi-garatuén logikaren bidetik baizik. Gizonezko, emakume, neska-mutil gazte, ume eta maila guztietan, ongi organizaturik dago dena; eta gera daitekeen logika kapitalista apurra beren kontrolpean daukate.

Honez gain, Estatuak kanpoko harreman ekonomikoak eta salmenta nazionalizaturik badauzka, eta sektore publikoak beste horrenbeste egiten badu Bankarekin, eta gainera, zergen kontrola ere zeure esku baduzu, orduan posible da sektore pribatuaren funtzionamendu integratzailea. Guk honixe deitzen diogu ekonomia misto planifikatua.

Herri hauen trantsizioa, Txina edo Sobietarrekin konparaturik, oso diferentea da. Eta guztiz diferentea, baita, Brasilek, inoiz sozialista bihurtuko balitz, egin beharko lukeen trantsizioarekin konparaturik ere. Guk sozializatuta daukagu finantz sektorea. Eta erraza izan zen, sektore somozista bait zen. Enpresa pribatua ez zen batere kezkatu prozesu honekin, nazionalizazio horrek ez bait zuen ukitzen sektore somozista baizik.

Gure artean, beraz, berriak dira logika, gizarte-organizazioa eta subjektu politikoa. Hemen nagusigoa ez da enpresarena. Nikaraguan gertatzen ari denak ez du zer ikusirik Peron-en edo Torrijos-en populismo latin amerikarrarekin. Hauen gizarte-projektuak herri mobilizazio handia eskatzen du, baina bakarrik erdimailakoei begira eginga da, nagusigoa berauei emanez.

Erdimailakoei ere esku hartuz egindako gure herri-mobilizazioen helburua, ordea, ez da nagusigoa erdimailakoei ematea, herri xeheari baizik. Latin amerikar populismo tradizionalak baino haratago begiratzen du, beraz, gure Iraultzak.

c. aniztasun politikoa

Esan dugun bezala, logika berria, langileri klase berria, subjektu politiko berria eta ongi planifikatutako ekonomia misto berria dauzkagu Ertamerikan. Ez dugu alderdi stalinistaren antzera egituraturiko erakunderik, fronte herritar ireki eta zabal bat baizik.

Iraultzatik ia sei urteren buruan, hauteskundeak egin dira Nikaraguan; % 30eko oposizioa agertu bada ere, fronte berriak alde-

ko izan ditu % 67 botu. Kontutan izatekoa da, bestalde, oposizio-ko alderdiak ere proiektu abertzale herritarra eskaintzen dutela. Alegia, ez du inork pentsatzen lehengo kapitalismo basatira itzul-terik: European sozial-demokratek dutenaren antzeko zerbait bi-
latzen dute. Beraz, oposizioaren asmoa garaile aterako balitz, so-
zial-demokrazia edo kristau-demokrazia letorke. Eskuindarren
gehiengoa, ultra-eskuindarrak batipat, zeharo zokoratu gelditu
zen Somozismoarekin. Egia da, guk hartu dugun bidearen aurka,
zenbait taldek faxista jiteko ultra-eskuinera jotzen dutela, eta Pi-
nochet-ek duenaren moduko projekturen bat antolatu nahi dutela.
Baina giza eskubideak defendatzen dituela esaten duen jende ho-
nek noizbait boterea bere eskuetan hartuko balu, txiki utziko luke
Pinochet, egingo lituzkeen astakeria, triskantza eta basatikeriekin.
Hori da dramatikoa. Eta nahikoa dramatikoa, baita ere, zenbait
apezpiku arrisku honetaz ez jabetzea.

d. dependentziaren zatikatzea

Azkenik, oso interesgarria den beste puntu bat ukituko dut.
Esan dugun bezala, herri hauek txikiak eta azpigaratuak dira. Ezin
balia daitezke berez, beren premia guztiei erantzuteko. Baina, geo-
grafikoki duten kokaerari esker, erraza izan zaie nazioarte mailako
merkatalgoan parte hartzea. Baina, berriro esan, bazkalondoko
postre-produkzioak ez du inolako etorkizunik. Horregatik, histo-
rikoki Estatu Batuekin lotzen gintuen zilbor-hestea etenik, beste
zabalero bat eman behar diegu nazioarte mailako gure harreman
ekonomikoei.

Hauek, lautan zatituko genituzke. Ez dugu erabat hautsi nahi
Estatu Batuekin izan dugun harremana; gure harreman ekonomi-
ko eta teknologikoen lautatik bat, Estatu Batuekin izango litzate-
ke. Beste lautatik bata, Europarekin behar dugu. Hirugarrena La-
tin Amerikarekin. (Orain arte ez dugu ukan harremanik Mexiko-
rekin, Brasilekin, Kolombiarekin, Argentinarekin, etab; eta
beharrezkoak zaizkigu horiekiko harremanak). Eta azkenik, beste
lautatik bata, nazio sozialista eta ez-lerrokatuekin izango litzateke,
arabeekin adibidez.

Honela zatikaturiko ekonomia batek malgutasun eta operatibi-
tate gehiago emango liguke nazioarte mailan. Honez gain, "alter-
natiba erregionala" deitzen duguna bideratzea lortuko bagenu, lau
hanka hauek lituzkeen eredu bat eskaini ahal izango genuke,
Ertamerika eta Karibeko 30 herrialde barne hartzen dituelarik.
Herrialde guztion arteko elkartea edo integrazioa lortuko bagenu,

besterik gabe, konpondurik genuke lurralde hauetako bakoitzaren elikadura-arazoa. Ez genuke, aurten bezala, jaki basikoak ekartze-ko 3.000 milioi eta gehiago dolar gastatu beharrik. Diru hori etxean geldituko litzaiguke, erretzen dugun petrolio ordaindu ahal izateko. Gisa honetako zorrez ez kargatzea, independentzia izugarria litzateke guretzat.

Edo kafea, kotoia, azukrea etab. lehengai bezala bidaltzen ibili ordez, etxean prozesa genitzake, eta laboratuta igor genitzake. Eta, gainera, hondakinetatik papera atera genezake, eta karakolina, petrolioarekin nahasturik, erretzen dugun energiaren % 20 emango ligukeena.

Ez dago hau guztia etxean egin ezinik; ez da utopia, ez gabilta ametsetan. Baina, orain arte, herrialde txiki eta atzeratu hauek denak Estatu Batuei edo Europari lotuak bizi izan dira, eta ez dute izan inolako posibilitaterik, zilbor-hestea etenik, beren lurretako emaitzak bertan prozesatu ahal izateko.

Aurrera begira, eta esan dugun guztia laburbilduz, proiektu sozio-ekonomiko berri bat da bideratu nahi genukeena. Hauexek liriateke proiektu berri horren bost zutoinak: gehiengo logika, subjektu politiko herritarra, ekonomia misto planifikatua, aniztasun politikoa eta nazioarteko harreman zabalago eta zatika-tuagoak.

Honez gain, gorago aipatu dugun pentsamendu abertzale eta kristaua eta marxismo krioiola daukagu. Baina hain zuzen, hementxe dago koska eta korapilorik bihurriena. Izan ere, Sandinisten Iraultza berez baletor lurjotzera, Reagan-ek ez luke bere barne- eta kanpo-politika zertan arriskaturik. Orduan zergatik erasotzen dio hain bortizki Sandinisten Iraultzari, Europako aliatuak minenen aurrez-aurre jarririk, edo Estatu Batuek berek sortutako organismoen aurrez-aurre? Gure Iraultza benetan gainbehera baletor, berez erortzen utziko lioke. Baina hori egia ez denez, suntsitu egin nahi du eginahal guztiz. Arriskutsua gerta bait lekiok, bestela. Hain zuzen, hortxe dago gakoa.

5.2. Ahalbideak eta zailtasunak

Proiektu hori aurrera eramateko bideak ez du erraza ematen. Begien bistan daude zailtasunak eta trabak, batez ere politikoak eta areago geopolitikoak. Proposatzen duzuen, izan ere, benetan iraultzailea da. Baina posible?

*Oker ez banago, epe luzerako projektua da hori. Zenbat belau-
naldi? Gainera, zure idazlanetan ikusi ahal izan dudanez, Erta-
merika eta Karibe osotasun batean kontsideratzen dituzu zuk zeuk
sarri, batasun ekonomiko bezala. Beraz, nazio bateko planteamen-
duak jo eta pasa egiten dituzu.*

*Nik jakin nahi nukeena da, ea zer ahalbide-modu ikusten du-
zun projektu hori egiaz eta benetan obratzeko, eta noiz gertatuko
den hori.*

a. irtenbide bakarra

Horregatik, bide berriak hartu beharra dago. Nikaraguak hoge
biztanle ditu metro karratuko; Salvador-ek, berriz, hirurehun. Sal-
vador-ek, beraz, ezin segi dezake Nikaraguaren politika bera. Bai-
na, zalantzarik gabe, ongi balia daiteke gure hainbat esperientziaz.
Zenbait gauzatan hobetu ere egin dezake, noski. Beste horrenbeste
esan daiteke Guatemalaz. Eta gainera, egia esan, ez dago beste
irtenbiderik, zeren eta orain arteko esperientzia guztiek ez bait
digute deusetarako balio izan. Frakaso izan dira Ertamerikako
Ekonomi Elkarte Kapitalista eta Guatemalako erreformaren bidea.
Estatu Batuak berak izan ziren hori guztia hankaz gora bota zute-
nak. Ezagutu genuen Panamako Torrejismoa, baina gaur ez da
gelditzen haren arrastorik. Denetik ikusi eta probatu dugu. Baina
guzti horrek zer ekarri digu, miseria besterik?

Horregatik, jendea aspertu eta nazkatu egin da. Gaur ez du
inorengan sinesten. Denekin eten, eta bera da konponketa berrien
bila atera dena.

Haustura historiko hau, ordea, oso garesti atera dakioko.
Vietnam berri bat sortzea guztiz arriskutsua litzateke. Baina ez al
da beste irtenbiderik?, galdetzen dut nik. Eta uste dut, baietz. Ni-
karagua gauza da horretarako. Sobera daki gure Herriak, gordinak
izango direla gainera datozkion urteak. Baina prest dago datorkio-
nari kemenez aurpegi emateko. Biziari eusteko adinarekin konfor-
matzen da. Aski da oraingoz Herria eskolatzearekin eta kanpotik
egiten dioten erasoari eustearekin. Etorbizunean du bere itxa-
ropena.

Iraultzan izan ezik, ez da posible aurrekontuaren % 40 defen-
tsan gastatzea, eta % 35 uztaren galerak eta zubiak konpontzeko
erabiltzea: % 75, beraz, arerioak eginiko hondamendiak konpon-
tzeko behar da. Barne-Produktu Gordinaren % 25 besterik ez zaio

gelditzen, inperialismoaren erasoan aurka zutik iraun ahal izateko. Baina, nahiz eta gogorra izan, eutsi egiten dio Herriak. Eta eutsi egiten dio, konturatzen delako hau guztiau ez dela krisi ekonomikoaren ondorio, baizik erdimitaren pareko. Nikaraguak badaki zerbait berria sortzeak berekin dituen saminen berri. Badaki, ez dela bizi herririk, erdimitik jasan gabe. Horregatik eusten dio borrokari, ziurra ikusten bait du garaipena, nahiz eta orain gaizki pasa beharra izan.

Mundu transnacionalizatu batean, ez da posible inolako independentzia ekonomikorik; are gutxiago, bere ekonomia postre-produkzioan oinarritua daukan eta hiru milioi biztanle besterik ez dituen Herri batentzat. Gurea bezalako Herri batek guztiz ezinezkoa du nazioarte mailako merkatalgo balantzatu batean parte hartzea, berez desbalantzatu bait da.

b. lehentasunen zibilizazioa

Horregatik, guri gelditzen zaigun bide bakarra da, Estatu erraldoi bakarrari lotuak egon ordez, geure dependentzia askoren artean zatikatzea, batez ere gure gaitz bera jasaten duten herriekin elkartuz eta harremanak sortuz. Gehiengoarentzat onuragarri izango diren lehentasun batzu markatetik hasi beharko dugu. Orain arteko ekonomi aurrerapenak, historikoki, pribilegiatu bakar batzuentzat soilik izan dira mesedegarri, baina ez herri xeherentzat. Beraz, logika kapitalista hau haustetik daukagu hasi beharra. Sortu beharra dago "lehentasunen zibilizazioa" edo "zibizitatearen zibilizazioa" inoiz deitu izan duguna. Sektore pribilegiatuek ez dute, noski, bide honetatik sartu nahiko. Guk gehiengoan logika deitzen duguna, komunismo eta totalitarismo deituko dute berrek. Baina onean ez bada txarrean, gehiengoan nahiaren eta indarraren aurrean, hortik beharko dute sartu. Nahi badute eta ez badute, ez daukate burua makurtu beste erremediorik.

Enpresari pribatuak ere ikasiz joango dira, diruaren gainetik badirela inoiz ahaztu behar ez diren beste balio batzu.

Zentzu honetan, benetan bitxia eta kontutan hartzekoa da Elizaren doktrina sozialaren ikuspegi-aldaketa. Lehen, gutxiengo pribilegiatuak ziren giza masa pobre eta azpigaratuez arduratu behar zutenak. Orain, alderantziz, gehiengoei eskatzen zaie gutxiengo pribilegiatuen eskubideak errespetatzea. Elizak boteredunen alde, gutxiengo eta kapitalisten logikarekin jokatu izan du orain

arte. Baina orain, gehiengo pobreak aginteaz jabetu direnean, guxtiengo pribilegiatuen eskubideekiko begirunea eskatzen du.

Ez da ulertteraza hemen Elizak aplikatzen duen printzipioa; baina guretzat oso inportantea da. Eta, gainera, Ebanjelioaren ikuspegitik hurbilago dagoela dirudi. Alegia, berdintasuna sortzen duten diferentziak bakarrik dira kristau. Honela, adibidez, zu mediku, ministrari edo intelektual bazara, prestatzen duzun zerbitzuagatik, besteek ez duten kategoria zor zaizu. Ikuspegi honek arrazoizkoa dirudi.

c. eskualde-elkarketa: Ertamerika eta Karibe

Esaten ari ginenaren harira itzuliz, herrialde txiki eta azpigarratu hauek ez dute, bakarka, inolako irtenbiderik, mundu transnacionalizatu batean. Horregatik, elkartu beharra daukate, nazio-arteko merkatal harremanetan handiek irents ez ditzaten.

Gorago esan dugunez, Ertamerikan eta Kariben ia 30 herrialde dauzkagu, eta hauetan bizi direnek 65.000.000 biztanleko kopurua osatzen dute. Sortzen duten Barne-Produktu Gordina, 70.000 milioitik gora dolarrekoa da. Beraz, guztion arteko elkarte, ekonomikoki interesgarria litzateke benetan. Bestalde, lau nazio handiz inguratutik gaude: Mexiko, Venezuela, Kolombia eta Brasil. Posible litzazuke integrazio ekonomiko bat, edo "Contadora" ekonomiko moduko bat sortzea, orain arte harremanik izan ez dugun lau herrialde handi hauekin. Ertamerikak ez dauka bere premia teknologikoak Mexiko eta Brasilen laguntzarekin estali ezinik, orain arte bezala beti Estatu Batuen menpe egon gabe. Honez gain, Europa eta Kanadarekin harreman-bideak irekitzea lortuko bagenu, produktio-tipo berriak antola genitzake. Adibidez, gure herrietarik bat, jaki basikoak sortzera jar daiteke, beste bat beste zerbait produzitzera... Dena planifikazio zehatz baten barruan.

Guzti hau zaila da, noski, utopia dirudi; guk ez dugu burutuko, baina, agian, gure atzetik datozen belaunaldiak bai. Dena den, lehen urratsak behintzat egin ditugu, eta hiru urteko gure lanak egunetik egunera jende gehiago ekarri digu.

Epe laburrera lortu nahi duguna, bertako kontsumorako behar den bihia geuk sortzea da. Hori posible zaigu, dudarik gabe, Estatu Batuek uzten badigute behintzat. Hiru edo lau urteren buruan egin asmo dugun laborantza-lurren erreforma egitea oztopatzen ez badigute, aurrera aterako gara geure asmoarekin.

Bada Herri txiki hauetan, eginahal guztiz ezabatu nahi zaien oroimen historiko bat. Oroimen historiko kolektibo hori piztu eta indartu behar dugu berriro. Esate baterako, Ertamerika osoa Herri bakarra zela oroiterazi behar diegu gure Herriei, eta, orain zatikaturik baldin bagaude, kanpotik zatikatu gintuztelako dela, irakatsi behar dugu.

Hain zuzen, Ertamerikaren askapena lortzeko borrokatu ziren aitzindari handiak herrion batasun-zaleak ziren. Herri denak elkaturik, Herri handi bakarra egitea zen beren asmoa. Esaten dudanaren testigu gisa, hortxe ditugu Morazan bat Hondurasen, edo Sandino bat Nikaraguan. Hortxe dago Historia, inork pentsa ez dezan gure asmoak amets inozo besterik ez direla.

Gure proiektua, beraz, ez da gaurkoa, aitzinakoa baizik. Hala-xe gertatzen zen 1800eko Ertamerikan. Eta gaur berriro, oroimen historiko kolektibo hau errebindikapen gertatzen da mugimendu Iraultzaileen artean. Ez da erraza jakitea, federazioaren bidetik joango garen ala nazio bakarra egitera joko dugun. Honelakoetan, Historia bera izan ohi da bidea markatzen duena, asko bait deza-kete Inperioaren presioek eta Iraultzaren erantzunek. Baina, edozein modutara, krisi-une hauek dira Ertamerikaren aspaldiko ametsa eta asmoa gori-gorian jartzen dutenak. Hori ikusteko, ez daukazu 1821etik honako, edo Farabundo Martí-ren garaiko historiari begiratu besterik. Edo, guregandik gertuago, gure egunetan bertan, hortxe daukagu 1958-59an Sandinok lortu zuen Ertamerikako Elkarte Ekonomikoa. Honen asmoa haratago zihoan, noski: Elkarte Ekonomikoa eta Politikoa, biak, lortu nahi zituen. Gaur jasaten dugun krisialdi larriaren barruan, inoiz baino biziagoa da Herrialde hauen batasunaren aldeko mugimendua eta borroka.

Euskaratzailea: Tomas Sarasola

X. G.

CENTROAMERICA: PERSPECTIVA SOCIOECONOMICA

**PERSPECTIVES SOCIO-ECONOMIQUES EN
AMERIQUE CENTRALE**

Las causas económico-sociales de la revolución nicaragüense, y más en general de la revolución centroamericana, son tanto internas como externas.

En Centroamérica se da una ruptura histórica con el modelo de dominación económico-político-social y geopolítico. La convergencia de la crisis económica, política y social es provocada por la política secular de los EE.UU. que a través de su control geopolítico de la región, considerada por ellos como su patio trasero, no ha permitido que se hicieran a tiempo las transformaciones necesarias. A este cúmulo de crisis simultáneas se une también la crisis de nacionalidad: la identidad de nuestros pueblos se define en relación con el exterior, por lo que el antiimperialismo es parte del carácter de la nacionalidad de nuestro país.

Lo que está en juego en la revolución centroamericana es un problema Norte/Sur, esto es, las oligarquías contra las grandes mayorías, el Norte representado por los intereses de un grupo minoritario contra las grandes masas. Pero al mismo tiempo que es un problema Norte/Sur doméstico es un problema Norte/Sur internacional. Y EE.UU., hábilmente, sobre todo a partir de Reagan, como no tiene legitimidad para impedir este camino, intenta transformar un problema Norte/Sur en Este/Oeste. EE.UU. no tolera la «independencia» de ningún país en esta zona por donde pasa la cuarta frontera de la defensa norteamericana. El interés vital norteamericano en Centroamérica no es el económico directo sino el económico global, porque esta zona del mundo le sirve a EE.UU. como plataforma militar y plataforma del capital global norteamericano. Estamos, pues, en una situación en la que los determinantes económicos son secundarios ante los determinantes geopolíticos, estratégicos.

Hablando ahora no de las causas sino del proceso revolucionario en sí mismo, hay que destacar las características de las revoluciones centroamericanas. Estas revoluciones no pueden ser típicas revoluciones proletarias: el sujeto y las condiciones socio-económicas son diferentes de las europeas. La revolución centroamericana es un fenómeno tercermundista, pero además es un fenómeno tercermundista de pequeños países subdesarrollados de la periferia del Imperio. Lo que se está dando aquí es una revolución de las grandes mayorías oprimidas contra un modelo de dominación opresora. Por ejemplo, la revolución nicaragüense no la hicieron los sindicatos proletarios. La hicieron los pobladores de los barrios oprimidos, la hizo el campesino y sobre todo la juventud.

A nivel ideológico hay que destacar la convergencia de las tres grandes corrientes presentes en toda Centroamérica: el nacionalismo/antiimperialismo, el cristianismo y el marxismo criollo. Esta convergencia crea el modelo alternativo de transformaciones sociales que tanto teme Reagan. En el caso concreto de la revolución nicaragüense está en juego la posibilidad del cambio de relaciones Norte/Sur a base de justicia, de flexibilidad, de pragmatismo.

Cara al futuro, el proyecto que se está gestando en Nicaragua se basa en la lógica de las grandes mayorías por oposición a la lógica del desarrollo del capital. Este proyecto tiene cuatro grandes principios estratégicos:

- *Sujeto político popular: la parte central de la lógica de las grandes mayorías es el capital humano, el pueblo.*
- *Economía mixta: una organización económica donde quepan el sector privado, el sector público y el sector cooperativizado o socializado, con hegemonía estatal y social.*

- El pluralismo político: un frente amplio y no un partido de corte stalinista. Se trata de combinar la democracia popular con la democracia parlamentaria.

- La diversificación de la dependencia en cuatro grandes bloques: EE.UU., Europa, América Latina, Países socialistas y no alineados.

Este proyecto se completa con la integración regional. Como estos países no pueden ser autosuficientes por su pequeñez, por su subdesarrollo, por su ubicación y por la división internacional del trabajo al ser productores de economía de postre, necesitan insertarse en el mercado internacional de manera comunitaria y no individual. Es imprescindible cortar el cordón umbilical de cada uno de los países con los EE.UU. y conseguir formas de complementariedad regional, tomando como unidad Centroamérica y la cuenca del Caribe, unos treinta países en total.

Este es un proyecto de varias generaciones. Hoy día estamos en una economía de subsistencia, de resistencia. Pero proponemos un cambio de modelo, «la civilización de las prioridades» o «la civilización de la ciudadanía», es decir, en vez de hacer un modelo de desarrollo que sea a base de crecimiento económico, esperando que el desarrollo económico chorree a las grandes mayorías (cosa que nunca ha ocurrido en la historia de la humanidad), proponemos una economía popular: creación y satisfacción de necesidades básicas. Pensamos que nuestra apuesta es posible si nos lo dejan, si EE.UU. permite la reforma agraria. Las dificultades son de tipo político, sobre todo geopolítico, no de tipo económico o social.

Les causes économique-sociales de la révolution nicaraguayenne, et plus généralement de la révolution en Amérique Centrale, sont à la fois externes et internes.

On a ici affaire à une rupture historique avec le modèle de domination économique-socio-politique et sociale a été provoquée par l'action séculaire des Etats-Unis qui à travers son contrôle géopolitique d'une région considérée par eux comme leur "arrière-cour" ont empêché les transformations nécessaires de se produire à temps. A cet ensemble de crises simultanées vient s'ajouter la crise du nationalisme, car l'identité nationale se définit de forme négative par rapport à l'extérieur, de sorte que l'anti-impérialisme devient partie intégrante du caractère national de ces peuples.

Ce qui est en jeu dans la révolution de l'Amérique Centrale c'est la relation Nord/Sud, l'opposition entre les oligarchies et les masses populaires, le Nord représentant les intérêts de groupes minoritaires contre les foules misérables du Sud. Mais ce problème Nord/Sud est à la fois un problème domestique et international. Habilement, les Etats-Unis, surtout avec Reagan, essaient de transformer ce problème Nord/Sud en problème Est/Ouest. Les Etats-Unis ne tolèrent l'indépendance d'aucun pays dans cette zone où passe la quatrième frontière de leur

défense. Les intérêts vitaux de l'Amérique en Amérique Centrale ne sont pas directement économiques, mais seulement indirectement, car cette zone du monde sert de plateforme militaire et de plateforme générale au capital américain. Nous sommes ainsi dans une situation où les déterminants économiques sont secondaires par rapport aux déterminants géopolitiques et stratégiques.

Pour en venir non plus aux causes mais au processus du développement révolutionnaire, nous relevons certaines caractéristiques des révolutions de l'Amérique Centrale. Il ne s'agit point des classiques révolutions prolétariennes: Le sujet et les conditions socio-économiques sont différentes par rapport à l'Europe. Il s'agit ici d'un phénomène "tiers-mondiste" et de plus d'un phénomène "tiers-mondiste" concernant les petits pays sous-développés de la périphérie de l'Empire américain. Il s'agit de la révolte des grandes masses opprimées contre un modèle de domination oppressive. Ainsi la révolution du Nicaragua n'est pas l'oeuvre de syndicats de prolétaires, mais celle des habitants des quartiers urbains, celle des paysans et surtout celle de la jeunesse.

Du point de vue idéologique, il faut noter la convergence des trois grands courants présents dans toute l'Amérique Centrale: le nationalisme anti-impérialiste, le christianisme et le marxisme autochtone. Cette convergence crée le modèle alternatif de transformation sociale que Reagan redoute tellement. Dans le cas concret de la révolution nicaraguayenne se joue la possibilité d'un changement dans les relations Nord/Sud, basé sur la justice, la souplesse et le pragmatisme.

Face à l'avenir, le projet que porte le Nicaragua se fonde sur la logique de l'opposition des grandes masses populaires au développement capitaliste. Ce projet tient en quatre grands principes stratégiques:

- *Le sujet politique populaire*: Le noyau de la logique des grandes masses se trouve dans le capital humain, le peuple même.
- *L'Economie mixte*: Une économie qui fait sa place au secteur privé, au secteur public et au secteur coopérativiste ou socialisé avec une direction étatique et sociale.
- *Le pluralisme politique*: Un front élargi et non un parti de style stalinien. Il faut combiner démocratie populaire et démocratie parlementaire.
- *La diversification de la dépendance*: en quatre grands blocs: Etats-Unis, Europe, Amérique Latine, Pays Socialistes et non-alignés.

Ce projet va de pair avec une intégration régionale: Comme ces pays ne peuvent se suffire à cause de leur petitesse, de leur sous-développement, de leur situation géographique et à cause de la division internationale du travail qui les condamne à produire une "économie de dessert" (café, agrumes, sucre), ils doivent nécessairement se présenter sur le marché international de manière communautaire et non en ordre dispersé. Ils ont à couper le cordon ombilical qui relie chacun de ces pays aux Etats-Unis et à établir des formes de complémentarité régionale, en prenant comme unité de base l'Amérique Centrale et l'ensemble des Caraïbes, qui regroupe une trentaine de pays au total.

C'est un projet qui concerne plusieurs générations: On est aujourd'hui dans une économie de subsistance et de résistance, mais on propose un changement de modèle. Ce sera désormais "la civilisation des priorités" ou "la civilisation des valeurs civiques", c'est à dire que, au lieu de réaliser un modèle de développement fondé sur la croissance économique —croissance destinée à bénéficier ensuite aux masses; ce qui en fait ne se produit jamais, dans l'histoire de l'humanité—, on propose une économie populaire qui garantisse la satisfaction des nécessités fondamentales. On doit pouvoir jouer ce jeu s'il n'y a pas d'empêchement extérieur, si les Etats-Unis laissent faire la réforme agraire. Les difficultés sont d'ordre politique, surtout géopolitique, non d'ordre économique ou social.

Ertamerikako Eliza

Jon Sobrino

Ertamerikako Eliza, orain hamar bat urte ia inork ezagutzen ez zuena, mundu guztiak ezagutzen du orain; miretsi egiten du, edo haren beldur da; baina, nolana ere, notizia da. Kanpotik begira jarrita, bi gauza daude beren berritasunagatik atentzio ematen dutenak: Elizak nola parte hartu duen liberazio-prozesu eta prozesu iraultzaileetan (Nikaragua, Salvador eta Guatemalan); eta, Kristauenganako pertsekuzio garratz eta masiboa, hainbeste martiri egin dituen (Salvador eta Guatemalan bereziki, baina baita Honduras, Nikaragua eta Panaman ere). Berrikuntza ikusgarri hauen atzetik, ordea, beste zerbaitezkoagoa gertatu da; Ertamerikaren ebanjelizazio berria eta Ebanjelioaren ertamerikartzea. Ertamerikan pobreen Eliza edo Eliza herritar bat sortu da, eta hori da berrikuntza eklesialki erradikalena. G. Gutiérrez-en hitzok, "Latin Amerikako Elizaren historia Romero App. Jn.aren aurreko eta ondorengo alditan banaturik eman behar da", artzapezpiku martiriarenganako omenaldi dira; baina, aldi berean, Ertamerikan hark sinbolizatu zuen Eliz mota zein eratakoa zen azpimarratzen dute.

Ikus ditzagun ondoren Eliza horren berritatearen printzipio historiko eta ebanjelikoak, segidan bere gaurko problematika eta

gerorako etorkizuna zein dituen artertzeko. Esan beharrik ez dago, Ertamerikako Eliza osoa ez dela lehen mementuan deskribatu-ko dugunaren antzekoa; baina halako Elizarik ere bada, berritzaileena da eta bera da Elizaren gaurko gorabeherak epaitzerakoan kontutan eduki behar dena.

1. Ertamerikako Elizaren berritasuna

Lehen datua miseria da

Berritasun handiena, zera da: Ertamerikako Elizak errealitate ertamerikarrean aurkitu dituela bere lekua, bere nortasuna eta bere egitekoa. Prozesu hori Medellín ondoren hasi zen nolabait ere bizkortzen. Errealitate historiko funtsezko hori —beste artikulua batean xehetasunez aztertzen den bezala— pobretasun larrienak eta liberazioaren esperantzak osatzen dute. Bi gauzok errealitate historiko dira; eta ertamerikar egin, bi horiek kontutan hartuz egin da Eliza; gainera, ebanjelioak xedetzat dituen errealitate ere badira, eta, alde horretatik ere, horiek beretuz eta horiei egokitasunez erantzunez, Eliza ebanjelikoago eta kristauago egin ahal izan da.

1.1. Pobretasunaren teologia

Ertamerikan egia galanta da Medellín eta Pueblak deskribatu duten errealitate larri-larria. Lehenengo, “giza talde nagusi ugari marginatzen dituen miseria” (Medellín, Justizia 1), “zartailurik hondagarri eta umilagarriena” den pobretasun gordineneko egoera (Puebla 29). Bigarren, “egitura bidegabekoen” ondorioz (Medellín, Justizia 2) sortutako miseria, benetako bekatu dena. Hirugarren, berez “biolentzia instituzionalizatua” den (Medellín, Bakea 16) eta “bakearen aurka konspiratzen” duen (Pakea 1) miseria bidegabea, suntsidurara eta heriotzara hurbiltzen eta bultzatzen duen bekatua, beraz. Egia da, bestalde, badagoela “gogonahi bat, emantzipazio betekoa, zeinnahi morrontzarekiko liberaziozkoa, heldutasun pertsonaleko eta integrazio kolektibokoa” (Medellín, Sarrera 4). Heriotzara daraman pobretasun zapaltzailea eta liberazioaren esperantza dira, beraz, errealitate historiko ertamerikarra-

ren funtsezko datuak: Eliza, horiei aurre eman beharrean suertatu da.

Gauzak honela, Ertamerikako gertakizunik nagusia hori dela aitortzea, beste ezer baino lehen, errealitatearekiko zuzentasun sakoneko ekintza da: besterik gabe eta berez, konbertsiozko ekintza, ez bait ziren horrela ikusten gauzak lehen; bestalde, Elizaren egitekoa eta identitatea berreskuratzeko eta hazteko oinarri eta presu-postu da, identitate eta egiteko horiek ezin bait dira egikaritu zuzentasun horretatik kanpo; horretan oinarrituz, berriz, kristauki hazi egin litezke.

Errealitate ertamerikarraren ikuspegi hori zuzena da, ez bakkarririk historikoki, baita teologalki ere. Pobretasunak "zerura aldarri egiten du" eta, beraz, Jainkoari buruzko berri garrantzitsua ematen digu; esperantza "Izpirituaren irrika da" eta, beraz, Jainkoaren Izpirituari buruzko berri garrantzitsua ematen digu.

Pobretasunak teologikoki adierazten du, Jainkoaren kreazioa mehatxatua dagoela, gaiztotua edo ezereztatua; izan ere, pobretasunak zera esan nahi du Ertamerikan (lehenengo munduan adituzera eman dezakeenaren kontra): heriotzarekiko hurbiltasun egiazkoa; hurbiltasun mantsoa, baina egiazkoa. Horregatik, esan izan den bezala, "denbora baino lehen hiltzen direnak dira pobreak" (G. Gutiérrez). Ondorioz, gauza bat da eskatologia, azken-azkeneko oparoaldia, Elizak bere problema izatea, lanerako eta itzaroteko arrazoi izatea, eta hala izango du; baina, horrez gainera eta aurrekoaren eraginez, protologiak, biziak, sorburuan dagoenak, horren alde lan egiteko funtsezko arazo izaten jarraituko du Elizarentzat.

Gainera, Ertamerikan pobretasuna ez da heriotza mantsoa bakkarririk; heriotza hori azkartu eta bortxatu ere egiten da, pobreak beren bidegabekeriako pobretasunetik irtetea desiratzen dutenean, eta horretarako borrokatzen direnean, nobleki askotan. Halakoetan, atxilotuak, gartzelatuak, torturatuak, asesinatuak, desagertuak gertatzen dira. Errealitate ertamerikarra, orduan, herri gurutztatzatu bihurtzen da, Jahveren zerbitzaria bezala (I. Ellacuría): bekatua bere gain hartuz, munduko bekatuaren pean suntsitua erortzen da, aurpegia desitxuratu egiten diote, eta hura ikusteak higuina ematen du —ikus torturatuak—, bildots otzan legez hiltokira doa —gogora anonimatoan asesinatutako milaka eta milaka—, inpiotzat eta Jainkogabetzat hartua da —ikus kriminal eta subertsibo moduan egiten zaizkien epaiketak—, eta gaizkile bezala hilobiratua da —ikus bitez isilpeko kanposantuak. Pobretasun ho-

ri da, heriotza mantso eta biolentoa, lurretik zeruranzko aldarrikazioa eta, zerutik hona, lur honen gain eta kontra, zeruak esan hitzaren adierazpena. Baina liberazio-desirak ere —progresozko, kontsumismoko edo materialismo deshumanizatzailezko ideal burgesarekin zerikusirik gutxi edo batere ez dutenak— zeruraino iristen dira, eta zerutik bedeinkatu eta bultzatu egiten da esperantza hori.

Gauzak horrela planteatzeak esan nahi du, Elizak, logikaz bere identitateari eta egiteko eklesialari buruzko galdera egiten hasi aurretik —nahiz eta, jakina, kristau fedea jadanik aktuatzen ari den—, bere burua mundu honetako eta Jainkoaren aurreko izakitzat ulertu eta ezagutu duela, bere burua gerora esan lezakeen ezerk izakitasun hori eta hortik eratoritzen den erantzukizun primarioa ezin ezabatu izateko moduan. Ertamerikako Elizak berreskuratu egin du izakitasun funtsezko hori eta, horregatik, maila teologal hutsean planteatu du bere eklesialtasuna.

Horrek esan nahi du zehatz-mehatz, heriotzaren eta bizitzaren arteko aukera egitera behartua dagoela, borondate oneko zeinnahi pertsona edo talde bezala. Teologikoki esanda, beste aukera hau egin behar duela esan nahi du: biziaren Jainkoaren, bizitza ematen duen eta berak sortutakoentzat bizitza nahi duen Jainkoaren aukera, ala jainkotasun faltsuen aukera —faltsuak, baina izan direnak, jainkotasunaren ezaugarriak beretu egiten dituztenak: azkentasuna, ukieziatasuna, menpekotasuna, mugagabeko eskakizunak—, heriotza ematen duten eta, Moloch jainkoak bezalatsu, bizirik iraun ahal izateko opariak galdatzen dituzten herio-idoloen aukera egin beharra.

Fedearen funtsezko arazoak, horregatik, nahitaez alternatiba eskluditzaila eta duelo modukoan formulatutako teologiazko kinka horretatik iragan behar du Ertamerikan: eskluditzaila da, jainkotasun batak bestea eskluditzen duelako, eta duelo modukoa, jainkotasun batak bestearen aurka egiten bait du. Horregatik, gainera, kristau fedearikiko alternatiba ez da ateismo soila, idolatria baizik; ez da federik eza, baizik eta idoloekiko fede aktiboa (eta maltzurra): beste guztien aurretik, aktuatzen ari den kapitalismo absolutizatua eta segurtasun nazionalaren doktrina bezala ezagutzen diren idoloak. Romero App. Jn.ak esan zuen bezala: “Arazo honetan ez dago neutraltasun posiblerik: Salvadortarren bizitzaren zerbitzuan jarri ala haren heriotzaren konplize izan” (Lovaniako diskurtsua, 1980.02.02). Eta Salvadortar eta ertamerikar horiek pobleen gehiengo ugaria dira.

Fede-modu teologal hori da Elizaren berritasunaren azpian dagoen presupostua eta funtsa. Dударik gabe, beste gauza asko ere egin ditu eta egin beharko ditu Elizak. Pobreen bizitza aipatzearekin, ez da erabat esana geratzen Jainkoaren haienganako borondatea zein den; haiei sortzen dizkien exigentziak ere ez dira aipatuta geratzen. Baina, aukera hori egin gabe, ezin da hitz egin ez fedez ez Jainkoaz.

Fede hori beharrezkoa da, eta, bapatean, biziaren Jainko baten borondateari dagozkion jarrera eta iharduera primariotan mami-tzen da. Errealitatea estaltzearen kontra —bekatu orok bezala, errealitateak bere burua estali egin nahi izaten bait du—, errealitate horren egia, bidegabeko heriotza eta bizitzeko desira azaltzea eta zabaltzea eskatzen du fedeak. Miseriaren eta sufrimendu krudela-ren kontra, fedeak errukia eskatzen du, Jesus apaiz gorenarenak bezala, haiei laguntzeko eta haiek leuntzeko errukia. Injustiziaren kontra, fedeak justiziaren aldeko borroka bultzatzen du, horrek eskatzen dituenekin: heriotzazko egituren aurkako salaketa profetikoa, egituren beharrezko aldaketak galdatzea eta horretarako bide egoki eta eraginkorrenak jartzea. Herio-idoloak sartu nahi dituzten burumakurtzearen eta fatalismoaren aurka, fedea esperantzaren aldeko adore bihurtzen da. Hitz batez, idolatriaren kontra, fedea biziaren Jainkoarenganako fede bihurtzen da.

Horrelako fede hori galdatzen zaio Elizari azkenean, ezin bait da joan deskribatutakoa baino haratago, nahiz eta kristaui zehaztu eta esplizitatzeko geratzen den. Urgentziaz galdatzen zaio, zeren pobreen aldarria “zolia da, gero eta handiagoa eta, inoiz, mehatxatzailea” (Puebla 89), “Kristoren maitasunak behartzen gaitu” Pauloren eskaera haren bitarteko. Fede horren bitartez, Eliza historikoki eta teologikoki sartzen da Ertamerikan. Fede horrek ez dio bere izakitasunari uko egitea edo berau erlatibizatzea eskatzen; alderantziz, Ertamerikako pobreekin eta berorien esperantzaz eta liberazioaz zinez arduratzen direnekin solidarizatzeraz bultzatzen du.

Hori da Ertamerikako errealitatean Elizak eman duen lehen urrats logikoa: itxuraz, teorian formulatzen erraza, baina neke handikoa eta emankorra, aldi berean. Garrantzizkoa da hori ondo azpimarratzea, batez ere hariotza eta bizitza jadanik funtsezko arazo ez diren beste tokietan ere ulertua izan dadin. Ertamerikan, ordea, problema izaten jarraitzen bait du. Romero App. Jn.ak L. Boff-i esandako hitz ederrak hartuz: “Defendatu egin behar da minimoa, Jainkoaren emari maximoa den minimoa: bizia”.

1.2. Jesusen bidea ibili

Errealitate ertamerikarraren eta Jainkoaren aurreko jarrera hori da Elizaren aldaketaren eta berritasunaren sustraia. Agi denez, esan dugun guztia kristaua da; baina, era berean, garrantzi-garrantzitsua dela uste dugu beste hau ere azpimarratzea: alegia, kristau izateak kristauaren gizaki-izateari ere erantzutea eskatzen duela, izate horretan sakonduz eta inola ere ez bi gauzok bananduz. Hori oinarri hartuz, Elizari identitate eta eginkizun berriak sortu zaizkio Vatikanoko II.aren eta Medellín-en arabera; hori minimoki deskribatzen eta sistematizatzen saiatuko gara, Jesusen beraren prozesuaren eta Jesusen Izpituaren arabera. Jesusen Izpituak gaur argitzen duenaren arabera ulertutako Jesusen segimendu bezala interpretatuko ditugu Elizaren identitatea eta egitekoa.

a. Jesusekin enkarnatu pobretasunean

Eliza ertamerikarrak Jesusen **gizakundea**-n ikusten du bere lehen galdakizuna. Pauloren hitz haiek, Medellín-en hainbeste errepikatu eta gai nagusi bihurtu ziren hitz haiek, "Kristo, aberats izanik, pobre egin zen", paradigma-balioa hartzen duete eta garai-aldaketa bat suposatzen dute historikoki. Gizakundea ez da beste askoren arteko galdakizun bat, ezta ere ebanjelioaren gomendio edo iharduketa aszetiko huts: esan nahi du, simple-simple, Elizaren berezko tokia zein den eta toki horretan egotetik zein eginkizun sortzen zaion zahaztu behar dela. Orokorrenik esanda, Elizak gizatartu egin behar duela pobreen munduan.

Gizakunde hori, lehenik, konbertsio sakona da. Kontua ez da, gizatartu aurretik, Eliza logikoki eratzea eta, artzain-ekintza hobeto garatzeko, pobreen mundua hobeto ezagutzen saiatzea bakarrik. Gizakundea ez da, Elizaren mendetako triumfalismoa gainditzeko, inguruko mundura egokitzea bakarrik, Vatikanoko II.ak eskatzen duen bezala. Ez da bakarrik elkarren errespetu eta elkar aberasteko konfidantza egindako munduarekiko elkarriketa.

Ezer baino lehen, konbertsioa da, eta erro-errotiko konbertsioa, pobreen munduak aldaketa erradikala galdatzen duen "bestelako" erradikal bat jartzen bait dio Elizari aurrean. Pobreek "bestelako" bat osatzen dute historikoki Elizarentzat, hain zuzen benetan diren bezala ikusi dituelako berriro, eta ez direlako, izan, lehen pentsatzen zen bezalakoak. Teologikoki "bestelako" dira:

lehen ez bait zituzten kontutan hartzen Elizaren egitekoaren destinatari pribilegiatu bezala, eta are gutxiago ebanjelizazio-modu eta -edukinak eratzeko orduan edo pobreen Eliza eraikitzerakoan. Berrikuntza horrexek eragiten du gizakundea konbertsio izan dadin: errotiko aldaketa galdatzen bait du, eta, era berean, gauzak hala ez ikusteagatik eta ikuspegi zuzen baten arabera ihardun ez izanagatik damu izatea.

Elizaren pobreekiko solidaritate bezala deskribatzen da gizakunde hori Medellín-en. Solidaritate hori, pobreen mundura joatea bezala erakutsi da Ertamerikan, fisikoki joatea bezala ere bai. Pobre herritarren gehiengo kontutan eta benetan hartzen dute, apaiz askoren eta erlijiosa askoz gehiagoren txertatze-mugimenduak, pobreen mesedetan eta hauekiko benetako kontaktuan egindako giza baliabide eta baliabide fisikoen birbanaketak, Elizaren mekanismo eta plataforma tradizionalen orientazio berriek (Kolegio eta unibertsitate, gizarte-komunikabide, pastoral asistentzial eta gizakoi, kurien berrantolaketa, presbiteroen arteko sanatu, apaizen arteko bilera, etab.en orientazio berriek), beren ekintzaren lehen-tasunezko destinatari bezala eta, gero eta gehiago, beren inspiratzaile eta dinamizatzaile bezala. Zentzu deskriptibo honetan, Eliza ertamerikarra oso desberdina da gaur, duela hamabost urteko haren aldean. Pobreenganako hurbiltasun hori, apaietarako eritzi nagusi bilakatu da.

Gizakunde horrek, teologiazko hitzetan esanda, suposatzen du kristautasunez konpondu behar dela Elizaren lehen problema funtsezkoa: bere tokia zein ote duen Historian. Pobreen artean gizatartzerakoan, Elizak bere jatorria berreskuratu besterik ez du egingen. Ez bait dira hitz erretoriko huts Eliza gurutziltzatu baten oinetan jaio zela esatea. Ezta ere, ez da erretorika huts lehenengo komunitate kristauen sorburuan kide gehienak pobreak zirela esatea; Paulok zioen bezala, munduko txikiak eta mespretxatuenak zirela, alegia. Honetan datza Elizaren sustrai kristologikoa: Jesusen konkretutasunean. Baina bere sustrai pneumatologikoak ere gizakunde horretara apuntatzen du, zeren Izpituaren ekintzaren parte inportante bat izan bait zen, berpiztua gurutziltzatua bera dela gogoraraztea; eta Izpituaren gaurko ekintzaren parte inportante bat da, berebat, Eliza ere berriro bere benetako tokian jarri izatea.

Benetako tokia aurkitu izana garrantzi-garrantzizkoa da Elizarentzat: izan ere, horren barruan hazi egin daiteke eta hortik kanpo, berriz, bere izatea bera ankilosatu eta okertzeko arriskuan

aurkitzen da. Zehatz-mehatz, Elizaren bi problema nagusi konpontzen ditu pobreen mundurako gizakunde horrek. Lehenengoa, munduko izatearen edo ez izatearen arteko tentsioa konpontzen du, historiaren eta transzendentziaren arteko erlazio egokiarena. Pobreen munduan sartzeko izango ez den gizakunde batek, “mundutar” izatera bultzatuko du historikoki —terminoaren zentzu bekatuzkoan—, munduaren jarrera eta balioak bereganatzera, kontziente edo inkontzienteki: boterea mundu honetako botereen arabera ulertzera eta erabiltzera batez ere. Gizakunde-mota honek ez du historia transzendentzi leku egiten; eta transzendentzia hori, orduan, historiarekin paralelo mantendu beharko da, historiarekiko konbergentziarik gabe eta, askotan, haren kontra, historiarekin ukatuz transzendentziarekin baieztatzen dena. Pobreen munduaren barruan, berriz, Eliza “mundutar” egiten da —terminoaren zentzu positiboan: haragi hartzen duen Semearen antzera, haragi ahul gainera—, eta, horri esker, transzendentzia historian bilatu ahal izango du, paralelismorik gabe eta, printzipioz, murriztapenik gabe. Pobretasunak “laidoak eta gutxiespenak” sortzeko joera du —San Ignazioren intuizio sakonak azaltzen zuenez— eta, horren ondotik, umiltasuna eta gainerako birtuteak ere bai. Pobretasuna historia hazteko tokia da, beretik eman egiten du gehiago, eta, horregatik, Jainkoaren transzendentziarekin kontaktuan jartzeko modukoa da. Beste munduak, aberastasunarenak, ez du historia salbazioaren norantzan hazi erazten, bekatuaren bidetik baizik; horregatik, ez da transzendentzia aurkitzeko tokia.

Bigarren problema bat ere, fedearen eta errebelazioaren iraganaren eta orainaren arteko tentsioa ere konpontzen du. Elizak errebelazioaren gordailutza du; baina hori gordailu huts baten jabetza bilaka ez dadin eta, aldiz, produzituz haz dadin, boluntarismoak utzi eta hala gertatzera bultzatu behar da. Pobreak, alde batetik, Jainkoaren maitasunaren hartzaille pribilegiatu dira eta, beraz, zerbait garrantzitsua esaten dute eta esaten jarraitzen dute maitasunezko Jainkoaz. Gainera, Pueblak ezin hobeto esan bezala, pobreek “ahalmen ebanjelizatzailea” dute (1147 zk.): izatez direnez eta jasaten dutenez, Jainkoaren borondatea erakusten dute *sub specie contrarii* eta konbertsiora mugitzen dute; positiboki egiten dutenez eta pobre diren neurrian dituzten balore espezfikoengatik (solidaritatea, umiltasuna, esperantza), positiboki ebanjelizatzen dute. Testuinguru horretan kokaturik, berriak eta ikaragarriak dira Romero App. Jn.ak Lovanian esandako hitzak: pobreen arteko gizakundeaz geroztik, ezagutuz eta zehatzuz joan da Eliza zer diren bekatua eta grazia, galbidea eta salbazioa, Jainkoa eta Kristo zer diren.

b. Erreinuaren berri ona, hitzez eta ekintzaz

Pobreen artean gizatartua, Eliza ertamerikarrak **Jainkoaren erreinua**-rekiko zerbitzu bezala egikaritu du, batez ere, Jesusen segimendua. Zerbitzu hori ebanjelizazio bezala berraurkitu du, baina, hain zuzen, pobreen munduan egoteagatik, ondo zentzu zehatzean —Isaia eta Lukarengan hartzen zuen zentzuan. Ebanjelizatzea hori da, Jainkoaren erreinuaren berri ona pobreei zuzenean ematen eta egikaritzen hastea. Horrek formalki esan nahi du, Elizak bere egitekoan berriz ere hasi behar duela: batez ere, berri ona ematen, hau da, doktrina bihurtzeko den zerbait, baina, berez, doktrina baino gehiago dena: berri pozgarrià; pozez predikatzekoa eta hartzekoa, errealitate pozgarri baten berri ematen bait du. Doktrina-izaerazko ulerpen-modua gaudituz eta ebanjelioa berri ona den neurrian berreskuratzea, Elizaren egitekoa bideratuko duen aldaketa funtsezkoa da.

Vaticano II.ak esaten duen bezala, ebanjelizazioa hitzez eta ekintzaz egiten da zehazki. Hitzezko berriemate den aldetik, ebanjelizazioa pobreen esperantza iragartzen eta bizirik mantentzen kontzentratu da. Hori, noski, rutinaz kanpoko lana da: eta, azken batean, era horretan gizatartu eta pertsekuzioan leial mantendutako Eliza baten sineskortasunak ahalitzen duena, gero ikusi dugunez. Eta iragarpenarekin batera, salaketa dator; baina lan hori ahaztu egiten da beti, ebanjelizazioa ulertzerakoan, baita *Evangelii Nuntiandi* izenekoan ere, nahiz eta ebanjelizazioaren tratamenduko beste kapituluetan hain garrantzizkoa den. Ulertzekoa da salaketa ebanjelizazio-modu bat izatea, galdakizun etiko itzuriez baten betekizun izateaz gainera: salaketa zuzenean pobreak defendatzeko egiten bait da, eta, *sub specie contrarii*, zapaltzailei ere berri ona eskaintzeko.

Ebanjelizazio-ekintzei dagokienez, halakoak dira berri ona errealitate on bihurtzeko ekintza guztiak. Milagroak eta exortismoak, txanpon bakar baten bi alderdiak, zer dira, bada, errukia praktikan jartzea besterik? Sufrimendu konkretuaren maila berehalakoetan eta errealitatearen berrikuntzako maila egiturazkoetan, errukia praktikan jartzea. Ebanjelizazioa, orduan, mota guztietako morrontzen liberazio bihurtzen da, eta Jainkoaren erreinuaren betekizunerako gai. Ebanjelizazio hori, ordea, pobreen artean egikaritzen denez, liberazio historikoa funtsezko kinka bihurtzen da, beste guztientzako nahi litzatekeen zintzotasunaren egiaztapen-erizpide eta —kristauki egikaritzen bada— beste guztien funts eta galdakizun.

Guzti horren erakuskari ugari eman du Eliza ertamerikarrak. Berri onaren iragarpenak pastoraleko bilera eta berrantolaketa kontaezinak suposatu ditu, doktrinazko dokumentuak, giza laguntzazko erakundeen sorketa, errefuxiatu-zelaien zuzendaritza, komunikabide sozialen berrantolaketa, eta abar luze bat. Artzain-gutun eta homilietan eta giza eskubideen erakundeak sortuz egin da salketa, Jainkoaren borondatearen izenpean pasa nahi zena agerian jarriz eta eztabaidak sortuz. Hierarkiak egin du behin baino gehiagotan berriemate nahiz salaketa hori, baina baita eliz komunitateek eta bertako pastoral-eragileek ere. Errealitatea pobreen pobretasunetik epaituz eta horien aldeko egitura-aldaketa larriak proposatuz, liberazioaren elementu historiko berria sartu egin da Elizaren egitekoan. Halako une garrantzitsuetan, pobreen alde borroka egin behar dela erabaki da, herriaren organizazioa, eta, kasu benetan muga-mugakoetan, diktadura krudel eta iraunkor baten kontrako errebolta herritarraren legezkoatasuna ere bai, hala Nikaraguako kasuan.

Guzti honen atzetik dagoen gauzarik garrantzitsuena, zera da: Eliza salbaziozko sakramentu benetakoa bezala ulertu behar dela, eta salbazioan sartu behar direla pobreek, beren errealitatearen halabarharrez, salbazio bezala galdatzen dituzten elementuak; Elizaren egitekoa benetakoa ebanjelizazio bezala ulertu behar dela eta ez bakarrik doktrina baten, ondotik ekintza onak ekar litzakeen doktrina baten, transmisio huts bezala.

c. Jesusekin hil gurutzean

Hala gizatarturiko eta gisa horretako ebanjelizatzaile bihurturiko Eliza, masiboki eta gordinki pertsegitu da Ertamerikan. Gertaera horretan **Jesusen pertsonaganako leialtasun gurutzeraino-koaren segimendua** erreproduzitzen du. Ezagutzen ditugu datuak: Hogeitamar baino gehiago apaiz, erlijioso eta erlijiosa, horien artean artzapezpiku bat (Romero App. Jn.), asesinatu dituzte; beste asko laidoztatu, eraso, atxilotu, torturatu eta erbeste-ratu dituzte. Guatemalan elizbarruti oso bat abandonatu egin behar izan zuten; eta Gerardi App. Jn., Apezpiku-Konferentziaren presidentea, herritik erbesteratua izan zen. Enbor hezeari hori gertatu bazaio, pentsa daiteke zer ez ote zaien gertatu katekista, delegatu eta hitzaren zelebraztaileei, nekazariei batez ere, langileei, etab. Horien artean, milaka kontatzen dira biktimak.

Pertsekuzio honek sustrai historiko sakonak ditu, eta, zentzu horretan, gizakunde kontsekuentearen adierazpena besterik ez da,

Jesusen gurutzeta ere interpretatu den bezalatsukoa. Enbarazu eta traba egiten duelako pertsegitzen da Eliza. Medellín bukatu eta laster, Eliz mota horren aurka erne egoteko gaztigatzen zuen Rockefeller txostenak, esanez, egia bihurtuko balitz, arriskuan jarriko lituzkeela Estatu Batuetako interesak. CIAk ere lagundu egin du pertsekuzio hori; horren dokumentazio esplizitorik ere badago, Boliviako kasu ezagunean, adibidez. Reagan presidentearen kontseilariak berriro eraso diote Santa Fe-ko dokumentuan. Kanpotik Elizaren aurkako gaztiguak ematen ibili badira, bertan bertako oligarkiak, armadak eta gobernuak adeitasun gutxiagorekin ibili dira. Elizaren pertsekuzioa izan da, batez ere, liberatu nahi duen herriari idoloek eman dioten erantzuna. Errepresio orokorrago baten forma bat besterik ez da pertsekuzioa, nahiz eta koalitatiboki inportantea den, eta erabakiorra, gainera. Elizak traba egiten du: autoritatea eta justifikazio erlijiosoa kentzen bait dizkio *statu quo*-ari, eta bizirik mantentzen bait du pobreen esperantza; itxuraz, gauza sinplea dirudi horrek; baina, benetan, asaldagarria da: zeren poza bizirik mantentzeko ere gai diren pobre itxaropendunak ez bait dira herri menperatua. Horretarako egiten da pertsekuzioa: liberazio-prozesuak geratzeko edo ezabatzeko. Horregatik, baita, pertsekuzioa nabarmena eta baldarra bait da, zeharka ere eraso egiten da Eliza, sekta alienatzaileak lagunduz eta finantzatuz eta erakunde berriak sortuz: adibidez, Washington-en sortu zen Erlijio eta Demokraziarako Institutua, kristautasun liberal batera itzultzeko asmoarekin egin zen.

Pertsekuzioa kristauki begiratzuz gero, Jesusen segimenduaren kontsumazioa adierazten duela esan behar da. Elizari ere, Jesusi gertatua bera gertatzen zaio, eta arrazoi berengatik: pobreen alde eta horien defentsan, eta ahalguztidunen aurka egindako aukeragatik. Jesusi bezala, blasfemia erlijiosoaren eta subertsio politikoaren salaketa egin diote eta ondorio beretara heldu dira: hiltzeko hoberendun da. Pertsekuzio horrek, ordea, Eliza honen egitatea egiaztatu eta horren haragitan osatu egiten du Kristoren nekaldiari falta zitzaiona: horrela, Kristoren benetako gorputz eginez doa historian zehar; maitasun handieneko ekintza egiten du, bizitza lagungatik ematekoa, eta hala, santu eginez doa.

Pertsekuzioak, Jainkoaren aurrean jartzen du berriro Eliza. Ustegabeko hori beretu egin behar du lehengo, hots: mendebaldeko mundu kristauak pertsegitzen duela, eta, pertsegitu ere, balizko balio kristauen aitzakian pertsegitzen duela; guzti hori Jainkoaren ulerpena berriro benetan planteatzeko modukoa da. Baina, sakonago begiratuta, pertsekuzioak Jesusen gurutzeko bakardadean

parte har erazten dio, haren otoitz agonikoan, Jainkoarenganako Leialtasunean, Jesusek Jainkoaren isiltasuna besterik jasotzen ez zuen arren. Hemen Jainkoaren esperientzia sakona ematen da, eskandalotsua berez, baina garbitzailea. Eliza Jainkoarekiko leial eginez doa, hebraitarrei egindako Gutuneko apaiz gorenaren negar eta aieneen artean.

d. Jesusekin berpiztu alaitasunean

Eliza gurutziltzatu horrek Jesusen **berpizkundera** ere bizi du. Berpiztu moduan biritzea, Jesus berpiztuaren Izpirituarekin historiaren baldintzetan biritzea baino ez da. Jesus hori berriro agertu zaio, gurutziltzatuaren zauriekin noski, baina baita ere bizia ematen duen, gauzak birsortu eta berriro egiten dituen Izpirituarekin.

Eliz barruan Izpiritu hori inoiz ez bezalako sorketarekin azaltzen da pastoralean, liturgian, teologian eta doktrinan. Izpiritu horrek bateratu egin du Eliza eta honen barruko estamentu guztiak: gotzai eta nekazari, apaiz eta intelektual, erlijioso eta langile. Izpiritu horrek ireki egin du Eliza beste konfesioekiko eta, ondorioz, ekintzako benetako ekumenismoa gertatzen ari da.

Izpirituak libertatea eman du: ez primarioki, norberarentzako libertatezko zentzu liberalean, baizik eta ebanjelioa izpiritu bihurtzeko moduan, letra doktrinagai baino lehenago; horregatik, ebanjelioaren ulerpen berritzaile baina leial sakon-sakona egin da. Batez ere, maitatzeko libertatea da; maitasunez eman eta norbera ematekoa. Beste guztiak zerbitzatzeko, bere burua menpeko egiten zuen Paulo haren libertatea da, eta Jesus haren libertatea, zeinari ez bait zion inork kendu bizia, berak eman zuen eta libreki.

Izpirituak pozgarritasuna eman du. Gizakundearen eta pertsekuzioaren erdian, berriro ere pozaren eta alaitasunaren paradoxa ebanjeliko hura gertatu da. Berri on bati, pozez bakarrik erantzun dakiok: tautologia garrantzitsu horixe da berreskuratu dena. Bitxi preziatu eta altxor ezkutatu bihurtu da ebanjelioa; aurkitzen direnean, guzti-guztia galda dezaketen bitxi eta altxor, baina, ordainez, bizitzarako eta heriotzarako zentzurik sakonena eskaintzen dutenak. Horregatik, hurbiltzen direnetako askok egiaztatzen duten bezala, kristau ertamerikarrak ez dira gizon tristeak; alderantziz, duintasun, esperantza eta poz beteko gizon eta emakumeak dira; larrituta daude, baina ez akabatuak. Beren gurutzeetan gurutziltzatuaren irudia ematen dute, bai, baina berpiztuaren izpiritua ere azaltzen dute. Berpiztutako Eliza hau oparotasunez erlazionatzen

da Jainkoarekin. Ez da bizitzaren Jainkoa sinetsi eta hari erantzutera mugatzen, nahiz eta, hasieran, horretan murgiltzen den eta hori mantentzen duen ardatz bezala. Benetan Jainkoa sinesten du, fidatzeko moduko Aitaenez eta beregana erakartzen duen eta bidea erakusten duen Utopia den neurrian. Jainko Aita sinesteak esan nahi du, beragan atsedean hartzea eta bere Aita-izaeran kristau-bizitzaren asken eredia ikustea: "Izan zaitezte guztiz onak, Aita zeruetakoa on den bezala" (Mt 5,48). Jainkoa Utopia bezala sinesteak esan nahi du, historian egiten hain zailak eta hain batez azinak gertatu diren errealitate utopikoak historikoki egikaritzera deituak eta bultzatuak garelako sentitzea: justizia eta libertatea, borroka eta bakea, egia eta errekontziliazioa. Bestela esanda, Eliza honek Jainkoaren oparotasuna sinesten du, horregatik, ordea, Jainkoaren borondatean oinarritzakoa izaten jarraitzen duenik, pobreen bizitzarik, erlatibizatu gabe. Jainkoarekin eta Jainkoagantz, ibili dabil historian. Fede sakon horren azken erroa, honetan datza: Elizak pasa duela pertsekuzioaren proba eta bere fedea literalki martirien odoletan sustraitua daukala.

1.3. Ebanjelioa ertamerikartu egin da

Hau da Eliza ertamerikarraren berritasun historiko eta telogikoa. Hitz bakar batean laburtu behar bagenu, esango genuke, ebanjelioa ertamerikartu egin dela. Sinestunek ez dute jadanik beren identitatea maileguan eskatu beharrik, ertamerikarra ez den zerbaiten sinestun bailira. Ebanjelioak zuzenean hitz egiten die. Ebanjelioaren edozein bitarteko onartzen eta bedeinkatzen dute, kanpotik datorkiela ere; baina sakonekoena ez datorkie kanpotik, Europatik nahiz Iparramerikatik, barru-barruan duten intimoenari dagokion zerbait bait da. Berritasun hori garaikoa da eta horregatik giltzatzen dira hain ondo historikotasuna eta ebanjelikotasuna, horregatik dihardute elkarri bultzatzen eta oihartzun egiten, elkarrengandik urrunduz edo elkar murriztuz ibili beharrean. Horregatik aipa daiteke Elizaren berpizkunde, Elizaren behetiko, Ertamerikatiko, berrasmaketa (L. Boff).

2. Ertamerikako Elizaren errealitatea, problematika eta etorkizuna

Orain arte Eliza ertamerikarraren berritasunaz hitz egin dugu. Berritasun hori egiazkoa da: orain hamabost urte zenaren aldean,

oso desberdin bihurtzen bait du eta existitzen bait da. Existitzen ez den tokietan ere, bere ausentziagatik nabari da eta, beraz, Eliza izateko modu desberdinak epaitzeko eta tipifikatzeko erizpide bihurtu da, gutxienez.

Gaur bertan inboluzio bat ematen ari da Medellín-goari eta deskribatu dugun Eliz motari buruz, eta Eliza horren heldutasun-maila bat ere bai. Beraz, galdera sortzen da: Eliza hori zenbateraino ote den egiazkoa historikoki, eta zeintzu ote diren Eliza izateko bestelako motak. Tipifikatzeagatik, bi erizpide aukeratuko ditugu Medellinetik hasitako Elizaren sorkundearen arabera: erizpide historikoa bata, errealitate historiko ertamerikarrarekin erlazionatzen den neurriaren arabera; eta erizpide teologikoa bestea, pobre-erandiko Eliza egituratzen denaren arabera.

2.1. Erizpide historikoa: justiziazko borrokaren aurreko jarrera

Erizpide historikoa ezin izan liteke gehiengo herritarrenganako justizia besterik. Baina baieztapen horrek, ia guztiek onartzen dutenez, ez du asko laguntzen, berez. Gehiago laguntzen du beste erizpide honek: alegia, tokian ematen diren liberazio-mugimendu egiazkoen eta erreboluzioan justiziaren aldeko borrokaren erizpide konkretuak. Tipifikatzeko lagundu egiten du: horien aurrean, izan ere, banandu egiten bait dira izpirituak.

I. Ellacuríak zuzen ezaugarritu duen bezala (berari jarraitzen diogo azterketa honetan), injustiziaren eta errepresioaren erdian eta erreboluzioen erdian, hiru jarrera posible daude: a) "Edozer gauza nahiago komunismoa baino", b) "ez hau eta ez bestea", c) "injustizia eta bortxakeriazko egoerarekin bukatzeko behar diren neurri guztiak hartu behar ditugu geure gain".

a. "Edozer gauza nahiago komunismoa baino"

Lehen jarrera ez da oso esplizituki adierazia azaltzen, nahiz eta praktikan horren aldera jotzen duten apezkiku batzu: asaldakuntzaren kontrako gerrak bedeinkatza iristen dira, eta Nikaraguko apezpikuak ere sandinismoaren aurka azaltzen dira. Jarrera horren bereizgarri nagusia, zera da: komunismoa intrintsekoki haizto ikusten duela, materialista, ateo eta Elizaren arerio adiskiduezin izateagatik. Reagan-en teologia da hau, zeinaren arabera hobe bait da haur bat goseak hiltzen uztea, hari fedea galeraztea

baino; Nikaraguako apezpiku batek ere Teologi modu hori errepikatzen zuen. Lehen deskribatutako Elizaren benetako heriotza dakar jarrera honek. Ez ditu miseriaren oihuak eta esperantza oinarritzat eta nagusitzat hartzen baizik eta aurreritzi ideologiko batekin hasten da eta hori hartzen du jarraibide, gero errealtate horren arabera epaitzeko eta Medellín-*ez* gero erlatibizaezina dena erlatibizatzeke.

b. "Ez hau eta ez bestea"

Bigarren jarrera, normalena da eta muga zabalen barruan hedatzen da. Ez ditu nahi oraingo errealtatea eta etor litekeen erradikalismo iraultzailea. Gauza onak eta inportanteak egiten ditu: giza eskubideak defendatzen ditu, pastoralta asistentziala eta humanitarioa, zapalkuntza eta errepresioa salatu egiten ditu —etikoki, profetikoki baino gehiago—; arrisku batzu ere jasaten ditu Eliza denez, eta oinarriko komunitateak ere laguntzen edo ametitzen ditu, politizazio gehiegirik ez duten bitartean. Bestalde, gobernu eta are armadekin onera egoten saiatzen da, kalte larriagoak saihestearren; demokratizazio formalezko prozesuak apoiatu egiten ditu, espero izanik errealtate izatera iritsiko direla eta ez dela aurkituko soluzio bakarra erreboluzioan izango lukeen posibilitateari aurre egin beharrean; erreformak ere apoiatu egiten ditu. Kritikatu egiten ditu mugimendu erreboluzionarioak: benetan gaizki egiten dutenean, jakina; baina, gainera, haien kontrako *a priori* moduko bat azaltzen du, nahiz eta onartzen duen haien borrokaren zergatian badagoela gauza zuzenik. Gaur, aipatutako alderdi onak mantenduz ere, mendebaldeko mundu demokratikoa ez kuestionatzera eta erreboluzioez errezelatzera alderatzen da nabarmenago.

c. "Arriskatu beharra dago"

Hirugarren jarrera, urriagoa da. Romero App. Jn.ak, komunitate herritarretako askok eta hauekin lanean ari direnek defendatu zuten kontsekuenteki. Nikaraguako apezpikuek ere defendatu zuten Somozaren aurkako insurrekzioa onesterakoan, nahiz eta, ez da ahaztu behar, somozismoak ez zuen Elizarengan oztopo benetakorik aurkitu azken-azkenean ezik. Eliza hau ez da ez CELAMen, ez Vatikanoren, ez nuntziaturen gustuko. Ez da ingenuoa mugimendu iraultzaileen aurrean; ez ditu bere egiten haien puntu ideologiko asko, eta haien iharduketa guztiak ere ez: ez, noski, ekintza terroristak. Baina haiengan ikusten du bestalde-

koengan baino zerbait zuzenagorik, eta haien borrokaren funtsezko balio asko gizartean sartu beharra ikusten du, gizarte hori pobrentzako onargarria eta zuzena izan dadin. Salvadorren gatazka horren soluziobide negoziatu bat bilatzen ari dira gaur eta horrek —teorikoki behintzat— Herri horren soluziobidean erreboluziotik hartutako dezente sartzea suposatzen du. Eliza honek —ingenuitaterik gabe, berriz ere— ez du absolututzat jartzen, erreboluzioak garaile irtengo balira, Elizari etorriko litzaiokeena, nahiz eta horrek pribilegioen galera edo bere egitekoaren murriztapenen bat ekarri. Prozesu politiko eta erreboluzionarioak epaitzeko erizpidetzat ez du bere burua jartzen, etorriko litzaizkiokkeen abantailak nahiz kalteak, baizik eta gehiengo herritarren mesedea. Eta trukean prezioaren bat pagatu beharko balu, ondo ordaindutzat emango luke, eta, nolana ere, Elizaren penitentziatzako ekarpena historiaren ordainez prezio hori emateko.

d. Biolentziaz

Komunismoarekiko jarreraren bezala, biolentziaren aurreko eritzia ematerakoan ere, zatitu egiten da Eliza. Agi denez, inongo Elizak ez du, printzipioz, gerra baten muturrerainoko biolentziarik nahi izaten edo laguntzen, hots: izatez eta zuzenki suntsipena, herioa eta desgizatartzea adierazi nahi dituen gerrarainoko biolentziarik. Biolentzia eta bere kausak hor daude, ordea, eta az dago ignoratzerik. Egoera horren aurreko jarrerarik orokorrenak dioenez, “biolentzia txarra da, datorren letutik datorrela”. Hala ere, badirudi lehen Eliz motak onartu egiten duela biolentzia, erreboluzioen aurka borrokatzen duten gobernu eta armadetatik datorrenean. Hori da Nikaraguako hainbat apezpikuren eta inguruko beste apezpiku batzuren kasua gaur: Estatu Batuan iharduketaren aurrean (Hondurasko militarizazioa, Salvadorko ejertzitoen apoioa eta kontrei emandako laguntza Nikaraguan), ez bait dute biolentzia hori interbentzioaren masibotasunari eta suntsiketari dagokion intentsitatearekin kondenatzen.

Hirugarren Eliz mota zuhurregoa eta zehatzagoa da biolentzia kondenatzen. Ez du besterik gabe esaten, biolentzia datorren lekutik datorrela txarra denik: Printzipioz legitimo ere izatera irits bait daiteke eta, batez ere, hori ohikeriaz errepikatzea ez bait da oso erabilgarri pastoralaren orientabidean, eta estaltzaile izatera ere irits bait daiteke. Egiten duen aurreneko gauza, Romero App. Jn.ak bezala, biolentzi mota desberdinak tipifikatzea eta hierarkizatzea izaten da, eta ondoren epaitzea. Biolentzien artean lehena,

funtsezkoena eta gaiztoena, egiturazko biolentzia da; Medellín-ek dioen bezala, benetako "biolentzia instituzionalizatua". Bigarrena, beste horren zerbitzuan jartzen dena da, ekintza biolentoei: ejertzito, segurtasun-gorputz eta banda paramilitarren biolentzia zapaltzailea. Hirugarren mota, erantzunezko biolentzia izaten da, talde liberatzaile eta iraultzaileena, neurririk gabeko ekintza biolentoak egiten dituztenean eta terrorismoa egiten dutenean areago, noski. Biolentzia kondenagarri horien ondoan, eta ordena horretan emandakoen ondoan, ametitzen du, printzipioz, Elizaren doktrina tradizionallean (*Populorum Progressio* eta Medellin-go doktrina) oinarriturik eta berak jarritako baldintzetan, biolentzia legitimo bat ere izan daitekeela, adibidez, asaldakuntza herritarren modukoa. Konkretuki, hala jokatu zuten Nikaraguako Apezpikek beren egunean, eta hala proposatu zuen doktrinalki Romero App. Jn.ak.

Harridura ere sor lezake, tipifikazio-erizpidetzat, erreboluzioen eta biolentziaren aurreko jarrera aukeratzeak; baina garrantzitsua da, errealitate horiek existitu egiten bait dute eta izpirituak, benetan, banandu egiten bait dituzte. Era berean, hori da Eliza nola gizatartzen den ikusteko modu historikoa, nahiz eta tragikoa: errealitatea den bezala hartuz ala sotiltasunez eta zakarkeriaz horretatik urrunduz, nola gizatartzen den ikusteko modua. Izatez, Elizaren zati txiki batek bakarrik aurre egiten die zuhurtasunez eta ausartasunez problema horiei.

Baina esan behar da, gainera, Elizaren zati hori problema horiei kristauki aurre egiten saiatzen dela. Ez ditu erreboluzioak, ohizkoena den bezala, aurrez, *a priori*, bedeinkatzen ez gaitzesten; oso bestela, zeinnahi borroka-mota ondo aztertzen eta izpiritu kristauez bizitzen saiatzen da, Romero App.ak bere exenpluz erakutsi zuen bezala. Erreboluzioari dagokionez, Romero App. Jn.ak positiboki azpimarratu zuen, eragile nagusitzat herria izango zuen errotiko aldaketa autentiko baten beharra. Horregatik, Rivera App. arekin batera, erakunde herritarra defendatu eta sustatu zuen; beti, ordea, ikuspuntu kristauek begiratuta: positiboki, erakunde herritarra gehiengo herritarren zerbitzuan eta bere alde egon zedin, benetako maitasun-adierazpen izan zedin; negatiboki, honelako mugimenduek berekin izan ohi dituzten tentazioak gaindi zitzaizaten, hau da: bazter utz zitzaizaten alderdikeria, protagonismoa, leaderrek herriaren tokia hartzea, dogmatismoa, guztia organizatzea murriztea eta erlijioa manipulatzeko.

Biolentziari dagokionez, aldaketa orok benetako borroka darrak esaten zuen, teoriarik borroka armatura ere iritsi zitekeela.

Baina beti ere borroka-bide baketsuak erabiltzeko intsistitu zuen, elkarriketa jarri zuen beti gatazka konpontzeko modurik onena bezala, eta kondenatu egin zuen berak "biolentziaren mistika" deitzen zuena. Batez ere saiatu zen, eta guztiei galdatu zien horretan ahalak eta bi egin zitzaten, asaldakuntza legitimo baten kinka larri-iritsi beharrik gerta ez zedin.

Nolanahi ere, behin eta berriro errepikatzen zuen, kristauak izpirituz bizitu behar dutela edozein prozesu: errukia, benetako sufrimenduaren aurrean, herriak ordaindu beharreko prezioztatu hartu gabe, besterik gabe; sendotasuna, sufrimenduaren eta zapalkuntzaren aurrean; begiratu garbia, prozesuak datozen bezala datozela ikusteko moduan, horiei buruz nor bere burua edo beste inorena engainatu gabe; herriaren kontzientziarekiko begirunea, batez ere haren kontzientzia erlijiosoarekikoa; esperantza, garaipekin konkretuz bakarrik ez eta Jainkoaganako fedez hazten dena; adiskidetze-bakeen aldeko lana eta etsaiari etorkizunik ez ixteko moduko barkamenerako irekitasuna, hori gabe ez bait dago iraun dezakeen herririk. Horrek eskatzen du, prozesu horiek izpirituko kristauaren baitatik gizartu behar direla eta baita ere —espresio tragiko baina beharrezkoa— gatatzak gizartu egin behar direla.

Elizaren berezkoena ez da erreboluziotan, eta are gutxiago biolentzian, trebatua izatea. Baina Ertamerikan historikoki itzuriezin gertatu diren eta benetan existitzen duten errealtate horiekiko jarreraren zuzen batek sineskortasuna erantsiko dio munduarekiko erlazioaren ezaugarritzat duenari berari: kristau liberaziozko bere mezu propioa, bere iharduera positiboak justiziaren alde (giza eskubideen defentsa, aldaketa erradikalen proposamenak, lan humanitarioa, etab.) eta bakearen alde (dialogoa eta adiskidetzea, bide baketsuen erabilera), bere kritika erreboluzioen alderdi mugatu eta bekatzukoari eta biolentziaren mistikari. Errealitate horien aurrean ere zuzen mantentzen den Eliza batek adierazten du, ez dela benetan bere buruaren alde ari, Jainkoaren erreinerako bidean eraldatu egin behar duen mundu baten alde baizik; ez diola bere izakitasunari uko egiten, edozein gizakiri dagokion berari ez bailegokio; ez dela triunfalista, berak arazo guztietarako erantzun egokiak bailitu eta historiak anbiguotasunez duen horretan gizartu behar ez balu bezala.

2.2. Erizpide teologikoa: pobreen Elizarekiko jarrera

Eliza tipifikatzeko erizpide teologikoa, pobreen Eliza edo Eliza herritarra deitzen denarekiko jarrera izan ohi da. Positiboki eta

idealki hori zer izan daitekeen aztertua dugu lehen partean. Baina Eliza izateko modu horrek ere zatibanatu egiten du.

Ezin da ukatu pobreen Eliza horren berritasuna, eta horrek dituen kostuak. Eliza hori exigentea da, beregan pertsekuzioa eta martirioa gertatu ohi dira, horren bidez itzulikatu egiten dira gobernuekin nahi diren ohizko erlazio onak, etab. Hor dago problemaren funtsa, nahiz eta Eliza herritarra inspirazio marxistadun eta antihierarkikoa eginez berrinterpretatu nahi izan den. Bi salaketa horiek, gehiegikeria posiblerik izan denik ukatu gabe, funtsean okerrak dira; aitzakia huts dira, Eliza desautorizatzeko arrazoi baino gehiago. Problemaren funtsa, exigentziez gainera, zera da: Eliza horrek, berri izateagatik, hasierako ezjakintasuna eta intsegritatea sortzen dituela barneko organizazioan eta Elizaren pastorean. Grafikoki esanez: ez da hasieratik erraza gertatzen apezpiku, apaiz, telogo, etab.ek nolako izan behar duten "jakitea", pobreek hitza hartu duten Eliza batean.

Aurreko tipifikazioaren arabera lehen multzoak kondenatu egiten du Eliza herritarra; hala egin dute Nikaraguako apezpiku askok, harekin dialogorik ere hasi gabe. Egia da, bai, kristau askoren artean ez dela falta fede kristauaren eta sandinismoaren arteko identifikazio exageraturik.

Bigarren multzoak lagundu egiten ditu oinarriko komunitateak, Eliza herritarraren konkrezio garrantzitsu horiek, profil politiko apalean mantentzen diren bitartean; edo jasan egiten ditu, tentsio handiago edo txikiagoekin. Hori da ia area osoan gertatzen dena.

Hirugarren multzoak eutsi egiten dio Eliza herritarrari buruzko Medellín-go jatorrizko intuizioari, Pueblak ere koalifikatu eta ukatu ez zuenari: alegia, "kontinenteko medio herritarretan gizaratzea bilatzen duen eta, beraz, talde horiek Jaunari ematen dioten fedezko erantzunetik sortzen den Eliza bat" dela (263 zk.). Nahiz eta Eliza horrek problema asko ekarri, eta bere bekatu eta muga-pen eta guzti, komunitate horiek Jainkoak Elizari egindako emaritzat hartzen dira, pastoralaren, liturgiaren eta teologiaren dinamizatzailetzat eta balio kristau garrantzitsuak, entrega eta eskuzabal-tasunezko exenpluak, ikasteko tokitzat.

Eliza izateko modu desberdinak tipifikatzeko aukeratu ditugun bi erizpideak elkarrekin erlazionatzen dira. Erizpide historikoak nahiz teologikoak gizaratean benetan gizatartzea ala haren-gandik segailtasunez ihes egitea auresuposatzen dute. Azpimarra-

tu behar da, ordea, Ertamerikako mundu errearentzako erantzun zuzena dela printzipioz pobreen Eliza, erreboluzioetan dagoen zuzenena jasotzen duena eta haien alderdi mugatu eta bekatuzkoa sendatzera jotzen duena. Ez da harritzekoa, beraz, ia beti kristautaldea berak izatea tipifikazio beretan erortzen direnak, erizpide historikoa nahiz teologikoa hartzen dutela ere.

2.3. Pobreen Eliza, geroari buruz

Pobreen Eliza, hasieran idealki azaldua eta historikoki hirugarren taldearen bidez errepresentatua, da aurreko historiarekiko berritasun handienekoa; eta aski handia da, anekdota huts bezala ez baino errealtate eklesial eta sozial bezala hartua izan dadin. Hala ere, txikia da, Eliza izateko beste formekin konparatuz. Txikitasun hori, ordea, ondo ulertu behar da. Ez da "sekta" itxi bat, ez "diaspora" bat (Rahner-ek sekularizazio-prozesu trapaladatsuko mundu europar bateko Elizari profetizatzen zionaren antzera), baizik eta "legamia" da, hots: txikia, baina Elizaren osotasunean gizatartua eta Eliza osoaren legamiatzailea. Historikoki, Eliza bizi den edo bizirik irauten duen tokia izateaz gainera, haziz doan tokia da; beraz, ertamerikar izaten jarraitu nahi duen eta errealtate ertamerikarrari erantzun nahi dion Eliza baten etorkizuna da.

Elizaren etorkizun horri, elkarren kontrako bi mugimendu indartsuk eragingo diotela aurrakusten da. Alde batetik, inboluzioak eta, bestetik, pobreen Elizaren heldutasunak eragingo diote.

a. Erreakzio inboluzionistak

Eliza ertamerikarrak parte hartzen du Eliza latin amerikarraren eta unibertsalaren inboluzioan. Oro har, ez da Vatikanoren eta Medellin-en une distiratsuak bizitzen ari, baizik, errestituzioan saiatzen ari da. Honako hauek dira inboluzio horren zeinu argi: a) apezpiku-konferentzien bidez segurtasun administratiboa bilatzen saiatzea: bat eginda azaltzen dira, nahiz eta horretarako bertako kideen arteko diferentzia larriak disimulatu egin behar dituzten: eta, era berean, lehen baino autoritarioago azaltzen dira, Elizaren oinarriekin lehen ematen zen dialogorik gabe; b) lehen eta bigarren multzoetako hariko apezpikuak izendatzea, Obando App.aren kardinalgo eman-berriak argi erakusten duen bezala; c) seminaristen formazioan ematen den segurtasun doktrinala, nahiz eta formazio pastoral eta akademiko eskasenetara ailegatzen den, Salva-

dor eta Nikaraguako seminarioetan bezala; d) hierarkiako ia kide guztiek askapen-teologiarekiko ez jakintasuna edo eraso, nahiz eta Rivera App.ak publikoan defendatu duen Salvador-en egiten den askapen-teologia; e) apezpikuen azalpenetako ortodoxiarako edo azterketa etiko hutsetarako joera, Romero App. Jn.aren garai bateko profetismorik gabea eta, neurri handiago edo txikiagoan, salatzen diren gaitzen handitasunari eta larritasunari dagokien praxirik gabea; f) tokiko problemak eta arriskuak epaitzeko eliz triumfalismo exageratua: printzipioz gaitz guztiak eta gaizkile guztiak kondenatzen dituen, baina egitez edo ez-egitez Elizak horretan izan dezakeen partetik errekonozitzea ez duena; g) errealitate historikoari buruzko eritzietako ideologizazio gehiegizkoa, azken finean, mendebaldeko mundua arriskutan ez jartzeko egiten dena; h) azkenik, eta oro har esanda, leafergo pastoral eta pastoral elkartuaren garapena eskatea, pastoral-forma tradizionalagoak eta ez hain gatazkatsuek bultzatuz.

b. Medellín-go izpirituari leial

Inboluzio honen aurrean, pobreen eta oinarriko komunitateen Elizak eta hauekin lanean ari direnek berriro diote, eutsi egin behar zaiola Medellín-go edo, gutxienik, Pueblako eliz erreboluzioari, nahiz eta errealistago egin diren eta egoerak aldatzen ari direla sumatzen duten, eta nahiz eta, beren buruaz erreflexionatuz, heldutasun-beharrean daudela ikusi duten. Hauek dira pobreen Elizaren iraupenaren eta heldutasunaren zeinu garrantzitsuak: a) pobreen aldeko hobespenezko aukera itzulezina egin dute, beren formulazioan behintzat, eta hori ez da gaitzestekoa; b) pobreen Elizaren autokritika, fedearen balio pertsonalak eta transzendentek sustatzen saiatzen dena eta sustatzen dituen, liberazioarekin erlazionatuz; c) komunitateen autonomia handiagoa mugimendu herritarrekiko; ez, noski, hauei itzuri egiteko, baizik eta fedearen espezifikotasunetik bultzatzeko; d) izpiritualitate benetako baten garapena, ebanjelikoa, historikoa eta herritarra, Jesusen segimendua eta berai aurrera eramateko behar den izpiritua azpimarratzen dituen, eta berdin, Jainkoaren erreinuaren aldeko dena eta Jesusen Aitarenganako fedea eta konfidantza, Elizaren barruko profezia eta berarekiko izate leiala; e) askapen-teologiaren heldutasuna, zeinak, Ertamerikan, liberazio-prozesuak bultzatzen bait ditu, baina, era berean, komunitateen egiazko fedea teologiarako biltzen eta prozesua bere gorabehera guztietan laguntzen ari bait da; f) erlijio-tasun herritar masiboari ematen zaion inportantzia berria, haren erritmoak errespetatuz eta denboraz aurreko ezarpenei itzuriz; g)

azkenik, oztopo guztien gainera, direla kanpoko (Elizaren barrutiko nahiz kanpotiko erasoak), direla barruko (bere mugapen eta bekatu bereziak), Eliza horrek aurrera egitea bera, zeinek erakusten bait digu bere fedea, esperantza eta karitatea sakon-sakonak direla.

c. Pobreen Elizaren nortasuna

Inboluzioaren eta Medellín-ekiko leialtasunaren arteko tentsioan murgildurik, ikusteko dago zein izango den Eliza ertamerikarraren etorkizuna. Oraingoan, ordea, esan behar da, pobreen Elizak bere nortasun propioa duela, eta horrek ematen duela etorkizunaz hitz egiteko aukerarik, hainbat gehiago probarik zailena garaitu bait du: izaki denez beregan duen mugapena gainditzea, alegia. Vatikanoko II.aren garaian gertatzen ez zen bezala, Elizari ez zaio orain goitik inposatzen edo besterik gabe ematen zuzendaritza (hierarkia eta teologia), eta, aldiz, behetik ere sortzen zaio oraingoan; errealitate objektibo bezala sortzen da: ez, ordea, lea-dergo nahitako bezala, eta ez hain pribatizatua. Inboluzio-mugimenduari, beraz, indar berri bat kontrajartzen zaio objektiboki; eta indar hori ez da, funtsean, pobreen artean sustraitutako ebanjelioa besterik.

Pobreen Elizak badu etorkizunik Ertamerikan. Erantsi nahi genuke, Eliza hori, posible izateaz gainera, beharrezkoa ere badela. Beharrezkoa da, lehenik, Ertamerikako errealitatearentzat. Elizak pobreen aldeko aukera egin baino lehenago, pobreek aukeratua zuten hura. Elizak eman dezake, eta, zenbaitetan, berak bakarrik eman dezake, bere ibiltze askatzaileari buruzko esperantza eta orientabidea. Ertamerikaren etorkizuna behatzen denean; ikusten direnean Salvadorko gerra-urte bukaezinak; Guatemalako beharrraldiak eta indigenen sakailaketak; Nikaraguaren kontra, hau da, hiru milioi gizakiren kontra, egin nahi den itomena; Hondurasko militarizazioa, haren sobiranotasunaren galera eta bere betiko pobretasuna... orduan, Elizak salbaziozko sakramentu bezala jokatu behar du, eta hori, pobreen Eliza gisa bakar-bakarrik egin dezake.

Gainera, Elizaren beraren etorkizunerako ere beharrezkoa da Eliz mota hori. Ikuspegi kristau batekin begiraturaz, ebanjelioa pobreen begiekin irakurtzen jarraitu ahal izateko modu estrukturala da Eliza hori; hau da, Eliza hori da ebanjelioa huts-hutsik irakurri ahal izateko eta ahalguztidunek horri berriro eskurik ez eransteko modua; edo, baita ere, ebanjelioa kulturalki eta giro huts bezala mantenduko duen baina jadanik Jesusen berri onarekin, bere sala-

keta eta galdakizunekin ikustekorik gutxi izango duen kristautasuneko Eliza izanberatu ez bihurtzeko modu bakarra. Beharrezkoa da, lehenengo munduko toki askotan tamalez eta hain ugari gertatzen ari dena gerta ez dadin: Jainkoaz, bere isiltasuna bakarrik atzitzen dela, edo kolera bakarrik: egia injustiziaren baitan estekatzen dutenen kontra errebelatzen den kolera. Bere muga eta guzti, pobreen Elizak presente mantentzen ditu historian ebanjelioa eta Jainkoa. Baina, gainera, pobreen Eliza batek bakarrik gordeko du, etorkizuneko gizartean eraginkor eta bizi jarraitzeko beharko duen sineskortasuna. Romero App. Jn.ak esan bezala, aldatetak emango dira Elizarekin nahiz Elizarik gabe. Baina ematen direnean, galdera izango da, ea zer egin zuen Elizak haietan. Honetan Elizak garbi eduki beharko lituzke gauzak, eta ez lituzke nahasi behar berehalako garaipen eta abantailak eta etorkizuneko mende-etako batailak. Ertamerikako Elizak erne jarri beharko luke lehen munduko toki askotan ematen ari diren Elizatiko urruntasunaren aurrean, berarekiko interes-faltaren, haren kontrako erasoak baino ere kaltegarriagoa den ezaxolaren aurrean, fedearen gainbeheraren aurrean. Bere buruari galdetu beharko dio, ea horrelakorik (hots Europako intelektualen, klase langilearen, mugimendu sozialen eta erdiko klasearen parte baten galerarik) hemen ez gertatzeko modurik onena zein ote den: mundu honetako botereen laguntza beharrezkoarekin, edo, gutxienik, haienganako erlazio normalekin, giro eta ordenu kristauak eduki nahi izatea den, ala, bestela, Medelín-ek proposaturiko bide ebanjelikoari jarraitzea den. Pobreen Eliza izango da luzarora Elizaren etorkizuna eta, agian, bere libertatea eta biziraupena humanoki bermatuko dituena: beharrezko arreta guztiekin, baina baita animo eta kritika kristauarekin ere, herriek, beren sufrimendu eta esperantzetan, bere liberaziozko mugimenduetan, lagun izango duten eta haiengana murgilduz, haien alde bizia ere emango duen Eliza. Nolanahi ere, hori guztia da Elizak Jesusen Eliza izaten jarraituko duelako bermea ematen dituen.

Euskaratzailea: Xanti Iruretagoiena

J. S.

LA IGLESIA EN CENTROAMERICA

L'EGLISE EN AMERIQUE CENTRALE

La ignorada Iglesia centroamericana se ha convertido en noticia, sea por su participación en los procesos revolucionarios unas veces, sea otras por la persecu-

ción de que es objeto, contando con numerosos mártires, entre los que destaca Mons. Romero. Más allá de estos fenómenos externos, que pueden constituir noticia periodística, debe constatarse el hecho de fondo que los sustenta: una Iglesia histórica y evangélicamente nueva, es decir, una nueva evangelización de Centroamérica y una centroamericanización del Evangelio.

El principio histórico y teológico fundamental que rige este hecho nuevo es el principio de una doble inserción: a) en la extrema prueba social, b) en la esperanza de liberación de los pobres. De este modo, haciéndose más pobre, Iglesia de los Pobres, la Iglesia se hace más cristiana, más evangélica, más liberada y liberadora, esperanzadora. Si hoy hay una Iglesia alineada a favor de los movimientos de liberación, este hecho debe ser interpretado, no como un posicionamiento de base política, sino como consecuencia de una opción primaria y básicamente teológica.

Y es que el dato fundamental del que es preciso partir en Centroamérica, no sólo histórica, sino también teológicamente, es la miseria humana y social que padece la inmensa mayoría, producto de estructuras injustas, violencia institucionalizada que sólo puede ser considerada como verdadero pecado contra la vida, contra la creación. Miseria significa muerte. Aspirar a la liberación significa también muerte: miles y miles de asesinados, torturados, desaparecidos. Es preciso, pues, optar por la creación o por la muerte, por el Dios que da la vida o por los ídolos que la aplastan, llámense capitalismo, seguridad nacional o como se prefiera. La alternativa no se presenta en Centroamérica, como ha podido suceder en Europa, entre fe en Dios o ateísmo, sino entre fe en el Dios de la creación o fe en los ídolos que despojan y oprimen la creatura. La Iglesia en Centroamérica ha descubierto en los pobres y recuperado esa creaturidad fundamental, ultrajada a diario en la muerte lenta o violenta de los pobres, ha aprendido a saberse creatura en este mundo y ante Dios, viviendo la esperanza de las creaturas que anhelan la luz de su liberación. Esta forma concreta de fe, fe de y en la creatura, es la que constituye el presupuesto y el fundamento de la novedad de la Iglesia centroamericana, que se traduce luego inmediatamente en actitudes prácticas correspondientes a la voluntad de un Dios dador de la vida: la encarnación con los pobres, el servicio al reino de Dios dador de la vida. Lo demás no es sino consecuencia de esta opción preferencial por la vida: la encarnación con los pobres, al servicio al reino de Dios de palabra y obra, la fidelidad a la persona de Jesús hasta la cruz y el martirio, el gozo de la resurrección. La gran novedad de fondo se resume, en definitiva, en que «el Evangelio se ha centroamericanizado».

Ciertamente no puede decirse que toda la Iglesia centroamericana se haya posicionado ya en este sentido. No puede olvidarse tampoco que los EE.UU. sienten amenazados sus intereses por una Iglesia tal (informe Rockefeller, documento de Santa Fe), que la CIA propicia la persecución y destrucción de estas comunidades cristianas (caso de Bolivia documentado explícitamente), o financia la difusión de sectas alienantes (Instituto para la Religión y la Democracia, Washington), para favorecer un cristianismo ajeno al proceso de liberación.

En Centroamérica pueden distinguirse tres tipos de Iglesia. No falta gente de Iglesia, como algunos Obispos de Nicaragua, para quienes es preferible «cualquier cosa antes que el comunismo» (teología de Reagan). Otros, los más, no aceptan «ni

esto ni lo otro», condenando por igual toda violencia sin distinción. La Iglesia que ha optado por correr los riesgos que sean necesarios para terminar con la situación de injusticia y violencia que padece Centroamérica es más escasa y se encuentra en una situación nada fácil: no satisface al CELAM, ni al Vaticano, ni a las Nunciaturas. Ni es fácil su posición frente a la revolución y la violencia, muchas de cuyas prácticas o cuya ideología no puede a veces compartir, sin dejar de ver en ella una necesidad y, sobre todo, más justicia que injusticia. Lo específico de la Iglesia no es ser experta en revoluciones: pero también ante éstas la Iglesia de los pobres se esfuerza en mantener una postura de honradez, consecuente con su mensaje de liberación cristiana.

Evidentemente ningún tipo de Iglesia desea ni propicia la violencia por sí misma. Pero la Iglesia de los pobres tampoco puede limitarse a repetir que toda violencia es mala por principio, venga de donde venga, repetición rutinaria que acaba resultando poco útil en la orientación pastoral, cuando no encubridora. Distingue, pues, los diversos tipos y causas de la violencia, jerarquizándolas, considerando como la primera y peor de las violencias la violencia estructural, verdadera «violencia institucionalizada» en expresión de Medellín. Frente a ella la violencia de respuesta de liberadores y revolucionarios puede ser legítima, aunque actos desproporcionados de los mismos sean también merecedores de crítica y de condena. La Iglesia de los pobres está presente en los procesos de liberación en cuanto confesora de valores cristianos, tratando de humanizar aquellos procesos desde el espíritu cristiano y también —expresión trágica, pero necesaria— de humanizar los conflictos.

Cara al futuro, la Iglesia de los pobres, para llegar a su madurez, deberá resistir al poderoso movimiento de involución que se extiende en la Iglesia en este momento: ataques a la teología de la liberación, nombramientos de Obispos y otros cargos eclesiásticos de signo contrario, intervención doctrinarizante en la formación de seminaristas, renuncia al liderazgo profético pastoral, etc. Por el momento cabe afirmar que la Iglesia de los pobres tiene ya su propia consistencia, que permite confiar en su futuro: vive, se nutre y se dirige desde su propia base, surge como realidad viva, no puesta desde fuera. Pero es que, además, en Centroamérica la Iglesia de los pobres es, no sólo posible, sino necesaria: antes de que la Iglesia hiciera su opción por los pobres, ellos ya habían optado por ella.

L'Eglise jusqu'ici ignorée d'Amérique Centrale se fait connaître aujourd'hui soit à cause de sa participation aux processus révolutionnaires soit à cause des persécutions dont elle est l'objet et en particulier de ses nombreux martyrs dont Mgr Romero est le plus connu. Mais au delà de ces phénomènes externes qui occupent les pages des journaux, il convient de reconnaître le fait fondamental qui les sous-tend: une Eglise historiquement et évangéliquement nouvelle, c'est à

dire une nouvelle évangélisation de l'Amérique Centrale ou une implantation de l'Évangile en Amérique Centrale.

Le principe historique et théologique fondamental qui régit ce fait nouveau c'est le principe d'une double insertion: a) dans l'extrême pauvreté sociale, b) dans l'espoir de libération des pauvres. C'est ainsi qu'en se faisant plus pauvre, l'Église des pauvres se fait plus chrétienne, plus évangélique, plus libérée et plus libératrice, porteuse d'espérance. S'il existe aujourd'hui une Église qui prend le parti des mouvements de libération, ce fait doit être interprété, non comme une prise de position politique, mais comme conséquence d'une option première à fondement théologique.

Le fait premier dont il faut partir en Amérique Centrale, non seulement pour l'histoire mais aussi pour la théologie, c'est l'extrême misère humaine et sociale dont souffre là-bas l'immense majorité de la population à cause de structures injustes, de la violence institutionnelle qui doit être considérée comme un véritable péché contre la vie et contre la création. La misère signifie la mort. Aspirer à la libération signifie aussi la mort: milliers d'assassinats, de tortures, de disparitions. Il faut donc opter pour la création ou pour la mort, pour le Dieu qui donne la vie ou pour les idoles qui la détruisent, qu'il s'agisse du capitalisme ou de la sécurité nationale comme on veut. L'alternative ne se présente pas en Amérique Centrale, *comme elle a pu le faire en Europe, entre foi en Dieu et athéisme, mais entre foi au Dieu de la création ou foi aux idoles qui dépouillent et écrasent la créature.* L'Église a découvert en Amérique Centrale et revendiqué le caractère fondamental de créature divine de la personne du pauvre, ce caractère qu'outrage chaque jour la mort lente ou violente des pauvres. Elle a appris aux pauvres à prendre conscience de cette dignité de créature en ce monde et devant Dieu, en vivant dans l'espérance des créatures qui attendent la lumière de la libération. Cette forme de foi *en et de* la créature constitue le présupposé et le fondement de la nouveauté de l'Église d'Amérique Centrale, foi concrète qui se traduit ensuite immédiatement en attitudes pratiques correspondant à la volonté d'un Dieu source de vie. Tout le reste n'est que la conséquence de cette option préférentielle pour la vie: l'incarnation parmi les pauvres, le service du royaume de Dieu en paroles et en actes, la fidélité à la personne de Jésus jusqu'à la croix et le martyre, la joie de la résurrection. La grande nouveauté de fond se résume en définitive en ceci que l'Évangile a reçu la marque de l'Amérique Centrale.

On ne peut évidemment pas affirmer que toute l'Église d'Amérique Centrale a pris cette position. On ne peut oublier non plus que les États-Unis sentent leurs intérêts menacés par une telle Église (rapport Rockefeller, document de Santa Fe), que la CIA favorise la persécution et la destruction de ces communautés chrétiennes (cas de la Bolivie formellement établi), ou finance la diffusion de sectes aliénantes (Institut pour la Religion et la Démocratie, Washington) afin de développer un christianisme opposé au processus de libération.

En Amérique Centrale on peut distinguer trois types d'Église. Il n'y manque pas de gens d'Église, tels que certains évêques du Nicaragua pour qui tout est à préférer au communisme (théologie de Reagan). D'autres personnes — la majorité — ne veulent ni ceci ni cela et condamnent également toute violence sans

distinction. L'Eglise qui a choisi de courir les risques nécessaires pour en finir avec l'injustice et la violence dont souffre l'Amérique Centrale est moins nombreuse et se trouve dans une situation difficile: elle ne plaît ni au CELAM, ni au Vatican, ni à ses Nonces. Mais sa position devant la révolution et la violence n'est pas facile non plus car elle ne peut parfois ni admettre certaines pratiques ni épouser telle idéologie dont elle reconnaît portant la nécessité et où elle voit surtout plus de justice que d'injustice. Ce n'est pas le propre de l'Eglise d'être experte en révolutions, mais en présence de ces révolutions l'Eglise des pauvres s'efforce d'avoir une attitude de probité conforme au message de la libération chrétienne.

Aucun type d'Eglise ne désire ni ne favorise évidemment la violence pour elle-même. Mais l'Eglise des pauvres ne peut se contenter de répéter que toute violence est mauvaise, d'où qu'elle vienne, selon une formule routinière qui finit par ne plus avoir aucune signification pastorale, sinon par recouvrir une attitude de complicité. Elle distingue donc les divers types de violence et leurs causes diverses, pour les classer et pour considérer comme la première et la pire des violences la violence structurelle, véritable "violence institutionnelle", selon l'expression utilisée à Medellin. En face, la violence contraire des libérateurs et des révolutionnaires peut être légitime, quoiqu'il faille aussi critiquer et condamner certaines actions disproportionnées qui en découlent. L'Eglise des pauvres est présente dans les processus de libération comme témoin des valeurs chrétiennes, essayant d'humaniser ces processus, à partir d'une optique chrétienne et même —formule tragique mais inévitable— s'efforçant d'humaniser les conflits.

Face à l'avenir, l'Eglise des pauvres, pour atteindre sa maturité devra résister au puissant courant d'involution qui s'empare de l'Eglise en ce moment: attaques contre la théologie de la libération, nominations d'évêques et de responsables ecclésiastiques d'esprit contraire, préoccupations doctrinaires dans la formation des séminaires, renoncement à toute intervention pastorale de signe prophétique, etc.... Pour le moment il convient d'affirmer que l'Eglise des pauvres possède déjà sa consistance propre qui nous permet de croire à son avenir: Elle vit, se nourrit et se gouverne depuis sa base propre, elle surgit comme une vivante réalité et non comme élément d'importation. C'est qu'en Amérique Centrale l'Eglise des pauvres est non seulement possible, mais même nécessaire. Avant que l'Eglise n'ait fait son option pour les pauvres, ceux-ci avaient déjà opté pour elle.

Ertamerikako egoeraren ikuspegi politikoa

Ignacio Ellakuria

Azken 10 urteotan, gaurko munduaren mugarrietako bat bilakatu da Ertamerika. Lehen begiratu batean, harrigarria gertatzen da potentzia handien eta herri askoren kezka oinarrizko gertatu izana sei nazioen multzo hau: Guatemala, Honduras, Salvador, Nikaragua eta Costa Rica-k osatzen dute, eta Panama gehi dakieke istmo amerikarra dela medio; denen artean 25 milioi inguru biztanle dira, eta ez diete potentzia handiei merkatu oparoegirik eskaintzen.

Garrantzi horren esplikazioak bilatzean, istmoaren kokagune geopolitikoa aipatu ohi da, Amerikaren Ipar-Hegoaldean elkargune fisikoa bait da; eta Karibealde osoak Estatu Batuei sor diezaien arriskua, hauek beren segurtasun eta garapenerako garrantzizkoak dituzten lehengaiak eskuratzeko. Aipatu ohi da, baita, mehatxu bilaka litezkeela Estatu Batuen segurtasunarentzat Kuba, Nikaragua eta, agian, Salvador.

Baina, dena delarik ere arrazoiketa honi ematen zaion egiantz-maila, ez datza honetan Ertamerikan gertatzen ari denaren benetakoa muina. Hori baino askoz grabeagoa da; nahi bada, askoz arriskutsuagoa da hori baino. Funtsean, ideologikoa da Ertamerikak inperialismo amerikarrari eta mendebaldeko kapitalismoari egiten dien mehatxua.

Liskarraren zer-nolakoa

Bere errealitatearekin berarekin salatzen du Ertamerikak fenomeno kapitalistaren eta inperialistaren izaera: fenomeno honen errai beltz eta desegileenak erakusten ditu, eta, une berean, beste bide bat iragartzen du bere borroken bidez: beharbada, utopikoa irudituko zaie mundu honetako ahaltsuei; baina ez da bide benetan posible bakarra besterik gizadiaren 5etik 4rentzat, pobretasun ezarria beren garapenaren giro natural bihurtu dutenentzat.

Krisiaren ezaugarriak

Ez da deskribatzen zaila krisi ertamerikarra, bere ezaugarriak funtsezkoenetan, ezta bere esanahi unibertsalean ere. Munduko herririk aberats eta indartsuenaren muga-ertzean ia, "Estatu Batuen atzeko patio" deitu honetan, herri-multzo bat dago pilatua, haien kontraispilu. CEPALen zifrek ziotenez, Ertamerikako biztanleriaren % 40,3 pobretasun erabatekoan bizi zen 1980an, hots: familiaren sarbideak janari-otarre oinarritzakoaren kostua ordaintzera iristen ez diren egoeran. Portzentaia honi, % 25,5 gehitu behar zaio: bere famili sarbideekin elikaduraren arazoa juxtu-juxtu konpontzera iristen direnena, baina etxebizitzaren, osasunaren eta heziketaren premia oinarritzakoei ezin erantzun dienena. Biztanleriaren % 62,8 (% 71 Guatemalan, % 68,2 Hondurasen, % 68,1 Salvador-en, % 61,5 Nikaraguan) pobretasun-egoera ezgizatar batean bizi zen. Are okerragoa da gaurko egoera; eta okertuz doa, gainera, Nikaraguan izan ezik.

USAREN "atzeko patioa"

Urte askotan zehar, estatuon independentziaz gero praktikan, naturaltasun osoz ikusi dute egoera hau iparramerikarrek eta

hauen gobernuek; areago, komenigarritzat ere jo dute, giza esku-bideak berentzat bakarrik bailira.

Egia da, maltzurkeria kontzientea baino gehiago egon da ezaxola eta gehiagotasun-konplexua. Baina egia da, halaber, iparraldeko inperialismoak etengabe lagundu duela *statu quo*-a bere zerbitzuko jendeen bitartekotasunez —kasurik nabarmenena, Ipar Amerikak diktadura somozistari eskainitako laguntza da—, eta ez direla batere arduratu erabilitako metodo errepresiboez edo demokrazia iparramerikararentzat muga gaindiezinak direnen biolazio etengabeaz. Errebindikazio sozialeko edo soil politikozko edozein mugimendu, zapaldu egiten zuten herri bakoitzean interes oligarkikoak ordezkatzeko zituztenek, horretarako Estatu Batuen laguntza zutelarik beti: hauek, izan ere, “berrea” kontsideratzen bait dute zonaldea, beren segurtasunaz arduratzeko unean, baina “inorena”, jasaten dituen gaitzak neurtzerakoan.

Bistan dago, independentziatik 150 urte baino gehiagotan, kapitalismo kreolarrak eta inperialismo amerikarrak lortu dutena: demokrazia formalaren itxurak, militarismoa nabari eta beharrezkoa dutenak, baldin indarrez eta indarrarekin eutsiko badiete gobernatzen duten erregimenei: superbizitzeko adina ozta-ozta duten gehiengo herritarrei bizkarra emanez baino haien bizkarretik gobernatzen dutenei. Zifrak hor daude, eta ez daukate komenigarriena iruditu zaiena egiteko inoiz izan ez dituzten traben aitzakiak jartzerik. Ezin nabarmenagoa izan da Ertamerikan ideologia kapitalista horren porrota, eta horri dagokion praktikarena.

Mobilizazio iraultzailea

Koloniaren garaietatik pilatu den injustizia estruktural honek ekarri du, Ertamerikako Merkatu Batuaren lehen arrakasten alditxo llaburraren ondoren, gero eta indar handiagoa hartuz joatea askapen-mugimendu iraultzaileak 60. urteen azkenetan. Baldintza objektiboak emanak zeuden: gero eta sostengaezinagoa gertatzen zen miseria eta, noski, gero eta jasangaitzagoa, bere egoera hobea ezkutatu ordez harro agertzen zuen gutxiengoaren bonbonkeria eta pribilegioekin konparatzean.

Asmoa zuzena zen alderdi guztietatik, opresioa eta errepresioa desegitea zuenez helburu. Baina, gainera, eta aski berezia da hau Ertamerikaren kasuan, fede handia eta konfidantza sendoa zeuden sortuak pobreenen, herri zapalduenaren posibilitate iraultzaileetan.

Intuizio jeneral hau, doktrina marxistaz jantzi zen batzutan, pobreen horiek balira bezala proletariak; edo, zabalkiago, langile/nekazari aliantza bat inposatu nahi zen teoria marxista-leninistatik. Baina intuizioa doktrinaren aurrekoa zen, eta errealitatearen konplexutasunak gainditu egin zuen doktrinarismo marxistaren eskematismoa. Egoeraren jasanezinaren kontzientzia, egoera aldatu beharrarena eta aldaketan opresioaren lehen pairatzaileei zegokien lekuaren kontzientzia, ez zen prediku marxistaren ondorio bakarrik: Medellín-en irakaspenak —eta, hauekin, pobreen egitekoa historian— asumituak zituen mezu kristauaren ondorio ere izan zen. Egitura injustuak aldatzeko beharrezkotzat ematen zen iraultza posible ikusi, batez ere erakunde herritar iraultzaileek ikusi zuten.

Legamia kristau-biblikoa

Ez dago hemen lekurik, erakunde hauen izaera eta sorrera eztabaidatzeko (Romero eta Rivera App.ek gutun pastoral ausart eta zorrotza zuzendu zien 1978an). Haien eraketa marxistak eta are formulazio ideologiko eta propagandistiko kolore marxista-leninista bizikoek ez dute mugimenduaren aberastasun osoaren berri ematen, ez Nikaraguaren kasuan, ez Guatemala eta Salvador-entan, zeren hiru herrietan, modu eta neurri desberdinetan bada ere, presentzia indartsua bait du fede kristauak, batez ere oinarriko militanteetan, baina baita zuzendarietan ere noizean behin: hauekako franko, askapen-teologiaren ikuspegi gutxi-asko esplizitutik oinarriko komunitateetan egindako Bibliaren berrirakurketatik abiatu zen.

Batzuen eta besteen funtsezko puntua, zapalkuntza desegin beharra zen eta eginkizun hau batez ere zapalkuntzaren pairatzaileen esku jartzea, teologikoki “pobreen hautu hobespenezkoa” deitu dena politikara ere aplikatuz.

Marxismoa: antikapitalismoa

Honetan datza “berritasun ertamerikarra” izango denaren abiapuntua: hainbat gorabehera zehar, sandinistak gairaipenera eramango zituen honek, eta Salvador eta Guatemalako iraultzaileak, mugimendu ikaragarri indartsuak sortzera.

Konfrontu bat gertatu da hortik, kapitalismoak Ertamerikan duen konkrezio historikoaren eta antikapitalismo/antiinperialis-

moen artean. Inoiz edo behin marxismora edo komunismora (sozialismora) jo bada, antikapitalista izateagatik jo da; eta antikapitalista zen bat, kapitalismoa zelako gehiengo herritarren zapalkuntzaren konkrezio historikoa. Bat ez da orduan antikapitalista, lehendik marxista zelako; baizik, batzutan marxismora iristen da, ez daukalako eskura Ertamerikako kapitalismoa eta inperialismoa borrokatzeko beste modurik. Praxi iraultzailea determinatzen duena, ez da ortodoxia politiko ideologikoa; aitzitik, praxi iraultzailea da, ordenu kapitalistaren aurkari nagusi bezala agertzen diren doktrinan eta erakundeetan bilatzen duena justifikazio teorikoa.

Antiinperialismoa ala herriaren protagonismoa?

Funtsean, askapen-borrokak dira: nekazariak parte hartuko dute gehien, baina baita ikasle eta langileek ere eta, Guatemalako kasuan, indigenek. Praktikak, honela, gainditu egiten du formula-zio teorikoa: iraultzaren lehen subjektua profetalgoan ikusten duen edo alderdia ezinbesteko abangoardiatzat daukan formulazio teorikoa.

Alderdiaren ideia erakunde herritarren ideiaz ordezkatzeara, posibilitatez bete dago printzipioz, ohikeria doktrinarioak atera ez baditu ere ordezkapen horrek barruan daramatzen ahalbide guztiak. Benetako arriskua seinalatzen du Romero App.aren oharpenak, erakundea ez absolutizatzeaz eta herri errearen lekuan ordezkaturiko duen erakunde bat ez jartzeaz: sandinismoan bertan ere erabat lortzerik egon ez den ideala adierazten du.

Iraultza hau, armen hizkuntzan planteatu beharra egon zen, biolentziaren hizkuntzan. Apezpiku nikaraguarrek onartu egin zuten, erregimen somozistaren injustizi eta zapalkuntz egoerak permititzen eta are eskatzen zuela asaldakuntza armatua. Gauza bera pentsatu zuten Salvador eta Guatemalako elizaren parte zabalak, bere egoera nikaraguarrek bizi izandakoa baino oraindik dramatikoa zela ikusiz.

Ezin esan daiteke, haatik, hasieran-biolentzia zenik. Litekeena da, analisiak agertu izana iraultzaileei indarrez bakarrik aldatu ahalko zutela konplutuki azkar aldatu beharrekoa. Armatan altxatako berriaren teoria zen. Baina, historikoki, bi salbuespen egin behar dira: lehen biolentzia, desordenu ezarriarena zela, gosez edo/eta zapalkuntzaz heriotzara zeramana; eta lehenik erabili zena, herri antolatua eta mobilizatuaren biolentzia ez-armatua izan

zela. Salvador-en kasua da hau bereziki, masa-erakundeen hazkuntza koantitatibo eta koalitatibo benetan harrigarri batekin. Erresistentzia aktibo ez-armatu honen bidea indarrez erreprimitu zenean bakarrik —aitortuz, hori bai, terrorismo onartezinezko kasu ez gutxi eman zirela— jo zen borroka armatua elementu estrategiko bihurtzera; baina borroka armatu hau ez zen eite terrorista-koa izan, eite gerrilerokoa baizik: Nikaragua, Guatemala eta Salvadorko kasuetan, gerra zibilera eramango zuen borroka izan zen, benetako armadak jarri zituen aurrez-aurre.

Liskarraren internazionalizazioa

Gisa honetako egoerak, jakina, ezin utz zitzakeen axolagabe potentzia handiak. Liskar ertamerikarra, hasieran eta funtsean, zapalduen liskarra bait da zapaltzaileen kontra, pobreena aberatsen kontra, hegoaldearena iparraldearen kontra, nahiz eta zapaltzaileek, aberatsek eta iparraldeak abiarazi duten biolentzia; gero, ordea, ekialde/mendebaldeen arteko interes-liskar ere bihurtu da. Bigarren liskar hau, mundu-ikuspegitik garrantzitsu eta nagusia izan badaiteke ere, ez da halako, ezta orain bertan ere, ikuspegi hertsiki ertamerikarretik. Eta ekialde/mendebaldeen ikuspegitik beretik ere, argi dago liskarra askoz gehiago internazionalizatzen dutela Estatu Batuek Soviet Batasunak baino.

Argia den bezala SESBen presentzia Kuban, argia da USAREN presentzia Salvador, Honduras eta Guatemalan, eta baita Costa Rica eta Panaman ere. Eta argia ez den bezala USAREN presentzia Kuban edo Nikaraguan, ez da argia SESBen presentzia ez Salvador-en, ez Guatemalan, ez Hondurasen. Estatu Batuen presentzia hori prebentziozkoa da benetan, ez erantzutezkoa: ez dio ez dagoen edo apenas dagoen presentzia atzerritar bati erantzuten, baizik presente egoten saiatzen da, USArekin sinpatizatzen ez duen beste ezein indar inguru hauetan sustraitu ez dadin.

Gehiago ere esan behar da: Estatu Batuek ez dute eskubidez legokiekeen segurtasuna bilatzen hemen, delako segurtasuna ez bait dago arriskutan. Bilatzen dutena, hegemonia inperialista da; bestela esan: bere segurtasun justua zaintzeko, ez du menperakuntza absolutuaz beste biderik onartzen, nazioen subiranotasuna edo herrien autodeterminazioarekiko errespeturik batere gabe.

Gauza bera gertatzen da Soviet Batasunarekin, honen eragin-guneetan. Baina argumentu honek ez du balio ertamerikarrentzat: Batzuren gaitzak ez bait du besteek egiten dutena justifikatzen,

eta, gure kasuan, bete-betean interbenitzen duena ez bait da Soviet Batasuna, baizik askoz gehiago Estatu Batuak.

Gehiengo herritarren protagonismoa

Askapen-borrokak, hortakoz, ez dira lehenik inperioen aurka-ko borroka. Orogen gainetik, gutxi batzuk askoren aurka egiten duten injustiziaren eta dominazioaren kontrako borroka dira; gehiengo askatasuna oztopatzen duten era guztietako egituren kontrako borroka; nazionalismoa eta subiranotasuna azken helburu ez baizik baldintza dituen gizarte zuzenago baten aldeko borroka dira. Kontua, gehiengo herritarrek bere proiektu politikoa sortu eta garatu ahal izatea da, prozesu historikoaren lehen subjektu izanik, jadanik borroka iraultzaileen lehen subjektu diren bezala.

Borroka honetan ez dago erabat argi lortu nahi denaren profil konkretua; are gutxiago, horretarako tresna beharrezkoen multzoa: argiago ageri da nahi ez dena, nahi dena baino, nahi eta nahi ez direnok edukin konkretuetara biltzen hastean. Horregatik josten da inoiz, presaka, eredu eginen bila: ez bait dago astirik asmatzen ibiltzeko, ezta posibilitate erreal askorik, horien artean auke-rak egiteko.

Ereduzkoa da honetan Nikaraguaren kasua: baldintza errealek gero eta posibilitate urriagoetara daramate prozesua, egiten dioten presioagatik batez ere: sandinismoak totalitarismo marxista ezarri nahi duelako aitzakiarekin, eragotzi egiten zaio, itolarri ekonomikoaren eta eraso armatuaren bidez, bere proiektu berea taxutzea eta bere bidetik aurrera egitea.

Subiranotasun nazionala, autodeterminaziorako

Horrez gain, herri bakoitzaren autodeterminazioaren eta subiranotasun osoagoaren bila ari da askapen-borroka. Arazoa ez da honez gero berez hala den inperialismotik askatzea, herriok independenteak bait dira formalki, USA baino ez askoz geroztik. Zer egin behar den eta zer ez erabakitzeko, subiranotasun nazionalak zapaltzen dituen inperialismotik askatzea da, areago. Estatu Batuek bere interesentzat egokiena den demokrazi ereduaz ezarri nahi dute, aztertzen hasi ere gabe, ea maila ekonomiko beldurgarriro apalagoa duten herrien interesentzat egokia den.

Ez da horrenbestez beste dominazio-barrutian jausi nahi: honek irudikatzen dituen balio, sineste eta bizitz sistemak ere ez bait zaizkio ongi egokitzen herri ertamerikarren idiosinkrasiari.

Eredu nikaraguarra, eredu ezarrien aurrez-aurre

Azken buruan, gizarte berri bat eraiki nahi da, kapitalismo historikoki ezagunaren eta sozialismo historikoki egikarituaren eskematik at. Eginkizun zaila, inondik ere: une historiko honetan ez dirudi beste alternatibarik egon daitekeenik, bi sistemek premia historiko berari erantzuten diotenez eta garapen-indarrek ez bide dutenez posibilitatzen egindako bideak besterik. Irtenbide posible bakarra, antza, sistemetako batetik zein bestetik abiatu eboluzio kreatzailea da.

Ikuspuntu honetatik, sistema sozialista eraberritzeko saio serio bat ikus daiteke Nikaraguako eremuan. Ondoko bereizgarriokin karakteriza liteke berrikuntz saio hori:

1) Gehiago herritarrak jartzea lehen subjektu politikotzat, bai herriak sortzen dituen onura eta ondasunak jasotzerakoan, bai prozesua kreatiboki erabakitzerakoan.

2) Egitura zapaltzaileak garaituko dituen, baina beste opresio-modutan jausiko ez den liberazio osoari ekitela.

3) Arretarik behinena premia oinarritzkoetan jartzea, horiek asebate arte ez bait dago askatasunaz hitz egiten hasterik.

4) Jabego pribatuan eta gehiago edukitzean ez, baizik solidaritatean eta norberaren gizatasunaren garapenean oinarritzen diren balio berriak sortu eta asimilatzea.

5) Garapen pertsonal eta taldekoaren modu desberdinak errespetatuko dituen pluralismo politiko, kultural eta erlijiosoan onartzea, inposizio totalitarioaren era guztiak errefusatu.

6) Interes jeneralei lehentasuna ematea interes partikularren gainetik, bereziki elite ahaltsuenen interesen gainetik.

7) Subiranotasun nazionala eta herrien autodeterminazioa: horien formatuak bat, hauteskunde-prozesuak dira, baina ez bakarra, ezta, praktikan, partehartzerik handienekoa ere.

8) Ehomia mistoa, aurreko guztiaren isladapen bezala: inizatiba partikularrak probetxatuko dituen, baina gehien dutenei konkurrentzi abantailarik eskaini edo ezarriko ez diena.

9) Kontzientzi, adierazpen-, antolamendu- eta mugikortasun-askatasunetiko errespetua: guztien ondare, baina batez ere haietarako helmen askoz zailagoa duten gehiengo herritarren ondare izan behar duten askatasun oinarrizko bezala.

10) Munduan gerta daitezen askapen-prozesu benetakoko guztiak laguntzeko ardura, bereziki eremu ertamerikarrean gerta daitezzenak.

11) Humanismo berria eta zibilizazio berria sortzea, idealtzat gehiengo herritarren onurarik handiena jarriko duen praxiaren ondorio bezala, kontu eginik zein egoeratan aurkitzen den gaur gizadiaren parterik handiena, orain arteko humanismo eta zibilizazioaren ondorioz.

Besterik litzateke galdetzea, ea sandinismoaren praktikak osoki egikaritzen dituen erizpide politikook. Ezetz erantzun beharra dago. Eta bi arrazoi nagusigatik: lehena eta grabeena da, munduko inperiorik azkarrenak setiatua daukala, eta ez diola uzten bere energiak berak nahiko lukeen norabidean erabiltzen; eta bigarrena da, sandinismoak medio hain garrantzitsutzat dauzkala praktikan partidu eta abangoardia bezala kontsolidatzea eta estatu-boterea atxekitzea, non helburu bilakatu bait zaizkio, gehiengo herritarrentzat lortu nahi litzuzkeen balioak horien menpe jarritz. Batzutan, bigarren arrazoiaren justifikaziotzat hartzen da lehena; eta bi arrazoion elkarketak, lortu nahi omen diren balioak ahantzi ezezik eraso egiten dituzten praktikak ekarri ditu.

Salvador-en kasua

Salvador-en egoerak, beste terminotan planteatzen du arazoa, posibilitateak ere bestelakoak bait dira. Nikaraguan, agintean daude iraultzaileak; Salvador-en, aldiz, mendietan daude eta ez dute militarri irabazteko posibilitate handirik, ez epe laburrean ez ertainean, interbentzio iparramerikar gero eta eskergea eta larriagoa dela eta.

Egoera honek berehala planteatzen du problema: azkengabeki jarraitu behar da gerra, jarraitasun honek etsaiaren hondamena ekarriko duelako itxaropenean, ala eten egin behar da, baldin gehiengo herritarrek bere eskubideen alde baliabide ez-biolentoz edo, gutxienez, ez-armatuz borrokatzeko baldintza nahikoak lortzen badira? Erantzun teorikoa ez dateke zaila: gehiengo herritarren premiei dagokien ordenu politikoa ezartzeko bidea eskainiko lukeen garaipen militarra posible ez denean, borroka armatuari

atxekitzea ezin izan daiteke etapa behin-behinekoa baizik: negoziaketaren bidez, erakunde herritarren presentzia seguru eta eraginkorra borroka politikoa erraztuko lukeen etapa. Ez dago hemen erantzun honen nabardura frogatzaileak azaldu beharrik: fronteez berek eskaini bait dute negoziaketaren bidea.

Kasu honetan, sistema kapitalista aldatzeko trutura iritsiko dira onenean ere, eta ez, Nikaraguan bezala, sistema sozialista berregitera. Honek ez du esan nahi, hala ere, sistema kapitalistaren transformazioaren bidetik, eta baldintzak egokiak badira, sistema berri ez-kapitalista bat sortzerik ez dagoenik, praxi historikoak bakarrik zahartzuko liokeen profileko sistema berri bat. Orain negoziatzen dena, ez da nahi litzatekeen estatu ideala, baizik gehiago herritarrek bere askapen-prozesuari aurrera eragiteko bide justua. Negoziaketa oso zaila: kontrakoak bait dira interesak, bai herriko indar sozialetan, bai atzerrikoetan.

Berezitasun ongi mugatuak izan behar ditu prozesu honek:

1) Gehiago herritarrek antolatzerik izan dezatela, dagokien eta benetan duten indarra eraginkorra izan dadin herriaren ibilbidean, azken urteotan erakutsi duten bezala.

2) Horretarako, erretira dadila Salvadortik interbentzio atzeritar oro, batez ere interbentzio militarra.

3) Giza eskubideen errespetua berma dadila, batez ere bizirako, askatasunerako eta iharduera politikorako eskubidea, lehen epe honetan lortu nahi dena salvadortar gehienen berraktibazio politikoa denez, hauteskun-prozesuetako iharduera noizbehinkako eta minimoa baino areago.

4) Neurrigabekeria politikorik egongo ez delako berme ziur eta segurua, bereziki armadak partean artean negoziatua errespetatuko duelakoa.

5) Liskar-puntuak ebatziko dituen botere judizial onestu eta erabat errespetatua.

6) Biolentzia armatu edo hondatzaile mota oro ezabatzea, ez bakarrik terrorismo-mota oro.

Negoziaketa-prozesu hau burutuko balitz, liskar armatua bukatzeko erarik razional eta justuena aurkitzeaz gain, Salvador-en premiei irtenbide originala emateko aukera berria izango genuke. Mugimendu iraultzaileen presentziak behartu egin du USA bera, oligarkia Salvador-en indarra galduz joatea onartzera, oraingoz

maila apalean bada ere, eta aldaketa sakonik ekar dezakeen erreforma-sail bat ametitzera. Mugimendu iraultzaileen lorpena da hau: horien mehatxurik gabe, ez zatekeen posible izango ezta kristau-demokrazia ere, iraultzaileen proposamen erradikalagoaren alternatiba erreformista bezala eskainitakoa.

Baina hau ez dela aski frogatzen dute oraindik ere ematen diren giza eskubideen bortxaketek (indar militarrek edo paramilitarrek erandako 2.000 baino gehiago) eta eskuin mutur ekonomiko, politiko eta militarrek botere osoa berreskuratzeko posibilitateak, presio iparramerikarrak oraingoz eragozten badu ere. Oreak ezegonkorra da oraindik: gehiengo herritarrek eta erakunde herritarretako ordezkariak benetako boterean zinez parte hartuko dutenean bakarrik egingo du honek aurrera.

Honek ez du esan nahi fronte demokratiko eta iraultzaileko erakunde herritarrak absolutizatu behar direnik, herri-ordezkaritza modu absolutu edo hegemonikoan bereganatzen dutenok. Gertakari askok eragin dute erakunde politiko-militarrak populazioaren parte handi batetik urruntzea, honek urrutiko eta are arriskuatsuzat edukitzeraino urruntzea: bost urteotako errepresio sistematikoak (FMLN-FDRkoetan nahiz fronteotako sinpatizatzaileetan 50.000 asesinato baino gehiago egin dituenak), fronteen ezarritako masa-iharduera politikoaren urritzeak (borroka armatuaren edo atzerriko propaganda politikoaren faboretan), milioi-erdi salvadortar baino gehiago erbesteratzeak, iraultzaren etsaiek sistematikoki egiten duten propaganda politikoak, etab.

Atzerriko finantz laguntzak bakarrik arintzen duen krisi ekonomiko ikaragarriaren ondorioz, eta gerrarekiko nekaduraren ondorioz, salvadortar asko ez dira proposamen iraultzaileekin identifikatzen, oraingoz bederen: bere seme edo ahaideak gerran hiltzen ikusi dituzte, energia elektriko eta garraioetako sabotaiak egunero sumatzen dituzte... Zentzu honetan, ez da ahaztea komeni, erabakiorra ez bada ere inportantea den datu hau: ehundaka mila bozemailek eskuin muturrari ematen diotela botua eta beste ehundaka milak kristau-demokraziari.

Erakunde herritarrek ideal iraultzailea dute, salvadortar askoren interes objektiboak eta are itxaropenak ordezkatzeko dituzte; baina ez daukate zertan ordeztu herritarren borondatea, beren buruak abangoardiatzat dauzkatenek gaur gaurkoz osorik isolatzen ez duten herritarren borondatea. Pluralismo herritarra aitortuz abiatu beharra dago: errespetatzen ez bada, iharduteko modu totalitario eta diktatorialak sortzen bait ditu. Ez du hemen lekurik

proletalgoaren diktadurak, ez bait dago proletalgo masiborik eta gizarte berria ez bait da diktaduraren bidetik eraiki behar.

Ertamerika: munduari proposamena

Superpotentziak ernai jarri dituen eta borondate oneko hainbat gizaki ilusioz bete dituen berritasuna eskaini diote munduari Nikaraguak, Salvador-ek eta, neurri apalagoan, Guatemalak.

Nolanahi ere den, batera hartzen badira Nikaraguako eta Salvador-ko kasuak, borroka desberdinak ikusiko ditugu inperialismo kapitalistaren eta beren askatasunaren bila dabiltzan herrien artean. Nikaraguan, Reagan-ek bere pisu pertsonal eta, batez ere, erretoriko osoa jarri du iraultza nikaraguarra zapaltzeko; baina honek aurre egin dio eta ez du onartu hark proposatzen dion demokrazia. Salvador-en, administrazio iparramerikarrak ahalegin handiagoa egiten du oraindik iraultzaileak zapaltzen, eta, hala, Salvador-ko gobernuak FMLNren kontrako borrokan sendotzeko emango du aurten Latin Amerikarentzako laguntza osoaren ia % 30; gobernuak, bere aldetik, aurrekontu nazionalaren % 40 gerrari eta armadari eskaintzen dio, honenbestez mugimendu iraultzaileari atzera eragin gabe, ordea.

Sandinistek jasaten duten presioa ez da alderatzekoa ere FMLNko borrokarietxek jasaten dutenarekin; hauek, adierazpen guztiak kontra dituzten arren, arrisku bat dira oraindik, eta, bere ihardunbiderako, Salvador aukeratzera behartzen dute Reagan administrazioa, beste jokaleku latin amerikarren gainetik. Guzti horretan ikusten da ez bakarrik herri subiranoen barne-arazoetan lotsagabeki interbenitzea, baizik gizarte iparramerikarrak berezko omen dituen printzipio demokratikoak etengabeki ukatzea.

Nikaraguaren kasuan, gezurra zioen behin eta berriro Reagan administrazioak, esatean, berak kontrei emandako laguntza Nikaraguaren interbentzioa eragozteko zela Salvador-en. Gerora ikusi eta aitortu deneg, Estatu Batuek nahi zutena, Nikaraguaren barne-arazoetan interbenitzea zen; are gehiago: terrorismo-forma guztiak faboratu ditu, Libiari eta beste herriei egin dizkien mehatxu eta gaitzespenak ahantziz, terrorismoaren sustatzaile bezala; Den Haagen-eko Epaitegia ere baztertu egin du, bere indarra jarriz legearen gainetik; azken batean, planteamendu demokratiko iparra-

merikarraren azpiko gezurra frogatu du, interes nazionaltzat jozten direnak tartean sartzean agertzen den gezurra.

Gauza bera esan daiteke Salvador-i dagokionez: toleratu, zuri-tu eta are sustatu egin zuen herri honen historiako aldi terrorista beltzena: estatua, USAren laguntzarekin, hiltzeko aparailu bilakatu zen, imagina daitekeen beldurgarriena. Oraindik ere giza eskubideen bortxaketak arintzen eta barkatzen saiatzen da, bere sinesgarritasuna ez galtzearren Salvador-ko gerra aurrera eramateko baliabide ekonomikoak eskatu behar dituenerako; horrela, gerrari egozten zaizkio giza eskubideen aurkako ekintzak.

Ez dugu honenbestez esan nahi, sandinismoak eta gerrila salvadortarrak giza eskubideak bortxatzen ez dituztenik, edo kontraesanik ez dagoenik lortu nahi dela esaten denaren eta egunero egiten denaren artean. Baina, lehenik, honek ez luke aurrekoa justifikatuko: askatasunaren, demokraziaren eta giza eskubideen jagoleek egina. Eta, bigarren, ez dago alderatzerik, ez koantitatibo ez koalitatiboki, sandinistek eta gerrilari salvadortarrek egina eta kontra-koek egina; gutxiago oraindik, kontu egiten bada, haiek aitortu egiten dituztela inoiz bere gehiegikeriak edo justifikatu egiten dituztela, itzulpide gezurrezkotan ibili gabe.

Gizakia ulertzeko edo harreman sozialak sustatzeko era berrien zeinu dira, adibidez, herio-zigorra abolitzea, iraultza sandinista garaile irten bezain laster; lehen kanpaina nazionala, herri osoa alfabetatzeko izatea, edo FMLN-FDRren eskaintza, irtenbiderik arrazionalenak elkarrizketan eta negoziaketan bilatzeaz, ez gutxi batzuentzat, baizik gehiago herritarrentzat. Asko dago egiteko, jakina; asko dago aldatzeko eta zuzentzeko, asko dago zertaz damutu. Horietako ezerk ez du iluntzen, ordea, projektua- ren idealismoa eta eite sakonki berritzailea, zibilizazio mendebaldarraren klitxe errepikatuen buruz-buru, hots: gutxi batzuren hazkuntza bizkorren ondoan, ehundaka milioi pobreren, lurreko biztanleen parterik handienaren, ugaltzen sinestezin eta konparaezina ametitu duen zibilizazioaren aldean hark dakarren berritasuna. Gero eta pobre gehiago dago munduan, eta aberatsak baino askoz gehiago ugaltzen dira; gero eta gose gehiago da, gero eta langabe gehiago, gero eta analfabeto gehiago, etab. Gizadiaren historian ez da inoiz hainbeste egon, baina bihar gehiago izango dira oraindik.

Lurreko herri ahaltzuek, kapitalista nahiz sozialistek, batera babesten duten giza historiaren tragedia honen aurrean, aparteko eredu gertatzen da Ertamerikako herri txikion ahalegina. Kuraia

ikaragarritz agerturiko eredutasun hauxe dateke mundua iratzarri eta Ertamerikari begira jarri duena: mundu honetako ahaltzuek, gauza berez oso onez, baina egoera jasanezinetara daramaten gauzez, erabaki duten zibilizazioaren gezurra agerian jarri bait da hemengo lur eta borroketan. Hor dagoke Ertamerikako herrien erreberiarren esanahi historikoa. Munduko pobreen erreberiarren aurre rapena da: behin berriro domestikatu ahal izango den erreberia, baina gure munduaren gain datorren apokalipsia aurreratzen duen ahots profetiko dena.

Mugimendu iraultzaileen orain-geroak

Izango al dute, hortakoz, garaile irteterik Ertamerikako mugimendu iraultzaileek? Galdera honi erantzuteko, balioen plano eta errealtateen plano bereizi behar dira.

Balio proposatuak

Balioen eta idealen planoari dagokionez, neurriren batean behintzat esan daiteke, Ertamerikako mugimendu iraultzaileek emaitza garrantzitsuak lortu dituztela, dagoeneko, erabat garaitu ez badute ere.

Lehen emaitza, mundua ernai jartzea izan da: ez bakarrik herri ertamerikarrek, eta hauekin batera munduko herri gehienek, jasaten duten injustizia eramanezinari buruz; ernai jarri dute mundua, benetako askatapen-prozesuen premiari buruz ere, horiek gabe herri indartsuek eragindako garapena ez bait da iruzurra besterik, gauzek lehenean jarraitu ahal izateko eta kapitalismo eta inperialismo desberdinen makineriak hobeto funtzionatu ahal izateko.

Bigarren emaitza, historiako aginpiderik handienari erakustea izan da, pobreen erreberia egiazko iraultza herritar bihur daitekeela: kontrako indar eskergak garaitu ez bada ere, balaztatzeko gauza den iraultza.

Hirugarren, zibilizazioa berregin beharra dagoela erakutsi du: orain arte aberatsek eta aberatsentzat egin izan dute gehienbat, eta batez ere pobreek eta pobreentzat egin behar dutela erakutsi du,

hauek bait dira gizadiaren zatirik handi-handiena, hots, gizadiaren zinezko ordezkariak.

Laugarren emaitza, itxaropen-uholde bat sortzea izan da: gaur egun nekatua dagoen eta gainbehera datorren prozesu historikoa berrabiarazi du itxaropen honek; super-gizonaren ideia zaharkituaren lekuan, super-herriaren ideia nabarmenki faltsua eskaini nahi dizkigute gaurko gidariek, beren nekea eta dekadentzia zuritze-ko; egoera honen aurrez-aurre, bere indar sortzailea oraindik gehiengoaren interesen alde jarri ez duen gizadiaren parte horretan erne da itxaropen hau.

Bostgarren, errealitate naturalen berraurkikundea dago; mugimendu ekologistekin zerikusirik baduen arren, zentzu berri originala ere badu: izadiko aberastasun handiekiko kontaktu zuzen eta xumea adierazten du, haietaz gozatzeko sofistikaziorik behar ez duen kontaktua; pixka bat antolatuz gero, guztien eskuera bait daude aberastasun horiek, pribatuki jabetzen ibili gabe.

Seigarren, sakrifizioaren ideia berreskuratzea izan da, besteek bizi hobe eta oparoagoa izan dezaten, bere bizia ere ematen duen solidaritatea eta idealismoa berreskuratzea.

Zazpigarren emaitza, gizartearen antolamendu politikoa birkontsideratu beharra da, hots: partidu politikoen epe burgesa gainditu beharra. Baina ez partidu bakarreko sistemara jotzeko, honen azken oinarrietako bat boterean irautea bait da, baizik gizarte partehartzaile bat eratzeko: helburutzat boterea ez baino interes herritarrak zaintzea duten erakunde herritarren bitartez, mekanismo estataleki mekanismo sozialak nagusituko zaizkien gizarte. "Botere herritar" kategoriarekin formulatu izan da hau, nahiz eta oraindik ez den aurkitu modu efektiborik hori autonomoki gauzatzeko eta, une berean, arazo sozial ororen eite instituzionala bazter uzten duten anarkismotan erori gabe gauzatzeko.

Balioen planoko lorpen hauei gehi dakieke besterik; hauek berak aski dira, ordea, Ertamerikako mugimendu iraultzaileen borroka luzea ez dela alferrikakoa izan ondorioztatzeko. Historia ertamerikarra ez da jadanik lehengoa izango: iraultzaileek dinamismo berriak txertatu bait dituzte, ezin bazter daitezkeen dinamismoak txertatu ere. Borroken iraupenak berak erakusten du, ez dela zerbait noizbehinkakoa; eta 5 edo 10 urte gutxi diren arren herri baten historian, ez dira hain gutxi, baldin urte horietan aldaketa sakonak eman badira antolaera sozialean: hau da gaurko krisi ertamerikarraren kasua.

Lorturiko errealitateak

Ideal irentsien eta balio neurriren batean gauzatuen planotik errealitate enpirikoen planora bagoaz, gauzak pixkaren bat desberdinak dira.

Nikaragua

Iraultza nikaraguarrak ez du bere ideal iraultzaile guztiak praktikara eramaterik izan, eta ez du izango ere, uste izan daitekeenez; eta hori, hainbat arrazoiengatik. Lehen, noski, Reagan administrazioaren oposizio itsua da, ez bait da gauza erabat menpean jartzan ez zaiona denik gutxiena ere errespetatzeko; oposizio horren ondorioz, gobernu sandinistak boterean irauteko egin behar ditu ahaleginik handienak, estatuaren segurtasun-aparatu ikaragarri bat mantenduz eta, Salvador-en bezala, aurrekontu nazionalaren % 40 irentsen duen gerra bati eutsiz. Kontutan har, gainera, Estatu Batuen blokeo ekonomikoa. Baldintza horietan, ez zaio herri bati baliabide handirik geratzen, gehiengo herritarren aldeko hautu hobespenezko efektiboa izango duen gobernu moldatzeko.

Baina bada beste arrazoirik ere; hauetako bat, gobernatzeko zailtasuna bera da, gobernu-funtzioaren errealismo eta pragmatismoak; gure herrion arazoak konpontzen hastean ikusten da asmoen zailtasuna eta nola hainbat gauza egin gabe geratzen den, ez gaiztakeriaz, baizik ezinez. Honela, sandinismoak ez du kafeedo kotoi-langileen soldatak iraultzaileek oposiziotik eskatzen duten mailara jasotzerik izan: merkatuak ez bait du ametitzen. Iraultzak zentzu bat eman diezaieke sakrifizioei, baina ezin ditu sakrifizioak desagertetazi; eta hauek luze dirautenean, ezinegona eta nahigabea sortzen da herri-masetan.

Arrazoen artean dago, halaber, ezein hautu politikok ezin asumi dezakeela nazio osoaren ordezkartza; horregatik, edo boterera iristeko pluralismo aktiboa onartzen da, edo herri askatasunaren maitaleotan erreberia sortzen duten totalitarismo diktatorialetan jausten da. Ez da aski etsaiak antiiraultzaile eta erreakzionario izendatzea: disidentzia hor dago, bai ideal iraultzailea gauzatzeko era onartzen ez delako, bai gobernu-era gutxi-asko totalitarioak onartzen ez direlako. Guzti honen ondorioz, baldintza objektibo hauetara makurtu beharra izan du gobernu sandinistak: ideal iraultzailea neurriren batean urtu egiten badute ere, errealismo historikoaren bidea adierazten bait dute.

Salvador

Bestelakoa da Salvador-ko arazoa. Esana dugu, ez dela probablea iraultzaileen garaipen militarra. Eta probable balitz ere, ez litzuke zailtasunak konponduko: Estatu Batuek Nikaraguaren kontra daramatena baino gerra lotsagabeagoa egingo bait liekete garailei. FMLNren garaipen ez-probableak ez luke gerraren amaiera ekarriko, baizik oraingoa baino gudu gogorragoaren jarraipena, arrazoizko epe batean bukatzeko probabilitaterik gabe. Eta honek zentzuren bat izan dezakeen arren maila makropolitikoan, ez du zentzurik batera herri salvadortarraren gaurko eta biharko premiei begiratuz.

Hori alde batera utzirik, tesirik argiena, zera da: FMLNk ez duela garaipen militarra lortzeko probabilitaterik edo, behintzat, probabilitate hori txikia dela eta kontutan ez hartzekoa, kalkulu politikoa egiterakoan. Gauzak horrela, arrazoizkoa eta txalogarria da inondik ere FMLN-FDRk elkarrizketaren eta negoziaketaren bidea proposatzea, herri salvadortarraren irtenbide bezala. Era berean da arrazoizko eta txalogarri gobernua bide horixe hartzea: FMLNren baiezkorik gabe, ez bait dago herria efektiboki gobernatzerik, ez bait dirudi gerraren gaurko bideak FMLN garaitu edo ahulduko duenik.

FMLN-FDRren proposamenaren arabera, negoziaketa honen ondorioa, onenean eta hainbat faseren buruan, partehartze zabaleko gobernua izango litzateke, hots: aliantza bat, oligarkia eta eskuin muturra (baina ez eskuin moderatua) kanpo emango litzateke eta sektore iraultzaileek botere hegemonikorik edukiko ez laketena.

Gerrak ez balie presio egingo gobernuari eta militarrei, horretara ere ez litzateke iritsiko negoziaketaren bidetik: egonkortasun bat lortuko litzateke, horretan posible izanik FMLN-FDRren presentzia politikoa boterea eskuratzeko, kalearen boterea lehenik eta estatuaren boterea gero. Hori ere ez litzateke gutxi aurreratzea izango: FMLN-FDRko gizon askoren sakrifizio heroikoak botere oligarkikoaren behin betiko disoluzioa ekarriko balu, eta,aldi berean, indar sozial iraultzaileei bere interes maioritarioak demokratikoki ezartzen utziko liekeen irekitasun politikoa ekarriko balu, urrats benetan iraultzailea egingo luke herriaren historiak. Gerra herritar luzea politika herritar luze bilakatuko litzateke orduan: eta hau, baldintza objektiboak emanez gero, gauza izango litzateke iraultza burutan ateratzeko, Salvadorko indar eta interesen konpo-

saketari egokituko litzaioke eta, batez ere, inguruko errealtate geopolitikoari egokituko litzaioke, errealtate hori Nikaraguaren kasutik ikusten den bezala.

Guatemala

Iraultza sandinista, hobeturik, sendotuko balitz, eta, negoziaketaren ondorioz, mugimendu iraultzaile salvadortarraren indarra sendotuko balitz, hainbat gauza aldatuko litzateke Ertamerikan eta, lehenik, Guatemalan: zona osoaren garapen ekonomiko posiblearen eragilea bait da Salvador-ekin batera.

Guatemalak ere trajektoria luzea du iraultzaren bidean. Ulico diktadorea 1944ean erori ondoren, ia 10 urteko prozesu demokratikoa eman zen Guatemalan, Arévalo-rekin eta Arbenz-ekin: bere asmoak gauzaterik izan balu, aurrerapen erabakiorra izango zatekeen Ertamerika osoarentzat. Baina Estatu Batuek ez zuten prozesu hori errespetatu, ezta demokratikoki aukeratutako Arbenz-en zilegitasuna ere; eta herria errepresio zinez basatizko tragediara eraman zuen altxamendu militar eskuindarra jarri zuten agintean.

Bide politikoa moztua zegoenez, gerrilen mugimendua sortzen da 1962an eta gure egunok arte iraungo du, bere gorabeherekin: URNGk (Unidad Revolucionaria Nacional Guatemalteca) koordinatzen du gaur borroka iraultzaile osoa, baina barruko lau erakunde iraultzaileak desegin gabe. Gerrila honen aurrez-aurre, biolentzia instituzionalizatua dago, eta armada oso egituratua; zaila da, horregatik, hauen borroka, nahiz eta laguntza militar iparramerikarra handia ez izan.

Zailagotu egiten du horrek elkarrizketa/negoziaketa eskatu eta eman ahal izatea; baina gerta daiteke, Nikaraguako eta Salvador-ko aurrerapen politikoak hura posible egitea, batez ere kristau-demokraziak irabaziko balitu hurrengo hauteskundeak.

Honduras

Guzti horrek, bere aldetik, Honduras-en eragingo luke. Bere haragitan egiaztatu du honek, Estatu Batuen interesa ez dela Honduras-en garapen ekonomiko eta soziala, baizik lurralde hau militarki segurtatzea Estatu Batuen alde eta prozesu iraultzaileen kontra; eta ez horien kontra bakarrik, baita subiranotasun nazionala eta Estatu Batuekiko independentzia bere politikaren oinarritzko puntutzat aitortuko litzuzkeen edozein prozesu progresistaren kontra ere.

Ertamerikaren batasuna

Horrela, berriro ere batera planteatuko litzateke Ertamerikaren irtenbide ertamerikarraren posibilitatea, Kissinger txosteneko irtenbide iparramerikarraren lekuan. Irtenbide ertamerikar honi esker, Ertamerikaren batasun-moduren bat sendotuko litzateke. Batasun hori gabe, area osoak ez bait du irtenbide ekonomiko onargarririk, eta Salvador bezalako herri txikiak ez bait dute inolako irtenbiderik epe ertainera.

Gaur gaurkoz ez da posible batasun hori: lehenik, Nikaraguaren kontrako presio iparramerikarratik, herri sateliteak (bereziki Salvador, Honduras eta Costa Rica) iparramerikarren agindupean jartzen dituenagatik. Ez da posible, bigarren, prozesu eta erregimenak sinkronizatu gabe daudelako.

Baina Nikaraguaren planteamendu berriak, Salvadorkoaren eta, ondorioz, Guatemalakoaren konponketak Ertamerikaren batasun-prozesu berri bat bultzatzen dezakete eta USArekiko independentziaren prozesu berri bat: ez derrigor honen kontra jartzeko, baizik herri ertamerikarrei hobeto xeago bizitzeko aukera eskainiko lieketen proiektu historikoak gauzatuz joan ahal izateko. Azken finean, hau litzateke segurtasun iparramerikarraren sostengurik onena.

Contadora: itzaropenak eta itzalak

Testuinguru honetan, zerbait espero daiteke Contadora-ren-gandik: areako arazoaren irtenbide latin amerikarra baita, ez iparramerikarra. Baina honexegatik ez du gogoko Reagan administrazioak: taldearen objektiboak onartu baditu ere, ez ditu neurri proposatuak onartzen, hain zuzen neurriok auzitan jartzen dutelako Estatu Batuen interbentzionismoa, eta hau da Reagan eta bereek area ertamerikarrari dagokion kanpo-politika ulertzeko modu bakarra. Aski izan zen Nikaraguak Contadora-ren Akta berrikusia onartzea, Estatu Batuek eta hauen peoi ertamerikarrek errefusatzeko, behin berriro erakutsiz zein dagoen zinetan interesatua interbentzionismo atzeritarrak mantentzen gure arean. Deus gutxi balio du Contadora-ko taldea (Kolombia, Venezuela, Mexiko eta Panama) herri demokratetako, marxista ez baizik kapitalistetako, talde izateak, eta horiengandik ezin espero izateak, erregimen marxistak ezarri nahiko litzuketan mugimendu iraultzaileen laguntzarik. Nahikoa da taldeak Pentagonoari eta Estatu-Departamentuari gauza guztietan ez amore ematea, jadanik fidagarri ez izateko.

Contadora-ren Aktak neurri hain onargarriak zeuzkan interbentzio atzerritarrez, non Estatu Batuek ez bait zioten objektiorik jarri hasiera batean eta, gutxiago, herri ertamerikarrek. Bazirudien, neurri horiekin gehien sufritu behar zuena Nikaragua zela, kubatarrek militarri interbenitua egotea salatzen bait zioten, eta, mugimendu iraultzaileak lagunduz, inguruko herrien kontra interbenitzeko prest egotea. Esan dugunez, aski izan zen Nikaraguak akordioak onartzea, bere kontrakotzat askotan kritikatu ondoren, besteek ez onartzeko.

Hitzarmen asko eskaintzen ditu Contadora-k: erregioko disentsioaz, konfidantza sustatzeaz, adiskidetze nazionalaz (hauteskunde-prozesu eta besterekin), giza eskubideez; segurtasun-arazoetan eskaintzen dituen hitzarmenak maniobra militarrez eta, batez ere, armatuez dira, zerok proposatuz: armamentismoa gerraraztea, atzerriko base eta eskola militarrik ez onartzea, aholkulari militarrek baztertuz joatea, erregio barruko eta kanpoko arma-trafikoak desegitea, indar irregularrak eta sabotaiak inola ere ez sostengatzea. Halaber, biolentziarako eta gerrarako narritamendu oro baztertzea proposatzen da eta, positiboki, kolaborazio-modu guztiak, kolaborazio ekonomikoa azpimarratuz.

Neurri-sail hau ez da inondik ere helburu iraultzailea, justu kontrakoa baizik; halere, minimo onargarri bat izan daiteke: segurtatuko balitz, posible egingo lituzke herri ertamerikarren subiranotasuna, hauen arteko adostasuna eta indar herritarren garapen politikoa.

Nahiz eta mugimendu iraultzaileek ez daukaten Contadora-ren Akta onartu beharrik, areako herrietatik laguntzarik ezin hariturik eta kanpotik etortzea hauek eragotziko luketelarik, beren indar endogenoa erakutsiko lukete, hots: ea liskar sozial funtsean barrukoa ordezkatzan duten, ala kanpoko indarren eskuhartzez kanpotik sortutako liskarra den.

Etorkizuna, ilun

Contadora ez da soluzio izango epe laburrean. Bere proposamena onartzen bada, denbora bat beharko da efektuak sumatzeko. Bitartean, jarraitu egingo dute herrietako prozesuek. Salvador, Guatemala eta Nikaraguako hauteskunde-prozesuek sendotu egingo dituzte beren erregimenak, bertako aurkariak onartu ez arren. Baina sendotasun hori ez da irtenbidea. Liskarrek jarraitu

gingo dute Salvador, Guatemala eta Nikaraguan, eta, liskarrokin, baita herri bakoitzaren suntsipenak eta berreraikitzen hasteko ezinak ere. Hondurasek bere gezur demokratikoan segituko du, zinetako ezer egin gabe gehiengo herritarrek bizimodu gizatarra goa lor dezaten. Costa Rica eta Panamak beren kanpo-zorrek in jarraituko dute: eta honek beren estabilitate soziala arriskutan jarriko ez badu ere, areako enparatuan bezala, arazo gero eta larriagoak sortuko ditu.

Krisia, beraz, irekia dago. Askapen-prozesuek indartsu jarraitzen dute, baina baita dominazio- eta itomen-prozesuek ere. Ertamerikako arazoa, munduaren arazo da oraindik ere eta mundu mailako arazoak isladatzen dituen ispilu. Herri txiki batentzat, ez da ospe txikia, bere arazoak konpondu ahala, munduarentzat irakaspen izatea: batzuei, lehen munduko herriek hainbeste laguntzen duten opresioa zer den irakasten die; eta herriak autogarapenaren forma erreal bakartzat hartu duen askapena zer den, besteei. Horregatik, auzitan daude Ertamerikan, eszenario txiki batean bada ere, munduaren egia eta ontasuna. Eta honek ikaritzen ditu mundu honetako inperio eta botereak.

Euskaratzailea: Jose A. Aduriz

I.E.

